

1. *Euskal Herriko udalen izendegia*
Euskaltzaindia, 2011
2. *Leioako leku-izenak*
Mikel Gorrotxategi - Iratxe Lasa -
Goizalde Ugarte, 2011
3. *Aiarako toponimia nagusia*
Patxi Galé - Mikel Gorrotxategi -
Felix Mugurutza, 2013
4. *Euskal Herriko ibaiak*
Euskaltzaindia, 2014
5. *Araba / Álava. Los nombres de
nuestros pueblos*
Patxi Salaberri Zaratiegi, 2015
6. *Sestaoko toponimia*
Jorge Luis Tejedor, 2016
7. *Sierra de Toloño, nexo de la
Montaña y la Rioja Alavesa*
José Ángel Chasco Oyón, 2017
8. *Kale eta karriken izenak
hautatzeko eta idazteko irizpideak.*
Euskal odonimiako eskuliburua
Onomastika batzordea:
Euskaltzaindia, 2019
9. *Gipuzkoako herrien izenak.*
Lekukotasunak eta etimologia
Patxi Salaberri Zaratiegi - Luis Mari
Zaldua Etxabe, 2019
10. *Gipuzkoa Antzinaroan: hizkuntzak
eta eremu linguistikoak*
onomastikaren argitan
Luis Mari Zaldua Etxabe, 2020
11. *Euskal Herriko Antzinaroko
jainko eta jainkosen izenak*
Luis Mari Zaldua Etxabe, 2022
12. *Antzinaroko sustrai indoeuroparreko
jende izenak: Araba eta Nafarroako
sartaldeak*
Luis Mari Zaldua Etxabe, 2024


La labor de Onomástica de Euskaltzaindia tiene como finalidad el estudio de los nombres, tanto antropónimos (nombres de pila, apellidos...) como topónimos (mayores, menores, exónimos, callejeros, oicónimos...). Tras recoger, clasificar, analizar y establecer la forma normativizada de los nombres, Euskaltzaindia considera imprescindible darlos a conocer, a fin de que las formas correctas vayan implantándose en el uso habitual, al igual que ocurre en toda lengua normalizada. Ese es el objetivo de la presente colección *IZENAK*.

Le travail d'Onomastique d'Euskaltzaindia a pour but l'étude des noms, aussi bien des anthroponymes (prénoms, noms de famille...) que des toponymes (principaux, secondaires, exonymes, noms de rue, noms de maison...). Après les avoir répertoriés, classés, analysés et établis selon les normes, Euskaltzaindia considère indispensable de les faire connaître, afin de favoriser l'emploi habituel des formes correctes, comme c'est le cas de toutes les langues normalisées. Voilà l'objectif de cette collection *IZENAK*.

The main aim of Euskaltzaindia's Onomastic work is the research of basque names that are classified in proper nouns (names of persons, surnames...) and place names (main and minor toponyms, exonyms, street names, house names...). After collecting, classifying, analyzing and deciding the standardized form of those names, Euskaltzaindia considers it is a must to announce them, so that the correct forms are adopted in the every-day use as it happens with any standardized language. That is the purpose of this *IZENAK* collection.

Luis Mari Zaldua Etxabe

ANTZINAROKO SUSTRAI INDOEUROPARREKO JENDE IZENAK: ARABA ETA NAFARROAKO SARTALDEA



Euskaltzaindiaren Onomastika lanak euskal izenen ikerketa du helburu, bai antroponimoena (ponte izenak, deiturak...) bai toponimoena (toponimia nagusia, txikia, exonimia, kale izendegiak, etxe izenak...). Izen horiek bildu, sailkatu, ikertu eta arautu ondotik, beharrezkotzat jotzen du Euskaltzaindiak izenen forma zuzenak plazaratzea, euskararen erabileran eta normalizazioan eragina izan dezaten. Hori da, hain zuzen ere, IZENAK bilduma honen xedea.



ONOMASTIKA BATZORDEA:

BURUA:

González de Viñaspre, Roberto

IDAZKARIA:

Mujika, Alfontso

TEKNIKARIA:

**Gorrotxategi, Mikel: Onomastika
zerbitzuaren arduraduna**

KIDEAK:

**Alberdi, Mirari
Bidart, Asier
Galé, Patxi
Larrañaga, Josu
Morrás Aranoa, Oier
Rekalde, Paskual
Videgain, Xarles
Zaldua, Luis Mari**

AHOLKULARIA:

**Jorajuria, Peio
Martínez de Madina, Elena
Mugurutza, Felix
Mujika, Nerea**

ANTZINAROKO SUSTRAI
INDOEUROPARREKO JENDE IZENAK:
ARABA ETA NAFARROAKO SARTALDEA



Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan: www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Hizkuntza orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA).

© Luis Mari Zaldúa Etxabe

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / A.L.B.

Plaza Barria, 15

48005 BILBAO

Tel. 94 - 415 81 55

Fax: 94 - 415 81 44

E-mail: info@euskaltzaindia.eus

Webgunea: <https://www.euskaltzaindia.eus>

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabetaren alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Azaleko irudia: Marañón *Doitena Ambati Celti f.*-ren oroitarriaren xehetasuna.

Diseinua: IKEDER

Maketazioa: Impresión Tecnigraf, S.A.L.

Inprimategia: Arabako Foru Aldundia. Moldiztegi Zerbitzua

ISBN: 978-84-128382-4-4

Lege-gordailua: LG G 651-2024

Roberto González de Viñaspre

Aurkibidea

Atariko hitz batzuk	11
Aitzinsolasa	15
1. Euskal hizkuntzaren zabalpenari buruzko ideia linguistikoak	17
2. Azterturiko idazkun corpora	27
2.1 Erromatar garaiko epigrafeak	27
2.2 Enbor indoeuroparreko aztarnak dauzkan inskripzio multzoaren ezaugarri orokorrak.	28
2.3 Duda-mudazko irakurketak eta interpretazioak	31
2.4 Corpora osatzeko irizpideak	36
3. Laginen historia ingurumaria	39
3.1 Hego Euskal Herriaren erromatartzea	39
3.2 Erromako gudarostea Hegoaldean	40
3.3 Galtzadak	43
3.4 <i>Mansio</i> -ak	45
4. Oroitarrien kuntza eta hargindegiak	47
4.1 Apaingarrien araberako hiliarri sortak	47
4.2 Hilartitzen balizko kronologia elementu osagarrien argitan	52
5. Jatorki indoeuroparreko izenen banaketa	55
5.1 Erromatar aroko Arabako eta Nafarroako onomastika	55
5.2 Onomastika esparruak.	56
5.3 Elementu indoeuroparrak dituzten inskripzioen banaketa	57
5.4 Idazkun multzoak eta haien indarguneak	58
6. Antroponimoen egitura	65
6.1 Jende izenen eraketen ezaugarriak eta haien adierazgarritasuna	65
6.2 Hiliarriak	66

6.2.1 Indoeuopar sustraiko elementuak bakarrik dauzkaten pertsona izenak	66
6.2.1.1 Osagai bakarreko deizioak	66
6.2.1.2 <i>Idionimoa</i> + <i>filiazioa</i> egitura dutenak	68
6.2.1.3 Osaketa iluneko bi ale	69
6.2.1.4 Hiru osagai dituztenak	70
6.2.2 Ondare indoeuopar eta greziar-erromatarreko elementuak dauzkaten antroponimoak	70
6.2.2.1 <i>Idionimoa</i> + <i>filiazioa</i> egitura dutenak	71
6.2.2.2 <i>Duo nomina</i> -k	72
6.2.2.3 <i>Duo nomina</i> + <i>filiazioa</i> osaketakoak	72
6.2.2.4 <i>Tria nomina</i> -k	74
6.2.2.5 Eraketa eta osagai berezia daukaten bi epitafio	74
6.3 Aldareak	75
6.4 Hilarrietako antroponimoen egituren grafikoa, taula eta mapa	75
7. Adar indoeuoparreko izenen xehetasunak	79
7.1 Jatorki indoeuoparreko onimoen erakuskariak	79
7.2 Jende izenak eratzeke gehien erabiltzen diren indoeuopar saileko deizioak	79
7.3 Pertsona izenak osatzeko gurean birritan baliaturiko elementu indoeuroparrak	92
7.4 Euskal Herrian behin bakarrik ageri diren izen indoeuroparrak	93
8. Sartaldearen hizkuntza egoera erromatartzearen hasmentan	99
8.1 Hego Euskal Herri indoeuopartua?	99
8.2 Hego-sartaldeko (Ebro haraneko) zeltiberieraren arrastoak	102
8.2.1 Teserak	102
8.2.2 Txanpon-etxeak	105
8.3 Ahaidetasun harreman taldeen izenak Euskal Herriko sartaldean	106
8.4 Sartaldeko (latinaren aurreko) toponimia indoeuoparra	109
9. Hego-sartaldearen ondoko lurraldearen hizkuntza testuingurua Antzinaroan	113
9.1 Hispania indoeuoparra eta Zeltiberia	113
9.2 Zeltiberierazko epigrafia	114
9.3 Ahaidetasunezko harreman-taldeak	116
9.3.1 Ahaidetasun taldeen izenak dauzkaten inskripzioak	117
9.3.2 Genonimoa duten jende izen motak	119
9.3.3 Bilakaera eta latinera moldaketa	121

10. Araba-Nafarroetako etorki indoeuoparreko izenen balizko nondik norakoaren arrazoia	123
10.1 Izenen eta jendeen menturazko jatorria	123
10.2 Azterturiko mostren alegiazko kronologia	125
10.3 Hilarrietan eta aldareetan aipatzen diren pertsonen menturazko etorkia eta bideen garrantzia.	127
10.4 Onomastika barrutiak eta hizkuntza esparruak	129
11. Ondorio batzuk	133
11.1 Euskal Herriko sartaldeko Antzinaroko hizkuntzei buruzko ideia linguistikoak	133
11.2 Azterturiko idazkun corpora	133
11.3 Laginen banaketa	135
11.4 Ondare indoeuoparreko izenen ezaugarriak	137
11.5 Hego-sartaldearen ondoko lurraldearen hizkuntza testuingurua antzinatan	141
11.6 Onomastika esparruak eta hizkuntza alorrak.	144
11.7 Euskal Herriko sartaldeko antzinateko hizkuntzak	147
Ikurrak eta laburdurak	149
Erreferentziak	153
Irudiak	163
Eranskina. Erabilitako onomastika corpora.	165
Eskerren ematea	173

Atariko hitz batzuk

Roberto González de Viñaspre

Euskaltzain osoa

Ohorea da niretzat Luis Mari Zaldua Etxabek egin didan gonbita liburu honi hasmentako hitz batzuk paratzeko. Abegi oneko berbak dira nireak, ezinbestez, euskaltzain urgazle urnietarraren ikerlan sendo, sakon eta zorrotz hau irakurri ondoren. Bihoa aurretik ez naizela aditua batere liburuaren egileak darabiltzan antzinateko hizkuntza-gaietan, neurri nabarmen batean onomastikarekin estekatuta badaude ere. Konformatu behar dut, beraz, gai hauetan irakurle saiatua eta jakin gurakoa izatearekin. Dударik gabe, espezializazio handiko jakintza-esparrua da hau, gurean gutxi batzuen eskura dagoena, eta horietako bat dugu Luis Mari Zaldua Etxabe bera.

Diodanaren zimentarri gotorra da Euskal Herriko Antzinaroko hizkuntza-eremuez aurrera daraman ikerbide antolatu eta emankorra. Duela lau urte argitara eman zuen *Gipuzkoa Antzinaroan: hizkuntzak eta eremu linguistikoak onomastikaren argitan* zeritzan ikerlana, Euskaltzaindiaren bilduma honetan berean. Bi urtegarrenean, teonimia ardatz hartuta, *Euskal Herriko Antzinaroko jainko eta jainkosen izenak* ikusi zuen argia. Berriro bi urteko epean dator oraingoz azkena dena, hau ere *Izenak* bilduman: *Antzinaroko sustrai indoeuoparreko jende izenak: Araba eta Nafarroako sartaldea*. Zehazkiago, Nafarroako sartaldearekin batera, liburuak iker-eremu du gehienbat Arabako sartaldea, egungo Nafarroarekin elkar ukitzen duen lurraldea.

Egileak azterbidearen abiaburu hartu du erromatartzea hasi zenean Euskal Herriko alderdi zabal batean –bereziki Araban eta Nafarroako sartaldean– euskara arrotza eta jatorki hispaniar-zeltako hizkuntzaren bat gailentzen zen ustekizuna, XVII. gizaldian Oihenartek sortu, joan den mendeko lehen erdian biziberritu eta azken urteotan berriro hauspotu izan den hipotesia. Iritzi horren aldeko autoreek batik bat aipatutako eremu geografikoan idoro den jatorri indoeuoparreko pertsona-izenen multzoa baliatzen dute aieru horri eusteko. Haatik, Luis Mari Zaldua Etxabek nabarmentzen du antroponimia-datuak soilik ez direla helduleku nahikoa aro aldaketaren garaian Euskal Herriko sartalde osoan euskal mintzaira arrotza zela ondorioztatzeko, are gehiago jatorri indoeuoparreko toponimo gutxi dagoenean eta teonimoak urriago direnean.

Nire aburuz, egilearen ekarpen handienetako bat da hartu duen lana Araba eta Nafarroa mugakide diren eremuan kausitutako erromatar garaiko jatorki

indoeuoparreko epigrafeen corpora osatzeko eta egiaztatzeko, berariaz arreta jarritz hiliarrietan eta aldareetan zizelkatutako idazkUNETAN. Albo batera laga ditu greziar-erromatar ondareko onomastika dutenak, liburuaren xederako garrantzirik gabekoak baitira, eta Euskal Herriko sartaldekoko Antzinaroko hizkuntza egoera zein zen jakiteko argi eman dezaketen hirurogeita hamalau (74) idazkun aletu ditu. Horietatik berrogeita lau (44) Araban daude eta hogeita hamar (30) Nafarroako sartaldean. Tamalez, corpusean sartutako laginetatik hamabost (15) egun galduak dira. Gorde direnetatik hogeita bost (25) bertatik bertara ikusi ahal izan ditu egileak. Ikertzaile urnietarrak lan egiteko darabilen metodo zorrotzaren erakusle da lehen eskuko kontrastea egin nahi izatea, eta horren saria zenbait hiltartizetan diratekeen duda-mudazko interpretazioak argitu ahal izatea.

Luis Mari Zaldua Etxabek esan bezala, agerikoa da erromatartzearen aitzinetik, gutxiago edo gehiago, Euskal Herriko sartaldeak ekarpen indoeuoparra jaso zuela eta Iberiar penintsulako beste eremu batzuekin harremanak izan zituela, baita hizkuntzaren arloan ere. Hori da arrazoizkoena. Orobat baieztatzen du, horrela izanagatik ere, Araba-Nafarroetako toki jakin batzuetan dagoen epigrafiatik ezin daitekeela besterik gabe ondorioztatu eremu horretan euskal hizkuntzarik ez zegoenik.

Halabeharrez, helburu horretarako ahula eta mugatua da antroponimiaren balioa, askotariko arrazoiak tarteko. Izan ere, egileak gogorarazten duen bezala, oroitarriak ipintzea ez zegoen herritar ororen eskura, eta epigrafeak ezarraraztea elite ekonomiko eta sozialen bereizgarria zen. Gainera, onomastika-barrutiak eta hizkuntza-esparruak ez dute zertan bat etorri, pertsona-izenek berezkoa duten mugikortasunagatik, beren erabilera garaian garaiko kultura ospetsuenen (eta boteretsuenen) mende egon ohi direlako, nonahi eta noiznahi.

Urnietako ikertzaileak dioten gisara, kontua da Araban jatorri indoeuoparreko pertsona-izenak dituzten idazkunen metaketa nagusia *Iter XXXIV* aldamenen dagoela, alegia Euskal Herria alderik alde zeharkatzen zuen «ab Asturica Burdigalam» galtzada erromatar garrantzitsuenaren inguruan. Gainera, egileak dioskun eran, igarobide horren ondoko epitafio gehienak—Iruña Oka alde batera utziz gero—Agurain-Olatzagutia artean daude, hau da, Arabako Lautada bukatzen eta Nafarroako Sakana hasten den gunean. Errealitate horren inguruabarrak azaltzeko asmoz, Luis Mari Zaldua Etxabek azterbide nik dakidaneraino berritzailea, eta zinez iradokitzailea, erakusten du liburuan: hiltartiz horietan «gogora ekartzen direnetako batzuk iberiar penintsulako beste alde batzuetatik iritsitako (erromatarturiko) enda indoeuoparretako gizon-emakumeak izatea, hau da, kanpotik heldutakoak edota haien ondorengoak izatea». Eta zerk eraman zitzakeen eremu horretara? Egilearen esanean, litekeena da *Iter XXXIV*-eko *Alba mansio* edo geltokia artatzeaz edota kudeatzeaz arduratzen zirenak izatea, hara bertaratuak. Galtzada

jagoten zuten gudarosteko kideak izatea ere ez da baztertzekoa. Aierua egiantzekoa da, eta, hizkuntzalaritzaz harago, historiaren argitan ikertzea merezi du.

Gaurdaino iritsi den epigrafia apurretik litekeen argia, mehea bada ere, ateratzen ahalegindu da egilea, eta nago gorestekoko ekarpenik eman duela saioak.

Aitzinsolasa

Duela bi mila urte pasatxo, erromatartzea hasi zenean, Euskal Herriko parte zabal batean (bereziki, sartaldean) jatorri hispaniar-zeltako hizkuntzaren bat gailentzen zelako aierua ez da atzo goizekoa.

Aurretik izan zen teoria horri haize egin zion euskalaririk, baina, biziberritu, XX. gizaldiko lehen erdian biziberritu zen, han eta hemen. Gero, duela hamarkada bat, arlo akademikoan behin ere itzali ez den txingarra hedabide batzuek hauspotu egin zuten eta, orduetik, sua bortiztu egin da, aldizkari nahiz liburu berezietatik kanpo zabaldu da. Hain zuzen ere, izan, bada hipotesi berria eta berritzailea dela dioenik.

Garbi dagoena da garra ez dela iraungi, ez alor batean, ez bestean. Oraindik aho-mihietan dabilen solasa da, komunikabideek gaurko gizartean duten errainuarengatik eta ustekizun hori aldeztu dutenak, bat baino gehiago unibertsitateko irakasleak, jende saiatuak eta langileak direlako. Guztiarekin ere, hizkuntzalaritzaren aldetik baizik ez diot begiratu.

Azala utzirik, gatozen mamira. Euskal Herriko hego-mendebaldeko gunek bat eta zerrenda bat zeltiberieraren idatzizko arrastoak (teserak eta txanponak) idoro diren barrutiaren barnean dira, baina sartalde guztian euskal mintzaira arrotza zelako burutapenari eusteko baliaturiko jatorri indoeuroparreko (hispaniar-zeltako) pertsona izen sortaren muina ez da hedatzen mendebalde guztian, Arabako ekialdean eta harekin muga egiten duen Nafarroako sartaldeko alderdi batean baizik.

Jakina, zeltiberiarrak zirela ez ezen, erromatarren sasoian, herritar gehienek nagusiki euskal hizkuntza erabili arren, aipatutako alderdian eta beste batzuetan indoeuropar ondareko izen «exotikoak» euskal etorkikoak baino nahiago zituztenak bazeudela ere pentsa daiteke.

Gainera, teorian behintzat, ezin da baztertu Arabako eta Nafarroako sartaldeko hilaertzetan eta botoetan gogora ekartzen direnetako batzuk Iberiar penintsulako beste alde batzuetatik hona iritsitako (erromatarturiko) enda indoeuroparretako gizon-emakumeak izatea, hau da, kanpotik (gertuagotik edo urrutiagotik) heldutakoak edota haien ondorengoak izatea. Kontua da jakitea Arabara eta Nafarroako mendebaldeko eremu horretara zergatik etorri ziren.

Galdera nagusia da, honenbestez, Arabako eta Nafarroako sartaldeko hilarri eta aldareetan dauden jende izen hispaniar-zelten aztarnak aski ote diren aro aldaketaren garaian Euskal Herriko mendebalde osoan (Araba, Bizkai eta Gipuzkoa guztian nahiz Nafarroako sartaldean) euskal mintzaira ezezaguna zelako ustekizuna funtsatzeko. Deus gutxiko arazoa, ikusten den bezala.

Galde horri ihardesteko, dauden jakingarriak astiro ikusmiratuko eta galbahetuko ditut. Lehenengo eta behin, euskal hizkuntzaren zabalpenari buruzko ideia linguistiko indarberritu horren nondik norakoari erreparatuko diot, noski.

Ondoren, enbor indoeuroparreko zantzuak dauzkan idazkun multzoaren ezaugarri orokorreki eta haren historia ingurumariari so egingo diet. Oroitarrien kuntza eta haien banaketa ere ahotan hartuko ditut.

Horretaz guztiaz iharduki ondoan, jende izenen egiturari eta haien xehetasunei behatuko diet. Erdietsitako informazioa eralkitzeko, Euskal Herriko mendebaldearen eta haren aldameneko lurraldearen Antzinaroko hizkuntza testuinguruen baheetatik igaroaraziko dut.

Buruenik, nire iritzirako, Araba-Nafarroetan etorki hispaniar-zeltako izenak ego-tearen arrazoiak zeintzuk diratekeen adieraziko dut, hots, Euskal Herriko sartaldeko antzinateko menturazko hizkuntza egoerari buruzko inguruabar batzuk azalduko ditut. Haien zergatikoa, nabariena behintzat, argitzeko gauza izango ahal naiz!

Testua irudiztatzeko zenbait argazki eta mapa barneratu ditut. Begiak elikatzeaz gainera, irudiek beti egiten diote argi adimenari. Horixe bera nahi dut nik euskal hizkuntzaren Antzinaroko hedaduraren ikusmoldeaz denaz bezainbatean.

«Suko inarra, suko txinda bera ere bere buruz fite iraungitzen da; ordea, zuk anarteraino iguriki gabe, pausatzer a utzi gabe, berehala, puntu berean, zeureganik egozten duzu».

Axularrek pasarte hori idatzi zuen sasoi berean oso bestelako idazle batek, Oihenartek, Euskal Herriko bi aldean (hegoaldekoaren eta iparraldekoaren) historiari buruzko liburua plazaratu zuen. Hauxe esango dut oraingoz eta bukatzeko: Mauleko euskalari handiak badu zerikusia hurrengo orrialdeetan erabiliko dudan auziarekin, ez nolanahikoa, gainera.

1. Euskal hizkuntzaren zabalpenari buruzko ideia linguistikoak¹

Regionem Vardulorum, Autrigonum et Caristorum à
Vasconibus occupatam videri.

A. Oihenart (1638, 18. or.).

Erromatar garaian Euskal Herriko alderdi zabal batean euskal hizkuntza arrotza zelako aierua ez da atzo goizekoa. Euskaldun batek plazaratu zuen estreinakoz, orain dela lau gizaldi, autrigoen, barduliarren eta karieteen² («karistiarren») lurraldea (gutxi gorabehera, gaurko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) baskoiek (euskaldunek) Erdi Aroan okupatu zutela. Arnaut Oihenart zuberotarrak ari naiz.

Bi Baskonien (Iberiakoaren eta Akitaniakoaren) berri emateko 1638an Parisen latinez argitaratu liburua ez zen Mauleko legegizon eta euskalariaren lehenbiziko idazlana, urte batzuk lehenago, erresuma zaharraren «usurpazioari» buruzko zenbait testu izkiriatu baitzituen Nafarroako errege-erregina antzinakoen eskubideen legezkotasuna aldarrikatzeko.

Liburua hornitzeko, Iparraldeko, Hegoaldeko eta Frantziako zenbait artxibategi hustu zituen batetik eta, bestetik, autore klasikoen nahiz historialari modernoek lanak irakurri eta barneratu zituen, Garibairena kasu.

Zuberotarra punta-puntako ikertzailea zen. Adibidea jartzeko, Atharratzeko erromatar aroko *Heraucorritsehe* jainkoaren aldarearen marrazkia bildu zuen *Notitia*-n. Nolanahi ere den, ez du –Garibaik (1571, 81–85. or.) egin gisan– onomastika erabiltzen bere argudioen euskarritako.

Oihenart (1638, 18–12, 73–74. or.) ez zen «kantabrista», ez baitzuen uste euskaldunak denbora joanetako kantabriarren oinordeak zirenik, hain gutxi Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, behinola, Kantabriaren zati izan zirenik. Haren iritzian, baskoiak, hau da, nafarrak, ziren sortzezko euskaldunak. Garibaik (1571) ez bezala, Tubal ez du aipatu ere egiten liburuan.

¹ Esker ona adierazi nahi diet Roberto González de Viñaspre Gonzalo eta Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzainei liburu honi egindako ohar eta ekarpenengatik.

² Ikus 3.1 §.

Maulekoarentzat, sasoi batean, Baskonia gaur Nafarroa dagoen tokian zen, baina egun baino azalera handiagoa hartzen zuen; Ebroz haraindiko Calahorraraino eta *Gracurris*-eraino (Alfaroraino), Aragoiko konderri zaharreraino eta, iparraldetik (orain Hondarribia dagoen Gipuzkoako partetik) Kantauri itsasoraino iristen zatekeen. Horrela, bada, harentzat, jatorriz, Araba, Bizkai eta Gipuzkoa ez zeuden Baskoniaren barruan, ezta Iparraldea ere.

Oihenarten irudiko, VI.-VII. gizaldian, godoak Espainiako jabeak izanik, baskoiak, –eskualde laua utzi eta beren mendietara erretiratu ondoren– aldamenen zeuden barduliarren, autrigoen, karieteen eta akitaniarren lur garaietan zabaldu ziren. Haien bizilekuak baskoiek (nafarrek) berenganatu eta euskaldundu zituztelakoan da, alegia, nafarrak iparraldera, sortaldera, eta sartaldera hedatu zirela uste du eta, horrekin batera, euskara Euskal Herri osoan barreiatu zutela.

Zuberotarraren proposamenak ez zuen oihartzun handirik izan. Hurrengo mendeetan (XX.aren hasmenta arte), nazioarteko ospea zuten bi hizkuntzalarik, Wilhelm von Humboldt (1821) eta Hugo Schuchardt (1907) alemaniarrek, hauspoturiko eta aitzinaturiko «eusko-iberismoa» izan zen nagusi, hots, euskara eta iberiera hizkuntza bera zirelako eta hark Penintsulan oso eremu zabala hartzen zuelako hipotesia gailendu zen. Guztia-ekin, aurrerago ikusiko dugun bezala, badirudi Oihenartek XVII. gizaldian karrikaratu baieztapena (gutxi edo asko) gogoan izan zutela XX. jendemendeko zenbait autorek³.

Erromatarren sasoiaren Euskal Herriko zati handi batean euskal hizkuntza ezezaguna zelako proposamenak XX. gizaldiaren lehen erdian jaso zuen behin betiko bultzada, batez ere Manuel Gómez-Moreno-ren eta, neurri batean, Gerhard Bähr-en lanei esker.

Gómez-Morenok (1925, 477. or.), signario paleohispaniarra («idazkera iberiarra») lehenbizikoz irakurtzea (ez ulertzea) erdietsi zuen arkeologo eta hizkuntzalaria, onomastika arloko arrazoia darabil iritzi horren habetako: «Sobre todo, la nomenclatura personal admite comparaciones de valor definitivo, probatoria de que allí vivían gentes de raza cántabro-astur, sin el más leve rasgo de vasquismo perceptible».

Gómez-Morenorentzat (479-480. or.), pertsona izenak, garaian garaiko eraginaren berri ematen duten heinean, baliagarriak dira (leku izenak baino gehiago) erromatar konkistaren aldi bizi zirenen jendeen etnia eta mintzaira zein ziren jakiteko. «*Elanus Turaesamici(or)um Ambati f.*» (Iruña Oka), «*Araica Arai f.*» (Kontrasta), «*Minicia Aunia Segonti f.*» (Gastiain) eta Arabako nahiz Nafarroako beste hainbat antroponimo ipintzen ditu adibide moduan.

³ Euskal mintzairak Antzinaroan bide zituen mugei buruzko ideietan sakondu nahi duenak ikus bitza Caro Barojak (1972) zein Gorrotxategik (1985) gai horri buruz atondutako testuak.

Hiru probintzietako zein Lizarrerriko aldare eta hilarriek –baskoien barrutikoek ez bezala– kantabriarren eta beroien eremukoek kultura, sinbolo eta deizio berak dituzketela azpimarratu ostean, Granadakoak (477-478. or.) entzutetsua bihurtu den pasarteak izkiriatu zuen, «euskalduntze berantiarren» teoriaren aldaera modernoaren abiapuntutzat hartzen dena:

Es, por consiguiente, seguro que tan sólo después de la época romana sobrevino un corrimiento de vascones hacia allá, como también por Gascuña, hechos documentados muy bien por las crónicas francas y godas en los siglos VI y VII, ...

Bi urteren buruan, Adolf Schulten historialari eta hizkuntzalari alemaniarrek baskoiek II. gizalditik aurrera Araba, Bizkai eta Gipuzkoa bereganatu zituztela zioen artikulua kaleratu zuen RIEV-en. Elberfeldkoaren (1927, 234, 240. or.) arabera, baskoien bizilekuak, berez, Nafarroako hegoaldea baino ez zuen hartuko. Beranduago (aro aldaketaren aitzinetik) itsasoraino iritsi ziren eta, horrekin batera, beren lurraldea Nafarroa osora zabaltzen zuten. Handik sartaldetara jo zuten, antza, bardularrak, karieteak eta autrigoiak zeuden eskualdeetara jo ere. Daitekeena begitantzaren zaio hizkuntza arlokoaren aitzinetik, konkista politikoa jazo izana. Mendebaldeko balizko hedatze hori Ptolomeoren (II. mendearen) ondoren izan bide zen, 580. urtea baino lehen betiere.

Ñabardurak ñabardura, gauza bertsua dio Bährek (1948, 184. or.):

Ich glaube, aus dem eben Dargelegten geht mit grosser Deutlichkeit hervor, dass die westlichen Nachbarn der Vaskonen Kelten oder mindestens stark keltisiert waren. Das beweisen auch die PN der Grabschriften, z. B. aus dem östlichen Alava : Buturra, Ambata, Caricus, Medarica, Viriatus, Segontius, Vironus, Ambaicus, alles Namen von unzweifelhaft keltischem Gepräge.

Hortaz, Udanako (Legazpiko) euskalariaren arauaz, txoil argi dago baskoien sartaldeko auzoak zeltak zirela edo, gutxienez, haien eragin handia izan zutela. Hilartizetako pertsona izenek hori frogatzen bide dute, Bähren iritzirako; adibidez, Arabako sortaldeko antroponimoek (denek), zalantzarik gabe, izaera zeltako osagaiak dituzte.

Gómez-Moreno, Schulten eta Bähren hipotesiak harrera ona izan zuen (eta du oraindik) haien ondorengo zenbait autorerengan. Ulrich Schmoll alemaniarrek (Jürgen Untermann-en maisu izan zenak), esate baterako, zelten aurreko Hispaniako indoeuroparren mintzaireri eta zeltiberierari buruzko liburua kaleratu zuen 1959an eta han (25. or.) –Gómez-Morenok bildutako jende izenak eta euskarazko aztarna gutxi dagoela oinarritzat harturik– antzinatean Baskoniako biztanleria gehiena indoeuroparra/zelta zela adierazi zuen.

Hogeita hamalau lerro betetzen dituen orripeko ohar batean diosku *Auskisch* (antzinako euskara) delakoa Akitaniatik ekarri zutela euskalduna izan den barrutira,


Erdi Aroko inbasio baten ondorioz. Liburuaren bukaeran (125. or.) gehitzen duen mapan *auskisch*-aren erpina Erronkariraino eta Zaraitzuraino baizik ez da heltzen, urrutiago ez (ik. 1. mapa). Gauza ezaguna da handik gutxira Lergako hilarria aurkitu zutela, erromatarren garaian Nafarroako erdialdean euskal hizkuntza erabiltzen zela egiaztatu zuena.

Ikusten den bezala, zenbait ikertzailek (hilarrietako) sustrai indoeuroparreko (IEeko) pertsona izenak baliatu dituzte Euskal Herriko zati handi batean Antzinaroan euskal mintzaira ezezaguna zela argudiatzen saiatzeko.



1. Mapa. Schmoll (1959, 125. or.).

Gómez-Morenok –Menéndez Pidalen omenez paraturiko 1925eko artikulua garrantzitsuan– Hego Euskal Herriko hogeita zazpi (27) epitafio aipatzen ditu bere hipotesiaren heldulekutako, gehienak, bi izan ezik, *Corpus Inscriptionum Latinarum*-en bigarren aletik hartuak, Emil Hübner-ek (1869) editaturiko *Inscriptiones Hispaniae Latinae* delakotik (usaian *CIL II* laburdurarekin izkiriartzen denetik) jasotakoak, alegia (ik. 1. irudia).



1. Irudia. 1869ko CIL II-ko fitxa (400. or.)

Arreta pixka bat opa diona ohartuko da Düsseldorfeko epigrafistak, 1802an Espainiako *Real Academia de la Historia*-k (RAH-k) plazaraturiko *Diccionario Geográfico-Histórico de España* duela iturritzat («Provincias Vascas y Navarra [Comprende el reino de Navarra, Señorío de Vizcaya y provincias de Álava y Guipúzcoa]»). Arabako hogeita hamahiru (33) inskripzio, Nafarroako sei (6), Bizkaiko bi (2) eta Gipuzkoako bat (1) aletzen dira argitalpen horretan.

Real Sociedad Bascongada de Amigos del País-eko kideen esku hartzea garrantzitsua izan zen RAHren hiztegia osatzeko, Araban batez ere (ik. Ciprés, 2018, 199–201. or.). Epigrafiaren arloan, Lorenzo Prestameroren (XVIII. m.; 1792) ekarpena nabarmendu beharra dago; hala aintzatesten da hiztegiaren hitzaurrean (XXX). Urizaharreko «ilustratua» ikertzaile fina zen (ik. 2. irudia), gaurdaino iraun duten idazkunen marrazkiek erakusten duten bezala.

2. Irudia. Prestameroren XVIII. gizaldiko marrazkia (ALHA-DH-Prestamero 1080_30).



Zorionez, XIX. mendearen hasmentako RAHren *Diccionario Geográfico-Histórico de España*-n barneratutakoak baino estela eta ara gehiago ezagutzen dira egun. Hori, besteak beste, Juan Carlos Elorzak (1967, 1969, 1970) egindako lanari zor zaio, Araban ehun eta hemeretzi (119) oroitarri dokumentatu baitzituen joan den gizaldiaren hirurogeiko hamarkadan. Nafarroari datxekionez, Taracenak eta Vázquez de Pargak (1946) nahiz Castillock, Gómez Pantojak eta Mauleónek (1981) atondutako ikerketa eta bilduma lanak goretsi beharra dago.

XXI. jendemendeaz denaz bezainbatean, badira –Gómez-Morenoren, Bähren eta Schmollen oinatzetan– hipotesi «klasikoari» eusten dioten autoreak, alegia, Euskal Herriko sartaldean erromatarren aroan mintzaira hispaniar-zeltaren bat nagusitzen zela pentsatzen dutenak (ik., adibidez, Cepeda, 2001, 35-37. or.; Villar, 2005, 503-514. or.; Vallejo, 2006, 202-203. or.; Velaza 2012, 80. or.; Jordán, 2019, 44. or.; Abaitua & Martínez Areta & Ramos, 2022), baina baita –Caro Barojari (1973 [1943], 99-102. or.) nahiz Mitxelenari (1982b, 304-306. or.) jarraikiz– ustekizun hori txarresten duten hizkuntzalariek eta historialariak ere, Gorrotxategi (2015, 19-20. or.), Lakarra (2018, 228-229. or.), Salaberri (2017, 243. or.) edo Monteano lekuko (2023, 127-139. or.).

Laburbilduz, XVII., XX. eta XXI. gizaldietako zenbait historialarik eta hizkuntzalarik erromatar sasoian Euskal Herriko parte zabal batean euskal mintzaira arrotza zelako teoria defendatzen dute. Beren usterako, aldi hartan hizkuntza indoeuropar (nagusiki zelta) bat gailentzen zen eta iritzi horri eusteko onomastika arloko argumentuak darabiltzate, hau da, epigrafian antzinateko euskal sustraiko jende eta toki izen gutxi dagoela eta, aitzitik, jatorri IEekoak ugari direla.

Aurrera egin eta mamian sartu aurretik, ondo datorke honetara Mitxelenak (1961, 246. or.) izkiriatu hitzok gogora ekartzea:

Por indicarlo gráficamente, un celta será aquí un individuo que tiene una lengua céltica como medio principal de expresión. Se hace necesaria esta puntualización, porque es un hecho sobradamente comprobado que las relaciones entre la lengua y la cultura, para no hablar de raza, son mucho más laxas de lo que a veces suele pensarse.

Baita ondorengo hauek ere (1982a, 156. or.):

Mientras antes se consideraba al vascón como vasco casi por definición, aunque era evidente que muchos de los vascones desconocían esa lengua, ahora parece más bien que el *Anskisch* de Schmoll, norteño de origen, se haya ido corriendo a regiones más meridionales. Esto, como cualquier otra cuestión que se fundamenta ante todo en argumentos *ex silentio*, tendrá que esperar a que el tiempo, con nuevas ideas y sobre todo con nuevos hallazgos, aclare algo más los problemas.

Liburu honetan Euskal Herriko sartaldeko hizkuntza egoeran argi egiten ahaleginduko naiz, bai espazioaren aldetik, bai denboraren aldetik. Horretarako, erromatarren

garaiko idatzizko aztarnetatik (aldareetatik eta hilarrietatik) eskura daitekeen informazioa modu bateratuan bahetuko eta xehatuko dut.

Αὐτὰ τὰ πράγματα ὁρᾷν, διαιροῦντα εἰς ὕλην, αἶπιον, ἀναφοράν.

Μάρκος Αυρήλιος (Τὰ εἰς ἑαυτόν, II 10)⁴

⁴ 'Gauzak, berez, zer diren ikusi, beren material, arazoian, harremanean, aztertuz'. Marko Aurelio (*Gogarteak*, II, 10).

II. gizaldian, Erromako enperadoreak grekoz (filosofo handien hizkuntzan) idazten zituen beretzako gauzak edo bakarriketak, eta ez latinez, eguneroko bizitzan zerabilen mintzairan.

2. Azterturiko idazkun corpora

2.1 Erromatar garaiko epigrafeak

Dokumentaturiko idazkun kopurua engainagarria, nahasgarria gerta daiteke. Hasteko, arruntean, oroitarriak ipintzea ez zegoelako herritar ororen eskura, epigrafeak, sosa zuten eta haiek ulertzen zituzten familiek bakarrik ezarrarazten zituztelako. Gehiago dena: hilarrietan eta aldareetan inskripzioak irartzea, hein batean, gainerako herritarrengandik bereizteko modua zen. Zenbat pertsonak ote zuten, bada, estela bat ordaintzeko ahala edo leitzeko gaitasuna?

Beste alde batetik, pentsa daiteke asko galduta daudela, beharbada, ezagutzen ditugunak adina (edo gehiago). Espero dezagun etorkizunean gehiago aurkitzea. Halaber, menturaz, izango dira ezkutuko bilduma ikusezinetan daudenak.

Deigarria da asko elizetan-eta gorde izana eta ez, esate baterako, eraikin zibiletan. Ez du ematen berrerabilpen hutsaz ari garenik, hilarri ugari ondo ikusteko moduko tokietan jarrita baitaude, izkiriaturikoa ageriko aldean dutela. Guztiarekin, gutxi dira, oso, jatorrizko lekuan kausitu direnak; gehien-gehienak arkeologia testuinguruaz kanpo daude.

Euskal Herrian idoro diren erromatar garaiko idatzizko aztarrenen zerrenda bateraturik eta bereziturik ez dago, damurik. Hispaniako eta Akitaniako laginak jasotzen dituzten bildumetan begiratu behar dira datuak. Badira, zorionez, herrialdekako bilketak, asko joan den mendean osaturikoak.

Aipagarrienetako bat Juan Carlos Elorzak Araban 1967an burututakoa da. Ehun eta hemeretzi (119) inskripzioen berri eman zuen eta berrogeita sei (46) *nomina* eta laurogeita bi (82) *cognomina* bakandu zituen haietan (Elorza, 1967, 178. or.). Esan beharra dago tartean badirela hizkuntzalaritzaren aldetik muntarik ez dutenak.

Urte batzuk geroago, Etxebarriak (1989, 136. or.) ehun eta hogeita lau (124) hilarritz jaso eta aztertu zituen probintzia horretan bertan. Horietatik ehun eta bat (101) lau gune nagusitakoak dira (Kontrasta, Iruña Oka, Iruraiz eta Donemiliagakoak) (ik. 5. §).

Nafarroan, Castillok ehun eta hogeita (120) idazkun bildu zituen 1992an (118. or.), guztira ehun eta hirurogeita hamalau (174) pertsona izen dauzkatenak.

2006an Cipréssek (86-87, 103-104. or.) berrehun eta hogeita zortzi (228) fitxako corpora osatu eta eralki zuen Euskal Autonomia Erkidegoan, gehienak epitafioak.

Ehun eta berrogeita bost (145) antroponimo bakartu zituen haietan (ziur antzeko 103 gizonezko eta 35 emakumezko), hogeita hamabi (32) indigenak; bat (*Beltesonis* [gen.] «euskal-akitaniarra») izan ezik, guztiak IE (indoeuropar) jatorrikoak. Batzuk irakurtzeko duen zailtasuna aitortzen du.

Buruenik, handik bi urtera, Alfarok (2008, 254-255. or.) une hartan Araban erromatar sasoiko berrehun eta berrogeita sei (246) hiliarri ezagutzen zirela zehaztu zuen. % 75 baino gehiago (sortaldeko) Lautadakoak eta Haranekoak dira eta % 64 elizetan-eta berrerabili dira. Askok ez du ekarpenik egiten hizkuntzalaritzaren alorrean, leitu daitezkeen hizki gutxi geratzen direlako.

Esanak esan, Araban eta Nafarroan, miliarioak, brontzezko xafak, ontziak eta bestelako euskarriak alde batera utziz gero, –leitu edo berreraiki daitezkeen– pertsona izenak dauzkaten erromatar aroko (harrian grabatutako) berrehun eta berrogeita hamar (250) epigrafe eskas zerrendatu ditut nik. Daitekeena da, oso, beste autore batzuek gehiago batzea, batez ere greziar-erromatar (G-E) ondareko onomastika dutenen sailekoak. Haatik, ez dut uste sorburu IEeko elementuak dauzkatenak askoz gehiago izango direnik.

Liburu honetan Arabako ehun eta hamazazpi (117) idazkuni eta Nafarroako ehun eta hogeita zazpiri (127ri) begiratu diet. Oroit bedi hemen, probintziaren azalera erresuma zaharrak duenaren herena dela. Bizkaian, dozena bat pasatxo dira erromatar garaiko laginak eta Gipuzkoan hiru besterik ez dago. Iparraldean are urriago dira.

Arabako eta Nafarroako lekuko gehienak (hamarretik zortzi) hiliarrietan irarritakoak dira eta gainetikoak aldareetan. Bi herrialde horietan (ziur antzeko) hizkuntza arloko informazio erabilgarria eskaintzen duen hiliarri kopuru bertsua dago (109 eta 95, hurrenez hurren). Aldareekin ez da gauza bera jazotzen, horratik; Araban ulertzeko moduko onimoak dituzten zortzi (8) baitaude eta Nafarroan, berriz, hogeita hamabi (32). Alde hori argitzen duen arrazoi garbirik ez dakusat, ez dakit zeri zor zaiokeen.

2.2 Enbor indoeuroparreko aztarnak dauzkan inskripzio multzoaren ezau-garri orokorrak


Euskal Herriko sartaldekoko Antzinaroko hizkuntza egoera zein zen jakiten saiatzeko, jatorri hispaniar-zeltako (zeltiberiarreko...) izenak dituzten hirurogeita hamalau (74) idazkun aletuko ditut, hirurogeita sei (66) hiliarritan eta zortzi (8) aldaretan direnak. Horietatik berrogeita lau (44) Araban daude (43 hiliarri eta aldare 1) eta gainerako hogeita hamar (30ak) Nafarroan (23 hiliarri eta 7 aldare) (ik. 1. grafikoa). Goian aurreratu dudan moduan, beraz, zeramika gainean grabatutakoak ez ditut aintzat

hartu, alegia, Arellanoko (*terra sigilata*-n izkiriaturiko) *Funcale* eta *Idinai* edota Funesko (grafitoko) *Tuxi(us?)*, adibidez, ez ditut corpusean barneratu.

Inskripzio horiekin guztiekin datu base antzeko bilduma eratu dut (ik. Eranskina) eta, han, identifikatzen duen kodea ezarri diot bakoitzari, liburuan zehar aipatzen ditudanean, aldi oro, xehetasun guztiak (probintzia, herria...) edota testu osoa eman behar ez izateko.

Kode horrek lau zati ditu. Aurreneko letrak herrialdea adierazten du (A: Araba; N: Nafarroa). Hurrengo bi hizkiek epigrafea aurkituriko herriaren berri ematen dute (Al: Alaitza; AK: Aguilar Kodes...) (ik. Ikurrak eta laburdurak). Hirugarren ikurrak hiliarria (H) edo aldarea (A) den zehazten du. Bukaerako zenbakiak mostra herriko bereko bes-teetatik bakartzen du.

Esate baterako, *ADuH2* siglak ‘Arabako probintzian den Durruman (Donemiligan) kausituriko 2 zenbakia duen hiliarria, «- - - - - / [- - -Tur]usam[us - - - / - - -] an(norum) XX [h(ic) / s(itus)] e(st)» testua daukana’ esan nahi du. Horrela, bada, kode hori –gehiago zehaztu gabe– oroitarria (euskarria) bera edota *[Tur]usam[us]* antroponimoa bakarrik ahotan hartu behar dudanean txertatu dut.



1. Grafikoa. Jatorri indoeuroparreko osagaiak dituzten idazkunen euskarriak herrialdeka.


Liburu honetan azterkizuntzat hautetsi dudan corpusean zer sartu eta zer ez erabakitze orduan, alegia, erromatar aroko Euskal Herriko hilaertiz eta eskaintza guztien artetik jatorri IEeko osagaiak dauzkatenak bereizteko, lehenik eta behin,

bibliografia orokorra (Gómez-Moreno, 1925; Bähr, 1948; Schmoll, 1959; Ciprés, 2006; Gorrotxategi, 2015...) eta *Hesperia* (hemendik aitzin *Hesp.*) datu basea hustu ditut. Inskripzioak beren osotasunean irakurri ahal izateko, aurreko ikertzaileen interpretazioei eta transkripzioei (Prestamero, XVIII. m., 1792; Hübner, 1869; Elorza, 1967) nahiz *Hispania Epigraphica* (aurrerantzean *HE*) datu baseari erreparatu diet.

Lan hori burutzearekin batera ateratako lehenbiziko ondorioa izan da hilarrien eta aldareen erdiak baino gutxiagok gorde duela pertsona izena osorik (hizki guztiekin), esan nahi dut ez duela irakurtzeko arazorik. Gainera, hau da, gehienetan, izan arinagoa, izan larriagoa, bada haiek leitzeko zailtasun edo oztoporen bat, hots –euskarria puskatuta edo higatuta egoteagatik– zatiren bat ezabatua dago edo ezin da ondo ulertu (ik.1. argk.).

Aldare eta hilarri guztien potreta edo marrazkiren bat eskuratzen saiatu naiz; hirurogeita bat (61) aleren (% 82ren) irudiren bat erdietsi dut.

Dokumentatu gabeko hamahiruen (13en) artean bitarikoak daude: hamar (10) oroitarri (AEgH2, AEgH1, AIIH1, AIIH3, AAgH1, AIIH1, AAIH3, NOTH1, NGaH4, NGaH5) galduta dira eta beste hiru kasutan bibliografia iturrietan adierazitako tokian, egun bederen, ez dago inolako aztarrenik (AKoH3, AKoH7, ASaH1); ezabatuak direlako? Hitzak hizpidea ekarrita, diodan, egon badaudela desagertutako beste bost, baina, zorionez, badira Prestamerok egindako haien marrazkiak (AIIH4, AIIH5) edota Elorzak (1967) ateratako erretratuak (AAIH2, AAtH1, ALnH1). Hortaz, corpusean sartutako hirurogeita hamalau (74) laginetatik berrogeita hemeretzi (59) gorde dira gaur arte (% 80).



1. Argazkia. Am(batus) Serani f.-en hilarria (Kontrasta, AKoH2).

Hogeita bost (25) idazkuni bertatik bertara erreparatzeko parada izan dut (gaurdaino iraun dutenen % 42) (ik. 2. grafikoa). Olatzagutikoaren kasuan izan ezik, hilarria edo aldarea erakusteko eskatu diodan inork ez dit aitzakiarik jarri, izan norbanakoa, izan erakunde. Eskerrak erraztasun hori eskaini didaten guztiei.

Bertatik bertara ikuskatu ezin izan ditudanen berri izateko, argitalpenetatik harturiko, museoek (*Bibat*-ek eta Nafarroakoak) emandako nahiz Nafarroako Gobernuaren Ondare Zerbitzuak iritsarazitako argazkiak erabili ditut; goresmenak azken hiru erakunde horiei ere.

Ahaleginak merezi izan du, zenbait hilartitzi begi izanari esker zalantza printzek argitu bainaute.

2.3 Duda-mudazko irakurketak eta interpretazioak

Epigrafe asko ez daude osorik eta beste batzuk, gutxi edo asko, kalteturik daude. Hori dela eta, bai argitara eman zituzten autoreek, bai ondoren eralki dituztenek, proposatzen dituzten balizko irakurketak eta interpretazioak ez datoz bat aldi oro; ikertzaile guztiek falta diren zatiak edo hizkiak ez dituzte era berean osatzen edo berreraikitzen.



2. Grafikoa. Aztertuturiko epigrafia corpusaren egoera eta eskuraturiko informazio mota.

Lehenengo eta behin, nolabait esan, arras sinesgarritzat edota, nahiago bada, «teknikotzat» jo daitezkeen osaketak (eransketak) egin zaizkien mostrak dauzkagu, hamar (10) bat gutxienez: *Am[bat]us* (AKoH2), *Picull(a)e* (NEsH1), *Secon[ti]cus Seco[nti]f* (AOkH5), *Seg[o]ntieci* (AOkH8), *[T]uraesamu[s]* (AKoH8)... (ik. 2. argk.).




2. *Argazkia*. [T]uraesamu[s] Cantabri f.-en hilarria (*Kontrasta*, AKoH8).

Bigarrenik, era ezberdinetara leitu eta leitzen direnak daude. Konparazio batera, badira *Hesp.* eta *HE* datu baseetan forma banarekin plazaratzen diren antroponimoak: *Aunia Ara* (*Hesp.*) vs *Aunia Arai* (*HE*) (AIIH2); *K(a)rauir(onus)?* (*Hesp.*) vs *Krauri(us)?* (*HE*) (NArH1); *Elgue[-]n[-]* (*Hesp.*) vs *Elc V+n* (*HE*) (NLaH1); *Pimaus* (*Hesp.*) vs *Rimaus?* (*HE*) (NLaH2); *Seg[- -]eca[-]* /*al[- -]a*/*n* (*HE*) vs *Seg[- -]eca Tritaus* (*Hesp.*) (NOIH1); (ik. 3. argk.).

Kontrastako *Anica* da diodanaren adibide garbia (AKoH4). Albertosi (1970, 128. or.) *Anica* irakurketa argia iruditzen zaio eta agerian ipintzen du, bere iritzirako, Hübnerrek eta Gómez Morenok oker eman zutela (Baraibarrek zuzen ikusi zuen, antza). Leóngo historialariarentzat, *Anica* izenaren aitzineko lerroan *MD* hizkiak daude (*Manibus Dis*), *Annicus Florus*-en gomutari dagozkiokenak, baina sigla hori zerbitzariaren izenaren parte bezala interpretatu eta *M[e]danica*, *M[a]danica* leitu izan da. Hain zuzen ere, jopua aipatzen duen zatiaaren amaieran *MD* formula errepikatzen bide da eta horrek Baraibarren interpretazioaren zuzentasuna egiaztatuko luke.

Beste etsenplu bat Rocaforteko aldare ezagunarena da (NRoA1). *Hispania Epigraphica* –Castillori, Gómez-Pantojari eta Mauleóni (1981, 55–56. or.) jarraikiz– *[F]esine Talaf[i]orum* transkripzioa proposatzen da, baina *Hesperia* datu basean –Gimenoren eta Velazaren (1994, 199–200. or.) oinatzetan– *P[a?]esine Otai* hobesten da. Preseski, *Hesperian* honako oharra egiten da: «No Talaiorum o Talauorum de González Rodríguez 1986a: 76, n° 176. Otai». Eskuratu dudana potretari begiratuta, bi aukeren alde egiteko argudioak ikusten ditut.

Horrelakoetan, halabeharrez, bi aldaeretakoa bat hautatzea beste erremediorik ez dut izan. Eranskinean lehenbiziko lekuan jarri dudana da lan honetan lehenetsitako forma. Aitortu behar dut, aldian behin, epigrafiaren arloan ohikoa den zeinuren bat ezartzeko



3. Argazkia. K(a)rauir(onus)? (*Hesp.*) edo Krauri(us?)-en (*HE*) hilarria
(Arroitz, NArH1).

tentazioa izan dudala, ulertezina den beste hizki batentzat tartea badagoela edota irakurketa, nire iritzian, zalantzarikoa dela adierazteko, baina, azkenean, bazterrak ez nahasteko, *Hesp.* eta *HE* datu baseetan agertzen diren bezalaxe baliatu eta idatzi ditut jende izenak.


Hispaniako onomastika biltzen duten bi datu base nagusietan onesten diren formen artean ez ezen, aldeia egon daiteke iturri horietako eta beste autore batzuek iradokitako formen artean.

Konparazio batera, Durrumako ADuH1 inskripzioan, bi datu baseetan [- -]cus / *Ambati* transkribapena hobesten da, baina Elorzak (1967, 173. or.) (*Ambai*)cus *Ambai* proposatzen du. Egia esan behar badut, Gasteizko arkeologoak egiten duen lehen osagaiaren berreraiketa arriskutsuegia iruditzen zait, baina, bestalde, neronek ere bigarren osagaiko <it> lotunea ez dut nahi bezain garbi hautematen.

Gauza bertsua agitzen da Kontrastako *A[m]eicus [A]meani f(ilius)*-ekin (AKoH1), San Vicentek, Sáenz de Buruagak eta García Retesek (1985, 356-358. or.) *A[m]baicus [A]mbani* berregiten baitute. Beste adibidea, Okarizko *[Sego]ntius [Ab]loni f.* da (AOkH7), Elorzak (1967, 165. or.) –Hübnerri (1869) jarraikiz (*CIL II* 2946)– (*Sego*)ntius (*Seg*)oni ematen duelako; hain zuzen, gaurko datu baseetan indarrean den interpretazioa San Vicentek, Sáenz de Buruagak eta García Retesek egindakoa da.

Beste etsenplua, Mañuetako epitafioa da (AMñH1), datu baseetan *Aselucio* ipintzen duela adieraziagatik, Elorzak (1967, 132-133. or.) *Aseyuclio* ikusten duelako. Ildo beretik,

nik ere ez dut guztiz argi *Aselucio* jartzen duen ala ez, laugarren eta zazpigarren hizkiei dagokienean batez ere (ik. 4. argk.). Antzeko zerbait esan daiteke Ilarduiako *Licirae serv(u)s*-i buruz (AIIH1); bi datu baseetan horrela jasota dago, baina –Prestameroren (XVIII. m.) oinatzetan– Hübner-ek (1869) (*CIL II* 2940) *Liciniae* biltzen du. Zoritxarrez, ez dago inolako irudirik.



4. Argazkia. Mañuetako hilarria (AMñH1). Bodegas Mauro.

Gastiainen bada sail bereko arazoa duen hila (NGaH7). Izan ere, bi datu baseetan –Velazaren (1993, 75-76. or.) argitan– *Tergido Gall*[- -] hobesten den arren, Loizagak eta Rellosok (2001, 149. or.), «*Trit [...] GAIL [...]*» proposatzen dute. Guztiz hondatua dagoen eta argitara emandako argazkian ezer gutxi ikus daitekeenez gero, beharbada, zuhurrena lehenbiziko elementuari galde ikurra paratzea litzateke, badaezpada ere.

Multzo berekoa da Iruñelako estela (NIñH1). Velazak (2015, 389-390. or.) *Hoblicin Asino* dagoela oldozten du, eta ez *Homicino* [- -] *Asino*, bi datu baseetan bezala. Honi ere, zati batzuk ia guztiz ezabatuta daudela ikusirik, galde ikurra gehituko nioke. Orobat, Muruzabal Andiongo (Andeloko) *Amba*[- -] *Matern*[segida (NMeH1) era askotara interpretatu da (ik. Castillo *et al.* 1981, 101. or.).

Kasu gutxi batzuetan, bi datu baseetan karrikaraturikoak ez nau erabat asebate; esate baterako, Marañoño NMaH3 epitafio bikoitzaren lehenbiziko jende izenak: *Doiteru*[s - -] *do Ambati f(ilius)*; ik. 15. argk.

Lehenago esan dudanez, zenbait garaitan, editoreek zalantza handiak dauzkate plazaratzen dituzten formekiko. Vianako *[T]er[ti]on[us(?)]* (NViA1) da beste etsenplu bat

(ik. Velaza, 1999, 165. or.). Ez da harritzekoa, aldarea oso higatua dagoelako eta falta diren hizkiak gorde direnak baino gehiago direlako.

Beste zenbait berreraiketa ere, hein batean, azpimarratzen ari naizen zailtasunen erakusgarri garbi antzekoak dira, Lantziegoko (Assako) epitafio ezaguneko patronimoa bezala (ALnH1): *Flacci Attesuclō(m) f.* (HE); *Flacci Attesuclō f.* (Hesp.); *Flacci Attesuclō(n/-m) f.* (Ciprés, 2006, 108. or.). Kontuan har bedi bigarren osagaiaren amaieran sudurkaria egoteak berebiziko garrantzia duela, ñabardura horrek genonimoa izan daitekeelako ustearen alde edo kontra hitz egiten baitu (ik. 9.2 §). Arabako Agiritegi Zerbizuan gordetzen diren erretratuetan ez da tarterik sumatzen beste letra batentzat <o> bokalaren eta ondoko <f> laburtzapenaren artean, hain gutxi <m> batentzat. Gainera, ez da antzematen higaturiko zeinuren baten inolako trazadurarik (ik. 8.3 §).

Grafia auziez ari garelarik, diodan badirela editoreek publikatu bezala idazten ez diren «osatutako» formak, esan nahi dut, batzuetan, xehetasun esanguratsuak bidean galtzen direla.

Durumako elizako horma batean den hilarri zatiaz ari naiz (ADuH4). Hizkien beheko zatia besterik ez da gorde eta, hori ikusita, Sáenz de Buruagak eta Sáenz de Urturik (1994, 59. or.), beren zalantza jakitera emateko, *Anna* transkribatu zuten, baina arruntean *Anna* erabiltzen da. Bistan da ez dela gauza bera, bigarren kasuan ez baita adierazten, berreraiketa, aski fidagarritzat jotzen dena, testuinguruan funtsatzen dela eta, azken buruan, badirela leitzeko eragozpenak.

Hainbat lagin berregindako formak dira, aurrera egiteko ez dago beste erremediorik, baina izenak noiz, zenbateraino eta nola osatu behar diren ebaztea ez da lan erraza.

Azken adibide batzuk jarriko ditut. Esate baterako, iritzi zabaldua da Okarizko oroitarri batean (AOkH3) *[Cal]aetus Tritai f(filius)* ipintzen duela, baina ez du zertan, *Chalaetus* (J, Hesp. Onom.2155) eta *Galaetus* (CC, Hesp. Onom.2568) dokumentatuta baitaude Hispanian (cf. *Caetus*; C, Hesp. Onom.4009).

Soka berekoa da, neurri batean behintzat, Iburgurengo *[---Mi]nicius [Reb]jurrus [Reb]jurrini f.* (AIbH1), –Iberiar penintsulan, gehien-gehienetan, *Reburus* azaldu arren–, *Burrus* deizioarena ez ezen (AV, Hesp. Onom.1512), badelako *Baebius Riburrus*-en aztarrena Salamancan (Hesp. Onom.3841).

Gauza bera esan daiteke Egilazko *[Li]cira Segō[n]ti f.* pertsona izenaz (AEgH2). Handik gertu (Ilarduian zehazkiro) *Ablonius Licirae seru[u]s* lekukotua dago, baina komeni da ez ahanztea badirela *Lecira*-ren bi lagin Avilan (Hesp. Onom.2798 eta Onom.2799). Oraingo honetan, gainera, zoritxarrez, hilarria galdua da eta ez dago irudirik edo marrazkirik; horrek gauzak asko zailtzen ditu, noski. Halarik ere, (balizko) forma hori

ontzat ematen da eta bi datu baseetan eta erreferentziazko argitalpenetan (*CIL* II 2949; Ciprés, 2006) horrelaxe barneratuta dago.

2.4 Corpora osatzeko irizpideak

Zalantzak direla eta, autore batzuek zenbait idazkun ez dituzte aintzat hartzen beren lanetan. Adibidea jartzearen, Ciprésék, 2006ko artikulu garrantzitsuan, ez ditu kontuan hartzen Durrumako [- - *Tur*]usam[us - - - / - - -] (ADuH2), Argantzongo (galdutako) *Anutisema Octavia* (AAtH1) eta Iruña Okako *Vē[ttius Sego]ntius [Segon]ti filius* (AlrH5) jende izenak. Azken laginaren berreraiketari buruzko dudak beste lan batean (2018, 34. or.) jakinarazten ditu, alegia, hizki gutxi gorde direla oso.

Azao berekoa da, alde batera, Okarizko (AOkH1) hau: [*Turae*]sam(us) [*Trit*]aieci f(i-lius?) (Hesp.Onom.4545) vs [- - -]sam / [- - -]aieci f(i-lius?) (HE 6923). Ciprésék bigarren osagaia ([- - -]aieci) bakarrik aletzen du 2006ko argitalpenean (101. or.).

Korapilatsuena, noski, galdutako hilarriekin nola jokatu erabakitzea da. Esate baterako, Ciprésék (2018, 45-46. or.), Iruña Okako [*A*]sinius Ausivos Rutili f. onomastika segidaz (AlrH1) dituen zalantzak argudiatzeko, oroitarazten du bigarren zatia ez dela beste inon dokumentatzen. Gainera, Bartzelonako historialariari Hübnerren (1869) (*CIL* II 5817) eta Fitaren (1883, 282, 383. or.) irakurketak ez zaizkio fidagarriak iruditzen. Hori dela medio, ez du 2006ko bere ikerketan sartzen. Bi datu base nagusietan ontzat ematen den antroponimoa da, ordea.


Badira, aitzitik, bi datu baseetakoren batean edo bietan gorde ez arren, zenbait ikertzailek beren lanetan onetsitako onimoak. Konparazio batera, lehen aipatu dudan Vianako [*T*]er[ti]on[us(?)] ez da *Hesperian* ageri eta Ciprésék ere ez du 2006ko argitalpenean ahotan hartzen, baina Gorrotxategik (2015, 9. or.) badarabil bere azken azterketetan (1995ekoan eta 2009koan ez bezala).

Antzeko zerbait gertatzen da Alaitzako (Luzkandoko) *Sentoni*-rekin (dat.) (AAIH3). *Hesperian* ez dago jasota, baina *HE*n bildua dago eta Ciprésék (2006, 92. or.) nahiz Gorrotxategik (2015, 9. or.) kontuan hartzen dute; hori bai, irakasle bartzelonarrak, badaezpada ere, galde ikurra gehitzen dio.

Orain, bereziki adierazgarria iruditzen zaidan Iruña Okako galdutako oroitarri baten kasua azaldu nahi dut; *Licinus Cantaber* jende izena (birritan?) irarria zukeen hilaertizarena (AlrH6). *Hesperia* datu basean ez da zerrendatzen eta Ciprésék (2006) eta Gorrotxategik (1995, 2008, 2015) ere ez dute aintzakotzat hartzen; haatik, Elorzak (1967, 148-149. or.) bere katalogoan txertatu zuen. Ciprésék honako oharra jarri zuen 2022ko idazlanean (42. or.):

Teniendo en cuenta el carácter hipotético de la lectura de este fragmento por ser imposible confirmarla, parece que la mitad izquierda contenía el epitafio de un posible *eques*, sin que podamos precisar a qué *ala IIa* de caballería pertenecía debido a la fractura de la pieza. En el epitafio 2 es difícil restituir las líneas 3 y 4, así como la edad del difunto en la 5. Si la transcripción y la interpretación del texto son correctas estaríamos ante el único ejemplo, hasta el momento, de un *eques* presente en la epigrafía de esta región.

Kontua da badirela Prestamerok egindako bi marrazki (XVIII. m.; ik. 3. eta 4. irudiak) eta transkripzioa (1792), azken hori 1802ko historia hiztegian eta 1869ko *CIL II-n* (2926 zkia.) irakur daitekeena. Ez dut garbi ikusten datu baseetan-eta zergatik ez duten plazaratzen, are jakinda badirela haietan barneratu diren izaera eta egoera bereko inskripzioak, hau da, galduta egon arren, -XVIII. eta XIX. mendeetako iturrietan aski dokumentaturik daudenez gero- baliagarritzat jotzen diren laginak; tartean, *Segontius Ianuari f.* (AAgH1), *Munatius Fuscus Ambaici f.* (AIrH4) eta *Ablonius Licirae serv* (AIIH1).



3. Irudia. Prestamerok XVIII. gizaldian egindako Iruña Okako hilarriaren marrazkia. (ALHA-DH-1299 2, II).

Lan berean, 2022koan, alegia, Cipréssek (47. or.) honako iruzkina egiten du Iruña Okako (AIrH3) desagertutako beste idazkun baten balizko interpretazioaren (*Elanus Turaesamicio Ambati f.-en*) kari:

La desaparición de la inscripción hace imposible comprobar el texto que nos ha llegado. La bibliografía existente nos lleva a considerar como dudosa o, al menos, como

hipotética la reconstrucción hecha por Fita y aceptada a partir de Hübner por la mayoría de los investigadores y, en consecuencia, utilizada como un testimonio histórico seguro. [...] con los datos que poseemos no es posible ofrecer una reconstrucción segura del texto.

Ez dago marrazkirik edo irudirik, transkribapenak bakarrik (*CIL II*, 5819; Fita, 1887, 406. or.; RAH 10, 406. or.), baina bi datu base nagusietan jasota dago eta Gorrotxategik (2015, 9. or.), adibidez, sinesgarritzat dauka.

Goiko guztia ikusita, garbi dago jarraian xehatuko dudan corpora kontu handiz erabili beharrekoa dela. Zailtasun horren aurrean, bi jokabide daude: oso zuhurra izan eta azaoa murriztea, hau da, izen arazotsuak kanpoan uztea, edota arriskuak hartu eta ahal den sorta zabalena baliatzea, alegia, gaurko iturri nagusietan dauden jende izen guztiak (eta haietan ez dauden gutxi batzuk ere bai) ontzat eman eta ikergaitzat hartzea.

Bigarren irizpidearen alde egin dut, esku artean dudan eginkizuna aitzinatzeko jokaera murriztaileak baino aukera gehiago ematen dituelako, Euskal Herriko sartaldeko Antzinaroko hizkuntza egoeraren ezagutzan argi egiten saiatzeko jakinkizun gehiago, azterkizun zabalagoa, eskaintzen duelako. Izan ere, nago corpora txikituz gero –eralkitako pertsona izenak fidagarriagoak izanagatik– eragin edo ekarpen indoeuroparra, hispaniar-zelta, edo, nahiago bada, besterik gabe, zelta, higitzeko edo hutsaltzeko (emaitza baldintzatzeko) mentura areagotu egingo litzatekeela.

3. Laginen historia ingurumaria⁵

3.1 Hego Euskal Herriaren erromatartzea

Hego Euskal Herria errepublikaren sasoian geratu zen Erromaren manupean. Preseski, hemengo lurraldeak legioen igaroleku izan ziren, bai Penintsularen konkista kanpainetan, bai bando ezberdinen arteko gatazka zibiletan, Sertorioren gerran (K.a. 82-72) bezala.

Castiellaren (2003, 47. or.) arauaz, Erromak ez zuen Nafarroa arrazoi ekonomi-koengatik okupatu, zio estrategikoengatik baizik, hau da, beste toki batzuekin lotura ahalbidetzen zuen igarobidea zelako. Gauza bera esan daiteke Hegoaldeko beste zenbait lekuri buruz ere; Arabako Lautada datorkit burura.

Kantabriako mendietako azken erresistentzia gunek K.a. 19. urtean menderatu zituzten oste erromatarrek. Haiekin amaitu bezala, Augusto enperadoreak bereganaturiko esparru osoa administrazio aldetik berrantolatu egin zuen. Hego Euskal Herria bi zatitan banatu zuten, biak ala biak *Tarraco* zeritzon probintziaren barnean zeudenak. Ebro ibarreko eskualdea (hiriburua Zaragozan zuen) *Cesaraugusta*-ko komentua (conventus-aren) barruan geratu zen eta autrigoi, karieteen⁶ («karistiarren») eta barduliarren bizilekuak, oster, (hiriburua Peñalba de Castro-Coruña del Conde-n zuen) *Clunia*-ko komentuan.

Zernahi gisaz, Gorrotxategik (2018, 237-238. or.) azpimarratzen duen gisan, –batzuetan, barruti bati edo besteari atxiki izana haien nortasun etnikoa eta linguistiko zehazteko argudio modura erabili den arren–, seguru asko, Erromaren erabakietan garrantzi handiagoa izan bide zuten herrien bilakaera politikoak, arrazoi praktikoek nahiz zerga bilketaren alorreko zioek, «etnikoek» baino. Goi Inperioko iturri klasikoek (Pliniok I. mendearen akabailan eta Ptolomeok II.aren erdialdean) zenbait *populi* edo *ethnoi* (herri edo jende) aipatzen dituzte (barduliarrak, «karistiarrak»...), baina, orduko,

⁵ Eskerrak eman nahi dizkiet Pedro Argandoña Otxandorenari eta Antxoka Martínez Velascori atal hau idazteko emandako laguntzarengatik.

⁶ Italian badira izen jatorra *kariete* (eta ez *karistiar*) dela erakusten duten bi inskripzio: *C(aio) Meffio C(aii) F(ilio) / Cla(udia tribu) Saxoni / primo pilo praef(ecto) / cohort(is) praef(ecto) fabr(um) / pontific(i) quinquen(ali) / cohors Carietum et / Vēniaesum* (Brescia, CIL V, 4373) eta *L(ucio) A(elio L(uci) f(ilio) Lamiae pr(aetori)) / XV-vir(o) [sacr(is) faciundis) leg(ato) pr]o pr(aetore) / -----Carietes V[--- patrono]* (Erroma, EDH HD004175). Ik. Martínez Velasco (2003, 93-94. or.).

bereizketa horiek beren eginkizuna edo esanahia galdua zuketean, menturaz. Ofizialki, zenbait kohorte (laguntzaile) izendatzeko bakarrik baliatzen ziratekeen.

Martínez Velascok ere uste du, Goi Inperioan, autore klasikoek ahotan hartzen dituzten etnonimoek ez zutela administrazio arloko (antolaketa) baliorik, baina irizten dio bestelako izaeren bereizgarri edo adierazle izaten jarraitu zuketela denbora luzez. Hain zuzen ere, izen horiek, unitate militarrek (kohorteak) sorleku bereko soldaduekin zergatik osatzen zituzten ulertzen lagunduko lukete: nortasun (ezberdin) horiek, artean, segur aski bizirik segitzen zutelako eta horrek unitateen kohesioa errazten zuelako (ahozko adierazpena).

Harira itzuliz, Aro aldaketaren garaian, erromatar zibilizazioaren oinarri nagusietakoa ziren hiriak eta herrixkak ugaritzen joan ziren han-hemenka eta Burdin Aroko toki garaietako kokaleku gotortu gehienak —ordu arte inguru haiek zaintzen zituztenak—, eskuarki, hustu ziren, edo zituzten (Armendáriz, 2015, 9. or.). Goi Inperioan zehar, bizileku zaharretatik gero eta aldenduagoak ziren gunek sortzen joan ziren alde lauetako nekazaritza tokietan edo bideen inguruetan (Cepeda, 2001, 27. or.).

Ezinezkoa da jakitea Goi Inperioaren sasoian Euskal Herrian zenbat jende bizi zen. Erreferentzia gisa, diodan, Cepedak (2001, 34. or.), adibidez, uste duela barduliarrek, karieteek eta autrigoiek (Ebroz honaindi) hartzen zuketean esparruan (gutxi gorabehera gaurko Euskal Autonomia Erkidegoan), asko jota, 70.000 bat lagun egongo zirela. Auto-re honi parte hartan III. gizaldian zehar biztanleria apaldu zela iruditzen zaio.

IV. mendea, oro har, garai egonkorra izan zen eta erromatar zibilizazioaren loraldia izan zen *possesores* (lur jabe) handiek eremu lauetako beren latifundioetan eraikitako *villae* (etxalde) aberatsetan, Arellanokoa lekuko (Mezquíriz, 2003). Ikertzaile batzuen arauaz (ik. Cepeda, 2001, 34. or.), Behe Inperioan, bizileku berriak sortu ziratekeen mendi hegaletan, batzuetan antzinako kastroen inguruetan, abeltzaintzarekin lotura estua zuketena.

Aldi hartan hasiko zen zabaltzen kristautasuna hirietan.

3.2 Erromako gudarostea Hegoaldean

Ponpeioren eta Zesarren arteko gerra zibilaren (K.a. 49–45. urteen) ondoren, Erromak Iberiar penintsularen iparraldean kontrolpean zeukan eremua berregituratzeari eta hango hondar erresistentziak ezabatzeari ekin zion. Orduko, bere esku zuen Pirinioen iparraldeko isurialdea (Akitania), baina, artean, Kantabriako mendialdea ez zuen guztiz konkistatu.

Andagosten (Kuartangon) K.a. 40–30. urteen inguruko erromatar tresneria militarren hondakinak idoro dira eta horrek paraje hartan osteren batzuk elkarren artean

borrokan aritu zela iradokitzen du, apika (ik. Martínez Velasco, 2009a, 367–370. or.; *cf.* Cepeda, 2001, 21. or.; Amela, 2006, 53. or.). Handik gutxira, karieteak *Elio Lamia*-ren (komentu ziteriorreko gobernadorearen) manuko gisa aipatzen dira Erroman ediren-dako ohorezko inskripzio batean (ik. 5. orripeko oharra).

K.a. 29. eta 19. urteen artean (orduan amaitu ziren gerra kantabriarrak) Augustok zazpi legio bidali zituen *Hispania citerior* delakora. Gero, batzuk handik kanpora eraman zituzten. Guztiagatik ere, badirudi Erromak hiru legio utzi zituela Penintsulan dena kontrolpean izateko. Ohart bedi legio bat milaka legionariok eta laguntzailek osatzen zutela.

Ondo dator puntu honetan oroitzea Muezko elizaren horma batean *Aemil(i) Or[d]unet*- II. legio augustoarreko beteranoaren hilarria dagoela. Armadaren talde hori kantabriarren eta asturren kontra borrokan aritu zen; K.a. 12. urtean Germaniara aurre-na eta gero Britaniara lekualdatu zuten.

Cluniako komentua IV. mazedoniar legioaren tropen esku geratu zen Inperioaren lehenengo hamarraldietan. Moralejok (2018, 31. or.) bere doktorego tesian dio K.o. I. I. gizaldian *Vareia*-n (Vianan) legioetako tropak izan zirela.

Ildo beretik, García y Bellidok (1961, 135–136. or.) uste du (VI. legioaren) *Ala Tautonum Victrix civium Romanorum* oste laguntzaileak Ebro arroaren goiko aldean kanpatu zukeela, hau da, barduliarren eta baskoien bizilekuen hegoaldean, menturaz herri horiek zaintzeko. *Calagurris*-ko (egungo Calahorrako) epitafio batean bada balizko egonaldi horren lekukotza: *Iulius Longinus Doles Biticenti f(ilius) Bessus eques alae Tau(rianae) tor(quatae) vic(tricis) c(ivium)* (...) (HE 8818). *Legio VI.a* Hispaniatik K.o. 70. urtean behin betiko atera zenez gero, García y Bellidoren aierua da *Longinus*-en hiltartiza urte hori baino lehen egina dela.

Behe inperioan, azkenik, –Astorga-Bordele arteko bidea (ik. 3.3.5 §) aprobetxatzen zuen– Mérida eta Tréveris arteko loturak hartu zuen garrantzi estrategikoa zela eta, *Veleia*-n (Iruña Okan; *Cohors I Gallica*), *Pompaelo*-n (Iruñean) eta *Lapurdum*-en (Baionan) unitate militarrek egon ziratekeen, itxura denez (ik. Gorrotxaegi, 2018, 241. or.).

Erromaren eragina, soldadu kanpotarrei esker ez ezen, tokian tokiko mertzenarioen eskutik ere hedatu zen. Zesarrek dioenez (Sertorioren aginduetara borrokan aritu zirelako-edo), Akitaniako hego-mendebaldekoiei laguntzera joan ziren Hispaniako Kantauri aldeko herriek erromatar armadaren borroka tekniken ezagutza sakona zuten. Gorrotxategik (2018, 236. or.) biltzen duenez, litekeena da Larrabetzun nahiz Barkoxen edirendako txanpon altxorrek Sertorioren garaian erromatar fakzioetako mertzenarioei egindako ordainketekin zerikusia izatea.

Izan ere, Erromaren legioek laguntza unitateetarako gerrariak leku konkistatu berrietako jendearen artean errekrutatzen zituzten. Hispaniako oste laguntzaile gehienak julio-

klaudiotarren garaian sortu ziratekeen, Augustoren eta Tiberioren agintaldietan batik bat (García y Bellido 1961, 142. or.). Sarritan urrutira eramaten zituzten. Alabaina, II. gizalditik aitzina soldadu asko tokian tokikoak izaten ziren, dirudienez (Moralejo, 2018, 66. or.).

Inperio garaiko kohorte laguntzaileen zerrendetan baskoiak, barduliarrak, karie-teak eta veleiarrek aipatzen dira. *Cohorte II vasconum* delakoa da etsenplu ezaguna, I. mendearen erditik II.aren amaiera arte gudukatzen aritu zena (García y Bellido, 1961, 118-119. or.; Moralejo, 2018, 74. or.). Beste adibidea *I Fida Vardulorum* da, II. gizaldiaren hasieratik III.aren ia erdira arte Britanien egon zena. K.o. I. jendemendearen bukaeran (flaviarren garaian) sortu zuketzen mertzenario barduliarrekin, baina, segur aski, jatorria Vardulian zuen kide gutxi geldituko zen III. gizaldiaren erdialdean.

Badirudi, hasieran, *auxilia* delakoek ez zutela *missio* (25 bat urteko soldadutzaren) osteko *praemia militiae* delakoa (diru edo lur saria) jasotzen, baina Lópezek (2021, 282. or.) adierazten duenez, III. menderako, apika, laguntzaileen eta legionarioen arteko bereizketa hori ez zatekeen hain nabarmena edo erabatekoa.

Gerra kanpainen ondoren, gudarosteak ordura arte izan zutenaren oso bestelako eginkizunak betetzen jartzen zituzten asko aldiz. Bereganatu berriak ziren herrialdeen antolaketari ekin behar izaten zioten: bizilekuen eraketari, bide-sarearen egituraketari, meatzaritza ustiategiak abian jartzeari... Zeregin horiek «teknikari» zuzenean lotuta daude; batez ere, eraikuntzaren esparruari. Armada zen lurralde berrantolaketarako ezinbestekoak ziren azpiegiturak edo herri lanak egiteko beharrezko ezagutza eta ahala (langileria) zuen erakunde bakarra eta bera arduratu zen, besteak beste, komunikabideak eraikitzeaz (ik. Beltrán *et al.* 2019, 270, 279. or.).

Esanguratsua iruditzen zait Martínez Velascok (2009b, 243. or.) oste erromatarrek bide sarearen aitzinamenduan izandako esku hartzearen garrantziaz idatzitako pasarte hau:

Sobre la vinculación entre el ejército romano y las vías de comunicación, resulta especialmente significativo el hallazgo de la contramarca de la punta de lanza en las excavaciones de la calle Beraketa, en Irún. Esta contramarca presenta como particularidad poder asociarla directamente con una unidad legionaria, en concreto con la *Legio VI Victrix*.

Militarrek beste beharrian batzuk betetzen ere jardun zuten, administrazio probintzialarentzat zentsuak egiten, adibidez, *C. Mocconius Verus*-en idazkunak berresten duen bezala. Gertakari ezaguna da II. gizaldian *Legio VII. Gemina*-ko tribunoa izan zela baskoien eta barduliarren errolda osatzeaz arduratu zena. Beltrán *et al.*-ek (2019, 272, 279. or.) deritzote armadak epigrafeak egiteko ohituraren hedatzaile gisa jokatu bide zuen papera, agian, oharkabea ingaro dela.

Abascalek (2015, 410. or.) jakitera ematen duenez, Lara de los Infantes inguruko hiliarrietan aipatzen diren magistratuen, funtzionarioen eta militarren zerrenda luzea

da; *G. Terentius* [-. f.] *Reburri[nus]*, *veteranus* [*leg(ionis)*] *VII Gem(inae)* [*Fel(icis)*], *Ilvir* da etsenplu bat (San Pedro de Arlanza monasterioa, Hortigüela, Burgos; HE 8681). Haatik, Araban (Nafarroan ez bezala) orain arte idorotako epitafioen artean ez dago magistraturen, kargu erlijiosoen edo militarren adierazpenik (cfr. Ciprés 2006, 88. or.). Salbuespena, menturaz, Iruña Okako *Licinius Cantaber*-ena izan daiteke (ik. 2.4 §).

3.3 Galtzadak

Goi Inperioan hiriak (bereziki administrazio gunek) eta gainetiko bizilekuak galtzaden bitartez lotuta zeuden. Bide horiek berebiziko munta zuten eta, jakina, beharrezko konponketa lanak egiten zituzten erabilgarri egon zitezten. Jagoleak ere izaten ziren, soldaduak, alegia, geldiuneak eta puntu nagusiak zaintzen zituztenak eta, seguraski, besteak beste, zergak biltzeaz ere arduratzen zirenak. Ikusi dugu lehen, gudarosteak, galtzaden eraikuntzan izan zuen garrantzia, batez ere, eginkizun horretarako ezinbestekoak ziren behargin trebatuak zeuzkalako.

Iter XXXIV delako galtzadak Euskal Herria alderik alde gurutzatzen zuen. *Burdigala* (Bordele) eta *Asturica Augusta* (Astorga) estekatzen zituen, merkataritza toki handia lehena, urre meatze aberatsen kontrol gunea bigarrena. Bide horrek, Landak igarota, Pirinioak zeharkatzen zituen (Orreagan barrena) eta Iruñeraino iristen zen; ondoren, Sakanatik Arabarantz jotzen zuen eta, han, *Veleia* iragan ostean, Pancorboko haitzartetik Mesetan sartzen zen. Behe Inperioan ere inportantzia handia izan zuen (ik. 5. argk.).



5. Argazkia. Sakana Ergatik ikusita. Hortik igarotzen zen *Iter XXXIV*-a. P. Argandoñaren argazkia.

Beste bide nagusia, Zaragozan barrena, *Tarraco* (probintzia) hiriburua eta *Asturica* lotzen zituen zen. Ebro ondotik zihoan eta, besteak beste, *Cascantum* (Cascante), *Gracurris* (Alfaro), *Calagurris* (Calahorra) eta *Vareia* (Viana) batzen zituen. Hirugarrenik, *Tarraco*-tik, *Caesaraugusta*-n eta *Pompaelo*-n zehar, *Oiarso*-ra (Oiartzunera) zihoan galtzada ere bazela azpimarratu nahi dut.

Sare nagusia bigarren mailako bideekin osatzen zen. Batzuk publikoak ziren, beste batzuek ez. Cepeda (2001, 30-31. or.) Lautadan dauden *civitas* gehienek iparralderantz eta hegoalderantz itereak zituzketelakoan da, baina, nahiko aztarna arkeologikorik ez dagoenez gero, nekez asma daitezke, zehazkiro, haien trazadurak. Konparaziora, sortaldean, *alabanenses* direlakoan (Plinio, III, 26) barrutian (Donemiliaga inguruan), –Aizkorri mendilerroa Leizarrateko (San Adriango) pasabidetik igaroz– Arabako barnealdea eta Gipuzkoako kostaldea estekatzen zituen ibilbidea hasten zatekeen.

Beste toki batzuetan ere baziren bigarren mailako bideak, laburragoak izanagatik, garrantzia bazutenak, *Vareia*, *Cournonium* (Los Arcos), Arellano eta *Andelo* (Muruzabal Andion) artekoa kasu.

Komunikabideotan guztiotan miliarioak izan ohi ziren distantzien berri emateko (ik. 6. argk.). Besteak beste, agintean zegoen enperadorearen izena irarrita izaten zuten, arruntean.



6. Argazkia. Oteitzan, San Tirso ermitaren ondoan den miliarioa (K.o. 132-133. urtea). Andelo hirira 3.000 bat pauso zeudela adierazten zuen.
AB AN(DELONE?) M(ILIA) P(ASSVVM) III.

Hirietatik eta *villae*-etatik gertu ez ezik, mendialdean bazeuden inportantzia zuten bideak. Adibidez, Deierrin –zehazkiro, Alliden (Ibirikun) eta Iruñelan– egindako aurkikuntzetan funtsatuz, Argandoñak (1997, 316. or.) eta Martínez Velascok (2009b, 243. or.) jakitera ematen dute Urbasa eta Andimendi mendikateen sarbideetan Erromako armadaren zaintokiak egon ziratekeela gure aroaren lehen gizaldietan. Horrek iradokitzen du, Inperioko beste toki asko bezala, Euskal Herria militarizatua egon zela, denbora batez. Oste horiek, hein handi batean, kanpoko *auxilia*-z (laguntzaileez) osatuta egongo zirelako aieruak badu egiantza, are, bereziki «erakargarriak» ez ziren lekuetan. Gertakari ezaguna da hogeitazurte zeuzkan *Calae-tus Equesi f(ilius)* lapurrek hil zutela («a latronibus occisus») Oteitza aldean, haren hilartitzean irakur daitekeenez (NOTH1).

3.4 *Mansio*-ak

Galtzaden aldamenean denetarik zegoen: hiriak, herrixkak, etxadiak, *villae*-ak, soroak, mahastiak, miliarioak, hilarriak, aldareak...

Civitas direlakoek (hiriak) beren barrutia zeharkatzen zuten bideen mantenuaz arduratu behar izaten zuten, baita geldiune sare batean oinarritua zegoen *cursus publicus* delakoaren funtzionamenduaz ere, Augustok sortutako posta eta garraio sistemaz, alegia.

Oinez, abere gainean nahiz organ zebiltzan bidaiariek, aldian behin, geratu beharra zeukaten, atsedean hartzeko, elikatzeko, gaua igarotzeko edota azienda gobernatzeko. Premia horiek asebetetzeko askotariko geldiuneak izaten ziren. Esaterako, eginkizun ofizialen bat betetzeko bidaiatzen zutenentzat (militarrentzat, administrazioaren langileentzat...) gune berezituak izaten ziren toki garrantzitsuetan, *mansio* izenekoak (> es *mansión*) eta Estatuak zaintzen zituenak. Bide nagusietan bazeuden atsedeenlekuak herritar arruntentzat ere, eskuarki, hirietatik gertu edota haien barruan.

Bidaiarien eta garraiolarien joan-etorrien beharrei erantzuna ematen zieten egoitzek izen ezberdinak zituzten, eskainitako zerbitzuen ezaugarrien eta haietaz baliatzen zirenen gizarte mailaren arabera: *caupona* (ostatua, benta), *stabulum* (abereen arloko zerbitzuak), *mutatio* (ibilgailua edo zalditegia aldatzeko eta geldialdi laburra egiteko tokia), *taberna* (saltokia), *statio* (bizileku, posta edo aterpetxea) (Sousa 2014, 856-857. or.). Horiekin batera, nekazaritzako eta abeltzaintzako—*villae*-ak zeuden, batzuetan geltoki lanak betetzen zituztenak.

Mansio direlakoak distantzia jakin batera egoten ziren bata bestetik. Gudarostearentzat nahiz administrazioaren arloko zereginen bat zuten pertsonentzat babeslekuak ziren batik bat, baina bestelako bidaiariei (eta abereei) ere nekea arintzeko eta elikatzeko parada ematen zieten.

Eraikuntza multzoak izaten ziren. Sarritan, bizileku edo herriren bat izaten zuten gertu, askotariko zerbitzuak eskaintzen zituenak (errementaldegiak eta orgategiak, dendak, biltegiak...). Ik. 7. argk.

Arduradunak (maizterrak), *mansionarius* delakoak, agintariengandik jasotzen zuen egoitza artatzeko ardura eta haien mende izaten zen. Familia batek (edo batzuek) zuzendutako jarduera izaten zen eta negozioa errentagarri ez zenean, eraikina utzi eta beste leku batera alde egiten zuten.

Antoninoren Ibilbidean (455.2) *Iter XXXIV*-ean zehar III.-IV. gizaldian Euskal Herrian zeuden mansionen berri ematen da. Antoninok—eta lau seinalatzen dituzte Arabako Lautadan; guztiak bat datoz balizko beste hainbeste *civitates*-ekin.

Deobrigatik (Arce-Mirapérez, Burgostik) abiatuta, lehenbiziko mansioa (12.a) Veleian zen, Iruña Okan (23 kilometrora). Hurrengoak (13.ak) *Suessatio* izena zuen

eta Arkaia aldean bide zegoen (15 kilometrora). 14.a, *Tullonio*-koa, Dulantzin zen (10 kilometrora). Arabako azkena (15.a) *Alba* zen (Durruma) (15-17 kilometrora). Gutxi gorabehera 40-42 bat kilometrotan lau zeuden, beraz. Bada zerbait.

Hitzak hizpidea ekarrita, gogora dezadan Pliniok *alabanenses*-ak nabarmentzen dituela barduliarren artean. Egun, uste zabaldua da haien «hiriburua» (*caput civitatis*) zatekeen *Alba/Alaba*- (Durrumako) *Albeiummendia* aurkintzan zegokeela.

Era berean, Ptolomeok (II, 5) *Tullonium* (Dulantzi) hiriaren berri ematen du. Badi-ra, berebat, *Suestatiensis* lokatiboaren bi erakuskari epigrafian, bata Angostinan (aldarea, HE 7539), bestea Sasamónen (Burgosen; hilarria, HE 6346).

Komeni da argitzea, ordea, zenbait autorek, Sáenz de Buruaga *et al.*-ek (1994, 76. or.) bezala, zalantzak dauzkatela barduliarren hirien egiazko kokapenaz, *Alba*-renaz ere bai.

Baina, gatozen harira. Nafarroako lehenbiziko mansioa *Araceli* zen (16.a), seguruen-nera, Uharte Arakil ondoan (Zamartzen) zegoena (*Alba*-tik 25-30 km-ra). Preseski, Valle de Tarazagak eta Bonthornek (2016, 240. or.) aditzera ematen dute Zamartzeko (*Araceli*-ko?) gun e erromatarra K.o. I. gizaldiko bigarren erdian sortu zuketela.

Segidan *Alantone* izeneko atsedenekua zegoen (17.a) eta, azkenik, *Pompelone*-koa (Iruñekoa), ematen duenez, *Araceli*-tik 32 bat km-ra.



7. Argazkia. Cascante Ibañetako igarobidearekin lotzen zukeen galtzadan zegokeen Ledeako mansioaren aurriak.

4. Oroitarrien kuntza eta hargindegia

4.1 Apaingarrien araberako hilarri sortak

XX. gizaldiaren hasmentan, Fitak (1913, 562-563. or.), Lana haraneko San Sebastian ermitan zen *Iunius Paternus Cantabri filius*-en oroitarriak (1870ean apurtu zuten arte) irarrita zukeen zaldunaz ari delarik, Gastiaingoen eta Kontrastakoen arteko antzekotasunaz ohartarazten du.

Jesulagun kataluniarra da Araba-Nafarroa mugako hilarrien arteko kuntza arloko loturari erreparatzen dion lehenbiziko ikertzaileetakoa, baina ez da bakarra. Gai hori darabilten adituen artean, aipamen apartekoa merezi du Juan Carlos Elorzak. Gasteizko arkeologoak, 1967ko katalogo garrantzitsuan (179. or.), agerian ipintzen du erromatar aroko lekukotasun gehienak *Iter XXXIV*-aren alboan direla eta hiru indargune (behinolak hiri?) nagusi antzematen ditu: Durruma, Iruña Oka eta Cabriana. Gainerikoen kokapena harrigarria begitantzen zaio, erromatar garaiko aztarnarik ez den tokietan egotea, alegia, Artziniegako lagina kasu.

Erromatar sasoiko Arabako inbentarioan, Elorzak (1967, 180. or.) animalien irudiak dauzkaten ale gehienak Durruma ondokoak direla zehazten du batetik eta, bestetik, landareak (mahatsondo zutzarrak) eta eguzkiaren diskoak dituztenak, batik bat, Durruman eta Kontrastan idoro direla azpimarratzen du (ik. 8. argk.).



8. Argazkia. Mahatsondo aihenen edergarria (Gastiain, NGaH1). Nafarroako Museoa.

Bitxikeria moduan, diodan, zezena eta laborantza tresnak diruditen marrazkiak zizelkaturik dauzkan Okarizko hilarri zatia jasotzen duela Elorzak 1967ko katalogoan (166. or.; 91. zk.), baina, damurik, hizki batzuk badituen arren, ezin da izenik irakurri.

Bi urte beranduago, Arabak eta Nafarroak elkar ukitzen duten zerrendako balizko hargindegiaz idatzitako artikuluan, probintziako (23) eta erresuma zaharreko (7)

estelen dekorazioaren antzaz ihardukitzen da Elorza (1969, 56. or.), haietariko askok orla moduan mahatsondo zuztarrak baitauzkate; Gastiain (7), Kontrasta (6), Okariz (6), Durruma (6), Araia (2), Luzkando (1), Agurain (1), Urabain (1) eta Ilarduiko (1) laginez ari da. Elorzaren arabera, banaketa horren arrazoia litzateke alde hartan eskultura lantegia (hargindegia) zegoela eta hilarri horiek guztiak han landutakoak direla.

Aguilar Kodesko multzoaren apartekotasunaz ari direlarik, Marcosek eta García Serranok (1973, 369-376. or.) diote, sarritan, testuen elementuen, dekorazio motiboen eta irudi sinbolikoen azterketak parada ematen duela eremu geografiko zabal baten barruan antzekotasunak eta analogiak dituzten barrutiak bereizteko. Beren hitzetan, erkidegoetan bestelako esparruak egotea, ziurrenik, ez litzaioke zor hargindegi bateko moda iragankorrari, baizik eta –kultura alorreko– zentzu sakonagoa zukeen zerbaiti, agian, azpitaldeekin (gentilitateekin, klanekin) zerikusia zukeenari. Epigrafiaren ikerketaren bidez balizko talde txiki horiek hautemateak duen garrantzia seinalatzen dute.

Aipatu bi autoreok Aguilar Kodesko taldea bakantzen dute (Aguilar Kodes, Marañón, Santikurutze Kanpezu), tasun nagusitzat (hilarrien goiko aldean) erliebe lauan zizelkaturiko pertsonen marrazkiak dituen (ik. 9. argk.). Horrelako bost estela zenbat daitezke alderdi hartan eta lautan hiru gizakien irudiak daude (*triada* delakoa). Ez dira bereziki dotoreak.



9. Argazkia. Bi giza irudi dauzkan An(n)a-ren hilarria (Marañón, NMaH1). Nafarroako Museoa.

Haranean eta Nafarroako beste toki batzuetan badira bi buru edo giza marrazki dituzten oroitarri gutxi batzuk, adibidez, Kontrastan eta Narbaxan (mendeltzat mahatsondo zuztarrak-eta dituztenak) zein Iruñelan. Marcosen eta García Serranoren aierua da lehenbiziko bi adibide horiek Gastiaingo multzoaren eta (berankorragoa bide den) Aguilar Kodeskoaren arteko katebegia direla. Orlak xumeagoak direnez gero, begitantzen zaie Arabakoak Gastiaingoak baino berankorragoak izan daitezkeela, eta, ondorioz, Aguilar Kodes-Marañón-Kanpezukoak Kontrasta-Narbaxetakoak baino berriagoak, nolabait esan. Bidenabar, argi dezadan Durrumakoak Gastiaingo multzoaren barruan sartzen dituztela.

Bi autoreontzat, beraz, Aguilar Kodesko taldea Gastiaingoaren (landare mendela

duenaren) ondorengoa litzateke. Kontrastakoak eta Narbaxakoak (orla eta burua dute-nak) tartekoak lirateke eta, azkenak, Marañoñoak. Hori guztia hipotesia dela onartzen dute, denak oso lan «herrikoitzat» baitaizkate.



2. Mapa. Marcos & García Serrano (1973, 371. or.).
Bi hiliarri multzo bereizten dituzte (goian behean) apaingarrien arabera:
Gastiaingoa (mahatsondo adarrekin) eta Aguilar Kodeskoa
(giza irudirekin).

1987an –Elorzak Araban atondutakoaren bide beretik– González Rodríguezek, Loizagak eta Rellosok Nafarroako epigrafia erromatarra katonatzeko entsegua argitara eman zuten. Baditu hiliarrien edergarrien mapak (429–433. orrialdeetan).

Urte berean plazaratutako artikulu batean, Emborujok (1987, 392. or.), dekorazioaren zein onomastikaren aldetik Nafarroako sartaldeko (baskoien) eta Arabako sortaldeko (barduliarren) hiliarrien artean legokeen harremana ahotan hartzen du. Nolanahi ere, hainbat ezberdintasun dakuski. Gasteizko historialariak (1987, 383–390. or.) zehazten du, bere iritzian, giza irudiak nardoagoak direla baskoien (Nafarroako) esteletan barduliarrenetan baino. Gauza bera dio arkitektura saileko elementuez (arkuak...). Ildo beretik, baskoien animalia bereizgarria zezena litzatekeela sinalatzen du eta barduliarrena, oster, hegaztia.

Hala berean, Emborujok astroen (nagusiki, eguzkiaren eta ilgoraren) ikurrak bi eremuetan ageri direla azpimarratzen du. Guztiarekin, beretzat, barduliarren hiliarrietako dekorazio elementurik bereizgarriena, zalantzarik gabe, mahatsondo zuztarren mendela da (25 ale zenbatzen ditu).

Emborujok (1987, 391-392. or.) honako ondorioak ateratzen ditu Araba-Nafarroetako muga diren laginak bahetu ostean:

1. Barduliarrenek baskoienek baino apaindura dotoreagoa dute (ik. 10. argk.).

2. Nafarroako sartaldeko muturrekoek antz handiagoa dute ikonografiaren ikuspuntutik barduliarrekin gainerako esparru baskoikoekin baino. Barduliarren edergarri-rik berezkoenak (mahats adarren orla, paterak, arak, hegaztiak) Arabarekin muga egiten duen Nafarroako alderdian baizik ez dira idoro (ia beti), eta ez bide dira agertzen beste tokietako hiliarri baskoietan.

3.- Nafarroako sartaldean hiru eremu bakan daitezke: Larragoa-Olatzagutia, Gastiain (herri honetakoak apenas ezberdintzen diren [Arabako] Kontrasta, Okariz, Araia eta abarretako hiliarrietatik) eta Aguilar Kodes-Marañón; azken bi herri horietan (erliebean egindako) giza irudikapen ugari daude, baina, aitzitik, Gastiaingo eta Arabako sartaldeko apaingarriak falta dira.



10. Argazkia. Apaingarri dotore askoak dituen Kontrastako hiliarria (AKoH4).

Hiru gune horietako dekorazio motiboak Arabako hiliarri barduliarretan ere ikus daitezke, baina leku edo indargune jakinetan daude eta ez, Nafarroako gainetiko lurraldean bezala, sakabanatuta. Esate baterako, Kontrastako eta Okarizko mostren artean –Gastiaingoen gisan, modu oparoan dekoraturiko epigrafeekin batera– Larragoakoen eta Olatzagutikoen antzekoak daude, baita giza irudikapenak dauzkatenak ere.

Azkenik, izen indigenen (IEen) metaketa nagusia gaur egungo erkindego nafarraren mendebaldeko partean dagoela idazten du. Deizio horiek Arabako sartaldeko inskripzioetan ere agertzen dira, barduliar erako apaindura duten hiltartizetan agertu ere.

Sáenz de Buruaga eta Sáenz de Urturi (1994, 77. or.) pentsamen berekoak dira, hauek ere uste dutelako Araba-Nafarroa mugako balizko hargindegiaren tasun nagusia mahatsondo aihen orla dela, Luzkando, Narbaxa, Arriola, Agurain, Okariz, Araia, Durru-ma, Urabain, Ilarduia, Ibarguren nahiz Kontrasta, Larragoa eta Gastiainen erakuskariak dituen.

Bide beretik, Abascalek (2015, 50. or.) adierazten du Gastiaingo San Sebastianen, Kontrastako Elizmendiko Andre Mariaren eta Larragoako Andre Maria Zuriaren ermitetako hormetako multzoen apaingarriak izaera berekoak direla. Homogeneoak diren hiru talde antzematen ditu, erromatarren garaian erkidego berarentzat lan egin zukeen beste hainbeste epigrafia lantegi bazirela frogatuko luketenak. Beretzat, hiru tenplu horietatik gertu tamaina txikiko bizilekuak egon behar zuten iragan denboretan, izan gertuko *municipium* baten barruan zeuden *vici*-ak, izan tradizio indigenako (IEeko) *oppi-da*-k (azken hauek ere *municipium* baten mende zeudekeenak). Hargindegiak bizileku haien premiak artatzeko sortu zirelakoan da Madrilgo irakaslea. *Officinae* horiek, ondoan zeudenez gero, harremana izango zuten elkarren artean eta (eskualde mailako) moda berari jarraikiko zitzaizkion, baina aparteko lantegiez hitz egitea ahalbidetzen duten ezaugarriak ere badituzte.

Abascalek (2015, 44. or.) ere Gastiain eta Larragoa inguruko «epigrafia monumentu» askok duen antzekotasuna ahotan hartzen du. Beretzat, Kontrastako aurkikuntze-kiko loturek agerian uzten dute teknika bera(k) zerabilten/tzaten epigrafia lantegia(k) baz(ir)ela.

Madrilgo historialariarekin jarraituz, Gastiaingo San Sebastiango hilarri askok eraketa bera dutela diosku: erradio zuzenak edo lebogiroak dituen erroseta, ertza inguratzen edo biltzen duen landare apaingarria eta testuarentzako kartela angeluzuzena, maizenik monumentuaren behealdean dagoena (ik. 11. argk.). Asko aldiz, bi hutsartetxo ere edukitzen dituzte, *trullae*-en (ontzien) irudikapenak ematen dutenak.



11. Argazkia. Dekorazio oparoa duen Gastiaingo hilarria (NGaH3). Nafarroako Museoa.

Hain zuzen, *Antonia Buturra*-ren oroitarri entzutetsuan argi eta garbi antzematen dira «benetako» *trullae*-ak (beren kirtenekin...). Horrelako zulotxoak, Kontrastako Elizmendiko Andre Mariaren ermitako hilarrietan ez ezen, Ilarduia, Okariz, Luzkando eta



12. Argazkia. Antonia Buturra-ren oroitarria (Gastiain, NGaH1). Nafarroako Museoa. Trullae-ak inskripzioaren gainean dira, ezker-eskuin.

abarretako beste batzuetan ongi ikusten dira (ik. 12. argk.). Guztiak eskualdeko epigrafia *officinae*-etan zizelkaturikoak lirateke eta, oso antzekoak direnez gero, batzuetan, lantegi beraren aurrean ez ote gauden pentsatzen du Abascalek (2015, 48-50. or.).

Kontrastatik eta Gastiaindik urruti ez dagoen Larragoako hilarrietan ere, bi haietan bezala, gidalerroak apaingarritako erabili direlako zantzuak sumatzen ditu Abascalek. Begitantzen zaio, hegoalderago, Aguilar Kodesen, gauza hori bera errepikatzen dela.

Cipréssek (2018, 25. or.), azkenik, Iruña-Veleiako esteletako dekorazioa (arkuak, erroseta hexapletoak, ilgora) Arabako erdialdeko (Arkaia) eta sortaldeko (Alaitza-Luzkando, Okariz, Durru-ma eta Angostinako) laginetan ohikoa dela argitzen du. Bere ustez (Ciprés, 2018, 11. or.), Iruña-Veleian bazen, menturaz, hilarri hargindegiren bat.

4.2 Hilartitzen balizko kronologia elementu osagarrien argitan

González Rodríguez (1984, 228. or.) arauaz, Arabako sortaldeko inskripzio gehienak III. mendekoak dira. Berebat, Sáenz de Buruagac eta Sáenz de Urturik (1994, 78. or.) pentsatzen dute Durrumako multzoa II-III. gizaldietakoa izan daitekeela, batez ere *DM* eta *HSE* laburdurengatik. Sigla horiek balio kronologiko erlatiboa badaukatela onartzen dute, ondorioz.

Etxebarría (1989) Arabako latinezko hileta inskripzioen kronologia koadroa finkatzen ahalegintzen da. Datazioen funtsa formulismoetan datza. Hilartitzak (101) banan-banan xehatzen ditu eta, *DM* edota *HSE* laburtzapenei ez ezik, zenduaren adinaren nahiz filiazioaren adierazpenari, oroitarria eginarazi zuen pertsonaren eta hildakoaren arteko harremanari nahiz hilarriaren ezarpenari buruzko argitasunei erreparratzen die, besteak beste. Kronologia absolutua eskainiko luketen Palentziako Monte Cildá aztarnategiko idazkunak darabiltza erreferentzia nagusitzat.

Hemengo mostren honako denbora sailkapena egiten du Etxebarriak (1989, 135-138. or.):

- Hasierako nomenklatura (*D M*) bakarrik duten epitafioek K.o. II. mendearen erdialdetik aurrerako data dukete.
- Akabailako akronimoa (*H S E*) besterik ez duten epigrafe gehienak K.o. II. gizaldikoak ematen dute.
- Bi formulismoak dituzten idazkunak. II. jendemendeko azken urteetakoak eta, batez ere, III.ekoak, bide dira.
- Hileta formularik gabeko inskripzioek, filiazioa eta hildakoaren adina (bakarrik) jakitera ematen dutenek, I. gizaldiaren bigarren erditik - II.etik aitzina irarritakoak dirudite.
- Adjektiboak-eta dauzkaten testuak II. mendearen amaieratik aurrera eta, batez ere, III.ean grabatuak dirateke.

Honenbestez, Etxebarriaren (1989, 139-140. or.) iritzian, *H S E* laburtzapena duten hilarriak, batez ere, II. mendean egindakoak dira, III. gizaldian gutxi erabiltzen baita sigla hori eta pixkanaka desagertzeko joera sumatzen baita. Beste alde batetik, filiazioa, hemengo epigrafian, I. mendearen erdialdetik aitzina ematen den datua dateke; II. gizaldi osoan eta III.aren lehen urteetan adierazi zatekeen.

Arabako gune garrantzitsuenetako aztarren gehienak K.o. II. mendekoak direla ondorioztatzen du Etxebarriak (1989, 139-140. or.), hiru ale izan ezik. Beranduagoko (III. mendeko) hilarri horiek (bata Iruña-Veleiakoa eta beste biak Iruraizkoak) *monumentum* generikoa dute testuan. Azken herri horretako laginak beranduxeagokoak iruditzen zaizkio, beharbada, hango epitafioetan elementu gehiago aurki ditzakegulako: arduraduna, ahaidetasuna eta zendua laudatzeko adjektiboak, adibidez, Arabako gainerako guneetan urri direnak.

Oro har, Arabako hilaertiz guztietan testu mota bera errepikatzen dela azpimarratzen du Etxebarriak: hildakoaren izena nominatiboan, filiazioa, adina, eta *H S E* akronimoa. Hilarri xumeak iruditzen zaizkio (Burgoskoak edo Palentziakoak ez bezala) eta, beraz, gure aroko II. gizaldirik aurrera askoz gehiago luzatzen ez den denbora tarte batera begirarazten diote.

Beste alde batetik, Cepedaren (2001, 128-129. or.) ustekizuna da Laudioko oroitarriak II. jendemendean geroztikakoak direla (ik. 6.2.2.5 eta 7.4 §), batik bat *D(is) M(anibus)* formula dutelako eta hildako pertsonaren adina adierazten delako. Halaber, letra mota, oro har, Tarragonako komentuan K.o. III. eta IV. gizaldietako epigrafian kaustitzen denaren antzekoa dela deritzo.

Sakanako bi epitafioen datazioa dela eta, irizpide paleografikoa kasu horretan antzua dela onartu ostean, Velazak (2013, 484–485. or.) dio, zuhurrena, I. gizaldiaren amaieratik II. gizaldi osora bitarteko tarte zabal batean landutakoak direla pentsatzea dela.

Buruenik, Cipréssek (2018, 14. or.) Iruña-Veleiako hilarriak eta haietan diren inskripzioak K.o. I–III. jendemendeetakoak direla jakitera ematen du.

5. Jatorki indoeuoparrekko izenen banaketa

5.1 Erromatar aroko Arabako eta Nafarroako onomastika

Hasteko, hilarrirei begiratuko diegu. Araba-Nafarroetan gaur arte idoro diren (hizkuntzaren aldetik ulergarriak edo erabilgarriak diren laginak dituzten) erromatar garaiko estela gehienetan greziar-erromatar (G-E) sustraiko onomastika besterik ez dago (138/204); ez dira heren batera iristen IE enborreko osagairen bat (*Ambata*, *Buturra*, *Segontiecus*...) duten epitafioak.

Ñabarduretan sartuz gero, elementu IEak dauzkaten hirurogeita sei (66) hilartitzen % 42tan antroponimoek bietariko (jatorki G-Eeko eta IEeko) zatiak dituzte, hau da, pertsona izen «nahasiak» dira (*Minicia Aunia Segonti* f. [NGaH4]; *Munatius Fuscus Ambaici* f. [AIrH4]).

Gauza bera esatea besterik ez dago (40) aldareei dagozkienetan, onimo G-Eak besterik ez daukatenak gailentzen direlako (32). Hiru arak jende izen nabarrak dituzte (NA) eta erresuma zaharreko lauk eta Arabako batek deizio IEak besterik ez dute irarrita.

Bide batez, zehazta dezadan aldare asko (% 40) dibinitate greziar-erromatarrei eskainitakoak direla (Jupiterri...) eta euskal jainkoei (*Urde*-ri...) opaturikoak ez direla gutxi, hamalau (14) hain zuzen (% 35). Gainerakoak, numen indoeuoparrei (*Baelibio*-ri, *Peremusta*-ri...) edo sorburu ezezagunekoei agindutakoak dira.


Euskal izaki gorenei egindako botoetan dauden hemezortzi (18) pertsona izenen artean, batek euskal jatorriko osagaia/k du/ditu eta beste batek enbor IEeko bat; biak ala biak Nafarroan dira. Arabako eta Nafarroako aretan, ondorioz, onomastika G-Ea nagusitzen da eta arlo IEekoa hutsaren hurrengoa da. Guztiaarekin, antroponimia baino teonimia IE gutxiago dago.

Bi sailetan, hilarrietan eta aldareetan, osagai G-Eak besterik ez dituztenak nabarmentzen dira, honenbestez, argi eta garbi (170 ale 244tik), bai Araban (73/117), bai Nafarroan (97/127).

Zati IEak dauzkaten hirurogeita hamalau (74) oroitarrietan diren laurogei (80) jende izenei datxekienez, guztiz IEak, sorburu horretako elementuak bakarrik daukatenak, berrogeita zortzi (48) dira (AR 30 eta NA 18) eta nahasiak, hau da, IE eta G-E jatorkiko parteak (biak), dituztenak hogeita hamabi (16na; guztira, % 40).

Beraz, bada, Araban (44) Nafarroan (30) baino (latinaren aurreko) etorki IEeko antroponimia daukan idazkun gehixeago dago.

Ik. 3. Grafikoa.



3. Grafikoa. Araba-Nafarroetako hilarriak eta aldareak osagaien jatorriaren arabera.

5.2 Onomastika esparruak

Albertosek (1970, 125. or.) agerian ipintzen du erromatarren aitzineko Arabako izen gehienak probintziaren sortaldean edirendakoak direla, Nafarroatik gertu dagoen alderdian, hots, Angostina, Kontrasta, Ibarguren, Ilarduia, Urabain, Okariz, Durruma, Egilaz eta Agurainen. Iruña Oka inguruan, Burgosekin muga egiten duen eremu aldera, beste gune bat bereizten edo bakartzen du. Zernahi gisaz, Arabako sartaldean eta hegoaldean antroponimo erromatarrek nagusitzen direla diosku, batez ere Iruña-Veleiaren inguruan eta Guardiako eskualdean. Beste toki batzuetan aztarnak bakanagoak dira.

González Rodríguez (1984, 225. or.) ohartarazten du Arabako sartaldean eta barruti harekin muga egiten duen Nafarroako sartaldean kausitu diren inskripzioek (Gastiain, Marañón, Aguilar Kodes eta abarretakoek) izaera bereko taldea osatzen dutela, bai kanpoko ezaugarriengatik, bai edukiarengatik. Castilloren (1992, 126. or.) arauaz ere, Arabarekin muga egiten duen Nafarroako zerrendak ezaugarri komunak ditu probintziarekin, oroitarriek antzeko egikera, dekorazioa eta onomastika baitaizkate.

Ciprésen (2006, 87. or.) esanetan, Araban aztarren metaketa nagusia «ab Asturica Burdigalam» bideak zeharkatzen zuen zatian legoke eta Bizkaian, berriz, iparraldean,

Foruan eta Lemoan, batez ere. Erakuskarien zenbatekoarengatik, apartekotzat ditu Iruña-Okako, Donemiliagako (eta bere inguru hurbileko) nahiz Kontrastako eta Angostinako fokuak. Alabaina, bada Hegoaldeko alderdi bat orain arte epigrafe pare bat besterik dokumentatu ez dena; Bizkaiko sortalde eta hegoaldea nahiz Arabako iparralde eta ia Gipuzkoa osoa hartzen ditu.

Bartzelonako historialariaren (2006, 119. or.) aburuz, osagaien (sortzezko) hizkuntzaren eta antroponimoen eraketaren argitan bereiz daitezkeen moldeak edo sailak ez dira era homogeneoan banatzen lurralde osoan. Hain zuzen, Iruña-Oka eta Arabako probintziaren sortalde (Alaitza, Okariz, Durruma eta Kontrastako gune nagusiak barne dituen) azpimarratzen ditu, ez bakarrik haietan erakusgarri kopurua handiagoa delako, baita, antza denez, goiztiarrenak izan daitezkeenak han dokumentatzen direlako ere.

Abascali (2015, 41., 43. or.) deigarria egiten zaio Nafarroako iparraldeko partean dagoen epigrafia hutsunea. Ez du uste urritasun hori Pirinioen oinetik hurbil egoteari zor zaionik, Aurizperriko miliarioek alde hartan bide-sare ondo egituratua zegoela frogatzen baitute. Nafarroako erromatar idazkun gehienak erdialdeko eskualdeetan metatzea eta Ebro ondoko tokietan mostra gutxi samar egotea paradoxikoa iruditzen zaio, azken hori komunikazio ardatz eta merkataritza bide garrantzitsua zelako (Vareiaraino nabigagarria zen). Bere hitzetan, Ebrora isurtzen diren ibaien erdiko ibilbidetik hurbil dauden lekuak aberatsak dira epigrafiaren aldetik, baina Nafarroa eta Errioxa bereizten dituen ur ibilguaren aldameneko esparrua ez, ordea. Orain arte, gizakiak antzinatek ustiatutako leku emankor horretan ez da espero zitekeen arrasto kopurua agertu.

5.3 Elementu indoeuoparrak dituzten inskripzioen banaketa

Pertsona izen edo osagai indoeuoparrak dauzkaten epigrafeak ez daude antroponimo guztiz greziar-erromatarak dituztenak bezain era uniformean banatuta; hiru-rogeita sei (66) hilarriak eta zortzi (8) aldareak ez dira topatu ikerkizun dugun eremu (Araba-Nafarroa) osoan, oro har, toki jakin batzuetan baizik.

Hiru indargune edo foku larri antzematen dira: Donemiliaga aldea (22 hilarri), Lokiz ingurua (18 hilarri) eta Toloñoren iparralde (7 hilarri). Hiru barruti horien artean hamar etsenplutik sei batzen dute. Donemiliaga aldeko multzoari *Iter XXXIV*-aren ondoan dauden Iruña Okako (6 hilarri), Olatzagutiko eta Etxarri Aranazko mostrak gehituz gero, ehunekoa 75era ailegatzen da ia. Donemiliaga aldekoak eta Lokizkoak bakarrik aintzat hartzen badira, lagin guztien erdia baino gehixeago pilatzen dituzte bien artean.

Onomastika G-Ea besterik ez duten ehun eta hirurogeita hamar (170) idazkunekin ez da gauza bera jazotzen. Araban foku nagusiak Donemiliaga aldean, Iruña Okan eta Arkaian (apika, *Suessatio* mansioa zen inguruan) daude. Bigarren multzoari, nahi izatera, *Iter XXXIV*-aren aldameneko Foronda, Gasteiz eta Armentiako urratsak gehi dakizkioke.

Gainera, Arabako beste toki batzuetan ere, Urizaharrean kasu, badaude azao aipagarriak. Halaber, Artziniega, Lantaron, Gaubea eta Urbina Basaben badira onomastika G-Ea bakarrik duten adibideak.

Orobat, Nafarroan antroponimia G-Ea duten inskripzioen banaketa ez dator guztiz bat IEa daukateneekin. Lanan (Gastiainen...) eta Marañón-Aguilar Kodesen (jatorki IEeko onomastika baden lekuetan) G-E saileko aintzat hartu beharreko sortak badira, baina baita Iruñerria, Arellano, Eslaba, Erriberri, Santakara, Monteagudo eta Muruzabal Andionen ere (guztiak IE ondareko onimoak urri diren lekuak).

Motzean esanda, *Iter XXXIV*-aren inguruan kausituriko oroitarrietan bi alorretako erakuskari ugari dago eta beste toki batzuetan ere sorburu IEeko osagaiak dituzten antroponimoak latinezkoak badauden lekuetan ageri dira, baina azken tasun hori ez da alde eta aldi oro betetzen, pertsona izen G-Een mostrak naroak diren hainbat alderditan ez dagoelako etorki IEeko onomastikarik.

Aldareez denaz bezainbatean, lehenago aurreratu moduan, jainko IEei eskainitako ale gutxi dago (Arabian hiru eta Nafarroan bi); izaki goren greziar-erromatarrei nahiz euskaldunei opaturikoak askoz gehiago dira. Atentzioa ematen du Araban, adar IEeko jende izen gehien dagoen herrialdean, leinu horretako teonimiarik ez egotea ia, are ikusita badirela numen G-Een hainbat lekukotasun (Jupiterrenak, ninfenak, lareenak...), Trebiñun, Iruña Okan, Guardian, Araian, Lantaronen eta Ribavellon kasu (ik. Zaldúa, 2022, 26-29. or.). Salbuespen nagusia Angostina izango da, San Bartolome ermitan *-[Am]bato*-ren mostra den leku berean badaudelako *Baelibio* izaki goren IEaren bi erakuskari. Gauza ezaguna da deizio horrek (30 bat kilometrorako dagoen) Haro ondoko *Bilibio* toponimoan (herrixkan) iraun bide duela.

5.4 Idazkun multzoak eta haien indarguneak

Donemiliaga aldean zantzu IEak dituen erromatar aroko idazkun multzo esanguratsua dago (ik. 3. mapa). Inskripzio guztiak hilarrietan egindakoak dira. Sorta zortzi (8) herritan topatu diren hogeita bi (22) laginek osatzen dute: Okariz (8), Durruma (4), Alaitza (3), Egilatz (2), Ilarduia (2), Agurain (1), Ibarguren (1) eta Urabainen (1). Olatzagutiko mostra talde honetan sartzeko arrazoiak badira eta, egin, horrela egin

dut lan honetan (ikus 7.2 §). Orotara, antroponimia IEa duten Euskal Herriko hilaertiz guztien herenaz ari gara. Eredu horretan berean latinezko izenak dituzten epitafo ugari daude. Erromatar garaiko jakinkizun asko samar dagoen alderdia da, beraz.

Azao hau Sakana bukatzen eta Arabako lautada hasten den gunean dago edo, nahiago bada, alderantziz. Hegoaldean Entzia-Iturrietako mendiak daude eta iparraldean Aizkorri-Aratz mendilerroa. Arabak, Gipuzkoak eta Nafarroak elkar ukitzen duten, elkarri musu ematen dioten, lekuan gara.

Erromatarren sasoian *Asturica Augusta* eta *Burdigala* lotzen zituen galtzada, *Iter XXXIV* delakoa, handik igarotzen zen. Aro alaketaren garaian eraikitakoa dateke. Berebat, handik ateratzen ziren (edo han elkartzen ziren) Orian barrena itsasoraino eta, Opakua igoz, Haraneraino eta Ameskoa ibarretaraino zeramaten bideak. Bidegurutz garrantzitsua zen, hortaz.

3.4 azpiatalean ikusi dugun bezala, III.-IV. gizaldian atundu zen Antoninoren ibilbidean, *Alba* mansioa inguru hartan zela biltzen da. Mansioak galtzadari lotutako etxadiak ziren, gudarosteek, herri ordezkariak nahiz herritarrek ostatu hartzeko, abereak gobernatzeko eta administraritza zein merkataritza arloko zuzemenak egiteko.

Alba mansioa Durruma (Donemiliaga)-Albiz (Asparrena) parean zegokeen, menturaz. Aurrekoa (*Tullonio*) Dulantzin bide zegoen (15-17 kilometrora) eta hurrengoa (*Aracaeli*), berriz, Uharte-Arakil ondoan (Zamartzen?, 25-30 bat kilometrora). Deigarria da aldameneko bi mansio horiek ziren guneeetan epigrafia gutxi egotea, izan IE jatorrikoa izan G-Eekoa. Dulantziko *Tullonio*-ren aldea da salbuespen ezaguna. Ez da gauza bera agitzen *Veleia* (Iruña Oka) eta *Suessatio* (Arkaia) mansioen kasuan, hilarri ugari idoro baita haietan eta inguruetan.

Donemiliaga aldeko multzoko deizio narena *Segontius* (*Segontiecus*...) da, hamar (10) aldiz dokumentatzen baita. Gehiago dena: Penintsulako beste inon ez da hain joria (ik. 7.2 §). Darabilgun sortaren ezaugarritzat har daiteke, *Ambatus/a* (*Ambaicus*...), *Turesamus* (*Turaesamicio*...), *[E]lasus* (*Elauus*...) eta *Ablonius*-ekin batera. Badira *[Reb]urrus* (*[Reb]urrinus*) eta *Tritaus*-en (*Tritaiecus*...) adibideak ere.

Sakanari bagagozkio, Velazaren (2013, 484-485. or.) iritzirako, Etxarri Aranazko (*Calaetus Sereni filius a{a}n(norum)*) hilaertizean eta Olatzagutikoan (*Seg*-ekin hasten den onimoa duenean), bietan, zelta ondareko izenak dituzkegu. Datu horien argitan, Castejongo hizkuntzalariak deritzo erromatarren garaian Sakanako onomastika batez ere zelta zatekeela, Lana haranekoaren eta Gastiain-Kontrastakoaren antzekoa edo sail berekoa.

Iter XXXIV-aren ondoko beste sorta aipagarria Iruña Okakoa da. Han zen *Veleia* mansioa (eta hiria). Antroponimia IEa duten sei (6) hilarri ediren dira gaurdaino eta G-Eeko mordoa. Hauek dira bakan daitezkeen IE sustraiko elementuak, guztiak Done-miliaga aldean ere lekukotu direnak: *Segontius* (*Segontiecus...*), *Ambatus/a* (*Ambaicus...*), *Turesamus* (*Turaesamicio...*), *[E]lasus* (*Elauus...*), *Aun(n)ia*.

Cipréssek (2006, 120-121. or.) dio daitekeena dela Iruña-Veleian hautematen den onomastika aniztasunak Vespasianok (K.o. 74. urtean) Hispaniako probintzietako herritarrei esleituriko *ius Latii* delakoarekin (hiritartasun eskubidearekin) zerikusia izatea.

Badirudi inskripzio gehienak II. mendekoak direla eta –hurbileko esparruarekin alderatuz gero– aski integraturiko (erromatarturiko) erkidego baten berri ematen dutela. Han dira, orain arte, Arabako (eta Euskal Autonomia Erkidegoko) *duo* eta *tria nomina* gehienak. Gutxi dira, aitzitik, *izen bakarra* + *filiazioa* moldeko erromesen izenak, konparaziora, Okarizen edo Kontrastan hain ugari direnak.

Gogora dezagun hemen, Iruña-Veleian idoro diren bi aldareak jainko erromatarrei eskainiak direla, *Mater Dea*-ri eta *Tutela*-ri, zehatz-mehatz.



13. Argazkia. Biloriako *etxe batean dagoen* (Lanako beste batzuen antzeko) *armarria*. MINICIA AV / NIA SE CON / TI F AV (SIC) III H.S.E. ipintzen du. Gastiaingo San Sebastian ermitaren atalburuan (1913-1943 arte) zegoen erromatar garaiko estelan du sorburua.

Ahotan hartu berri ditudan bi guneon (Durruma aldearen eta Iruña-Veleiaren) arteko harremana bistakoa da. Besterik da haietan bietan diren jende izenen eraketa; horretan, ikusiko dugunez (6. §), badago aldea.

Bada bigarren talde handi bat, *Iter XXXIV*-tik urruti samar (11-16 kilometro) dagoena, baina, hala eta guztiz ere, Donemiliagakoarekin lotu dena eta lot daitekeena: Lokizkoa.

Besteak beste, Gastiaingo eta Kontrastako hilarriak hartzen ditu. Irakur daitezkeen pertsona izenak dauzkaten gehienek (18k) osagai IEak dituzte. Onomastika G-Ea bakarrik dutenak askoz gutxiago dira eta Lana haranean daude batik bat. Bi indargune sumatzen dira Lokizko multzo honetan: Kontrasta (Haranean) eta Gastiain (Lanan). Lehenbizikoan elementu IEak dituzten zortzi

(8) epitafio ediren dira eta bigarrenen zazpi (7). Larragoan badira sail horretako bi lagun eta Zuñigan beste bat (ik. 3. mapa).

Sorta hau Araba-Nafarroetako mugaren bi aldeetako lau (4) herritan banatzen da, beraz, eta, orografiaren aldetik, Lokiz mendilerroak egituratzen du, bi gune garrantzitsuenak haren isurialde banatara baitaude. Kontrasta, Opakua igarotzen duen bidearen hasieran da, Ameskoa ibarren eta Haranaren lotunean. Lana, berriz, Lokizen beste aiekan (hegoaldekoan) dago, mendikateak ia erabat inguratuta.

Gaurdaino ez da kausitu erromatar sasoiko bizileku, gotorleku edo bestelako aurri garrantzitsurik, baina Lanako mendietan badira Burdin Aroko hiru herrixka gotorturen hondakinak: Peña Gallina, Galtzarra eta Peña de San Salvador (ik. Armendáriz, 2008, 840-861. or.).

Lokiz aldean dokumentatzen diren izen IE naroenetako gehienak Donemiliagako multzoan nahiz Iruña Okan ageri dira: *Ambatus/a* (*Ambaicus...*), *Segontius* (*Segontiecus...*), *Anna* (*Anica, Anicius...*), *Araus* (*Araica...*), *Cantaber*. Gauza bera jazotzen da *Turesamus* (*Turaesamicio...*), *[E]lasus* (*Elaus...*) zein *Aun(n)ia* onimoekin. Badira Araban eta Nafarroan gehiago lekukotzen ez diren elementu IEen adibideak: *[A]meanus* (*A[m]eicus*), *Pimaus*, *Buturra*, *Viriatus*, *Vironus...*

Izenak (hilarrien apaingarriak bezala) Donemiliaga eta Lokiz aldeko azaoen arteko zerikusiaz mintzo zaizkigu, baina lotura ez da erabatekoa, besteak beste, badagoelako ezberdintasuna Kontrastaren eta Gastiainen artean, antroponimoen eraketa moldeetan batez ere (ik. 6.5 §). Nabarra den harreman batez ari gara.

Albertosek (1970, 155. or.) diosku Euskal Herriko onomastika indigenaren (IEaren) muina Kontrastan eta Gastiainen dela, alde hartan ia guraso eta seme-alaba guztiek erromatarren aitzineko izen IEak dituztelako. Zernahi gisaz, onartzen du badirela gutxietsi ezin diren ezberdintasunak bi guneen artean.

Ildo berean, Abascalek (2015, 46. or.) agerian ipintzen du Nafarroa eta Araba arteko (edo, bestela esanda, *Caesaraugusta*-ko eta *Clunia*-ko komentuen arteko) zerrendan dagoela kilometro koadroko inskripzio hainbateko handiena, bai Erresuma zaharrean, bai probintzian. Preseski, han dira Kontrastako Elizmendiko Andre Mariaren basiliza, Gastiaingo San Sebastianena edo Larragoako Andre Maria Zuriarena.

Ciprésentzat (2006, 123. or.), Luzkando-Okariz-Durruman eta Kontrastan kausituriko erakuskariek badiutuzte elementu komunak, nolabaiteko bateratasuna ematen dietenak. Barruti horren epigrafia ezaugarritzen duten tasun nagusiak gizon-emakumeen lege arloko integrazio (erromatartze) eskasa eta azaleko latinizazioa dirateke, batez ere Iruña-Okarekin erkatzen bada.

Arabako (eta Nafarroako sartaldeko) gainerako eskualdeekin alderatuz gero, Ciprésentzat, probintziako sartaldeko antroponimiaren bereizgarri esanguratsuen *izen bakarra* + *filiazioa* egituraren ugaritasuna da. Izan ere, han idoro dira (zati IEak dituzten) izendapen mota horren ia lekukotasun guztiak. Epigrafia arloko ñabardurek (*D M* siglak ez azaltzeak, *H S E* egoteak, epitafioen xumetasunak...) I. mendean (bigarren erdian edo amaieran) eta II. ean kokatuko (datatuko) lituzkete, ziurrenik, hango molde horretako hilarriak. Okarizko eta Urabaingo bi agerralditan izan ezik, eraketa klase hori edergarririk gabeko oroitarri apaletan dokumentatzen da. Haatik, *duo* eta *tria nomina*-k dituztenak mahatsondo adarrekin apaindutako oroitarri dotoreak dira asko aldiz. Guztiarekin, antroponimoen osagai gehienak IE jatorrikoak dira. Bat baino gehiago Penintsulako beste eremu batzuetan aski ezagunak dira, bereziki sartaldean eta esparru zeltiberiarrean, baina beste batzuk ez; alde horretakoak bertakoak (Arabako sartaldekoak) dirudite, orain arte beste inon aurkitu ez direlako.

Bartzelonako irakaslearen (2006, 123. or.) aburuz, nomenklatura erromatarra hartu zuten gizabanakoen antroponimoetan bertako tradizioaren errainua antzematen da, bai gizonengan, bai emakumeengan, batez ere, filiazioari begi izaten bazaio. Iruña Okan *nomina* eta *cognomina* duten gizonengan sumatzen den antzeko egoera ikusten du, ondorioz. Emakumeen artean osagai indigena (IEa) *cognomenean* gordetzen da; aitarek izena, berriz, latindarra izaten da. Osaketa hori (izen bakarra edo idionimoa ez bezala) mahatsondo zuztarrekin apaindutako hilarrietan irakurtzen da gehienbat, astroen irudikapenak, errosetak, animalien nahiz gizakien marrazkiak ere izan ditzaketenetan.

Antroponimia indigena (IEa) morroi edo jopuen deizioetan ere kausitzen da, *senius* eta *ancilla* banaren lekukotasunak baitaude, hurrenez hurren, Ilarduian eta Kontrastan.

Donemiliaga aldekoarekin eta Lokizkoarekin (hein batean bederen) zerikusia dukeen beste multzo garrantzitsua Toloñoren iparraldekoa da. Idatzizko urrats ugari samar ditugu paraje hartan, tartean hiru aldare. Ia erdiak elementu IEak dauzka: Angostina (hilarri 1 eta 2 aldare), Marañón (3 hilarri), Aguilar Kodes (2 hilarri), Bernedo (hilarri 1) (ik. 3. mapa).

Toloño, aurreko sortatik, hau da, Lokiz aldekotik, 18-20 kilometrora dago (hego sartalderantz), hura bezala Arabak eta Nafarroak elkar ukitzen duten toki batean. Bernedo-Angostina eta Marañón Toloñoren iparraldean daude, baita Aguilar Kodes ere. Hain justu, azken horren ondoko geografia erreferentzia ikusgarriena herrigunearen iparraldean dagoen *Joar* mendia bada ere, Las Llanas-Pinganilla-Orcía lerroa Toloño mendikatearen luzapentzat har daiteke, eta hala hartzen da, usu. Bidenabar, diodan Angostinan badela *Cividad* izeneko Burdin Aroko herrixka gotortua.

Talde honetako onimo bereizgarria *Doiterus* (*Doitena*...) da, hirutan dokumentatzen baita. Badira Donemiliaga nahiz Lokiz aldean idoro diren elementuen lekukotasunak:

Ambatus/a (*Ambaicus...*), *Anna* (*Anica, Anicius...*), *Segontius* (*Segontiecus...*). Horixe da, preseski, Toloñoko multzo hau haiekin biekin lotzeko helduleku nagusia, hau da, izenen erdia iparralderago dauden beste bi eremu haietan topatzea. Alabaina, *Turesamus* (*Turaesamicio...*), *[E]llasus* (*Elauus...*), *Aun(n)ia*, *Tritaus* (*Tritaeicus...*), *Calaetus*, *Araus* (*Araica...*) edota *Ablonius* ez dira ageri Toloño aldean. Beste toki batean jasota dagoena *Coema* (*Coemia...*) da, San Martin Unxen zehazkiro (bi erakuskari daude han). Gauza bera *Boutia*-z, Lantziegon badelako beste mostra bat. *Vëndio* eta *Celtius* ez dira, horratik, gehiago ediren Euskal Herrian.


Castillorentzat (1977, 131. or.) formula onomastiko nahasiak (erromatar nomena eta cognomen hispaniar-zelta duenak) biztanleriaren zati bat ohitura erromatarrek bereganatzen ari zela iradokitzen du. Horren seinale dirateke –Gastiango *Ant(onia)* *Buturra*, *Minicia Aunia* eta *Porcia Ambata*-rekin batera– Aguilar Kodesko *Oppia Boutia* eta *Oppia Coemia* emakume izenak. Biak ala biak filiazioa aitaren cognomenaren bidez adierazten den barrutiaren barnean daude, nolabait esateko.

García Arizak (1991, 217. or.) idazten du Aguilar Kodesko eta ondoko epigrafiak ez duela zerikusirik Nafarroa gehiena hartzen duen esparru baskoian ezagutzen denarekin; bai, ordea, Penintsulako beste leku batzuetako onomastika indoeuopar-zeltarekin (zeltiberiarrarekin baino gehiago).

Ciprések (2006, 125. or.) Angostinan bi eratako antroponimoak daudela azpimarrazten du: osagai bakarra (IEa) dutenak eta erromatar ereduari jarraikiz eraturikoak, hau da, *duo nomina* + *filiazioa* (idionimoaren edo cognomenaren bidez adierazia) egitura dutenak eta *tria nominak*. Alor berekoa den (aldameneko) Marañón herrian, bada nomenklatura erromatarra duen gizabanakorik, baina Angostinan baino onomastika IE gehiago dago.

Honaino aletu ditugun hiru multzo nagusiek (Donemiliagak, Lokizek, Toloñok) eta Iruña Okako azaoak IE sustraiko izenak dauzkaten inskripzioen hamarretik zazpi baino gehiago batzen dute. Gainerakoak han-hemenka ediren dira, baina batzuk, sorta txikitan lot daitezke: Arabako Errioxa (Guardia-Lantziego-Mañueta), Trebiñu (Argantzón-Saratsu?), *Andelo* (Oteitza-Mendigorría), *Cournonium* (Arellano [2]-Arroitz-Barbarin), Santakriz (San Martin Unx [2]-Eslaba). Paraje horietan guztietan onomastika osoki G-Ea duten idazkunak badira.

Xehetasunetan sartuz gero, diodan, Ciprésen (2006, 125-126. or.) irudiko, Assako (Lantziegoko) epitafoiak testuinguru indigena erromanizatu batera begiraraziko lukeela. Izan ere, *Boutia* cognomenak eta (aita kide zen) ustezko ahaidetasun harreman taldearen onimoak (*Attesu[c?]/lo(n/-m)* pluraleko genitiboak) gizarte eredu indigenaren iraupe-naren berri emango lukete, Penintsulako parte indoeuoparreko beste herri batzuen bizilekuetan (konparaziora, beroiengan) dokumentatzen den berarena, alegia.



3. Mapa. — • — • Araba eta Nafarroa arteko gaurko muga. — — — Iter XXXIVaren balizko trazadura.

IE sustraiko aztarnak aurkitu diren Araba-Nafarroetako herriak.

Biribilaren tamaina mostra kopuruaren araberakoa da. Adib.: Urabain (1), Okariz (8).

Era berean, Abascalek (2015, 44, 56. or.), Nafarroako epigrafiaren mapa marrazten duenean, zenbait arlo bakantzen ditu, iragan denboretako hiriekin zerikusia bide dutenak. Horieta bat Andelok eta haren barrutian ziratekeen herriek osatzen dute (Ziraukik, Villatuertak, Oteitzak, Larragak, Puiuk...). Bestea, *Curnonium* (Los Arcos) hiri baskoiaren balizko esparrua da (Arellano, Iguzkitza, Lukin, Barbarin, Muetz eta Arroitz).

Santakrizko hiriaren *territorium*-ean ziratekeen Eslaba aldeko herriak (Galipentzu, Kaseda...) ere aberatsak dira erromatar aroko arrastoen aldetik. Hain zuzen ere, Abascalek (2015, 60–61. or.) uste du Santakriz zela Aragoi ibaiaren ibilgu garaian epigrafeak aurkitu diren gunetatik (Rocaforte, Oibar, Zangoza, Ledea, Xabier eta Leiretik) gertuen zegoen hirigune nagusia.

Monteagudo, Marteri *Statuius Arquio*-k eskaini aldarea (NMoA1) agertu zen herria, *Cascantum*-en *territorium*-aren barruan zatekeela ere zehazten du Madrilgo irakasleak.

6. Antroponimoen egitura

6.1 Jende izenen eraketen ezaugarriak eta haien adierazgarritasuna

Albertosek (1970, 151–152. or.) garbi du epigrafiaren bidez erromanizazioa nola zabaldu zen jakin daitekeela. Gizabanakoen arteko ahaidetasun harremanak azaleratzen dituzten inskripzioei erreparatzen die, batez ere, horretarako.

Hiru talde bereizten ditu: a) Aipatzen diren gizon-emakume guztiek erromatarrek ez diren onimoak dauzkaten idazkunak. b) Seme-alabek deizio erromatarrek eta gurasoek indigenak (IEak) dituztenak. c) Pertsona denek erabat latinezkoak diren izenak dituzten oroitarriak.

Bigarren taldeko zenbait laginetan erdi erromanizatutako familiak dakuski. Horrelakoetan, eskuarki, gurasoek izen IEa (bakarra) izaten dute eta, batzuetan, seme-alabek nomen G-Ea eta cognomen IEa. Bere iritzirako, bada kasu bat (Assakoa), aitzak –izen G-Ea izan arren– gentilizio (genonimo) IEari eutsi diona.

Leóngo irakaslea ez da antroponimoen osagaien jatorriari so egiten dion autore bakarra. Konparazio batera, Sáenz de Buruagak eta Sáenz de Urturik (1994, 77. or.) azpimarratzen dute Durruman ez dagoela jende izen nahasirik, bi etorkitako zatiak dituenik.

Orobat, Ramírezentat (1999, 18. or.) «eremu antroponimikoa» (*die Landschaft*) garrantzi handiko kategoria edo kontzeptua da denbora joanetako pertsona izenak hizkuntzaren eta historiaren aldetik bahetzeko eta katonatzeko.

Hari beretik, Ciprésék (2006, 86. or.) aditzera ematen du, erromatarren eredu zabaldu edo nagusitu zenean, artean, tokiko elementu batzuk gordetzen zirela, beharbada, izendapen berriak erromesen onomastikaren iraganeko usadioetara egokitze; cognominen artean deizio IEak barneratzea, familiaz gaindiko unitatea aipatzea edota onomastika segidaren amaieran filiazioa jakitera ematea ditu buruan.

Ciprésen (2006, 118. or.) hitzetan, pertsona izenaren akabailan patronimoa gehitzea, batez ere idionimo baten bidez egiten denean, integrazio (erromatartze) prozesuaren urrats edo fasetzat har daiteke, nomenklatura erromatarrean osagai indigenak gordetzearen edota indigenetan izen G-Eak barneratzearen parekoa, baina kasu honetan onomastika sistemaren egiturari eragiten diona. Epigrafeen banaketa geografikoak pentsarazten dio joera hori, batez ere, kultura indigenaren (IEaren) pisua anartean garrantzitsua eta

eraketa erromesaren errainua handia zen tokietan gauzatzen zela, hitz bitan, onomastika molde erromesa indarrean zegokeen lekuetan loratzen zela, *ciues* gisako gizarte egiturak eta antroponimia eredu erromatarrak munta handiagoa zuten erkidegoetan ez bezala.

Ciprésentzat (2006, 108-109. or.), asko ez badira ere, eskura ditugun testuek hizkuntzaren aldetik nabarrak diren sistema onomastikoen aztarrenak utzi dizkigute, mundu indigenaren (IEaren) eta erromatarraren arteko «inbrikazioaren» (uztarketaren) nahiz onomastikaren erromatartze prozesuaren berri emango luketenak.

Azpirarragarriak begitantzen zaizkio *[Mi]nicius Reburus Reburini f(i)lius* (aitaren izenaren erro bereko cognomena duena) eta *Munatius Fuscus Ambati f(i)lius*, filiazioa izen indigena (IE) bakarren bidez jakitera ematen delako (*gfr. Licin[ius] Cant[a]ber*). Berebat, *Se(mpronia) Ara[fi]ca Flau[i] f.* eta «*[Au]relia Bouti[a] Flacci Attesu[c?]lo(n/-m) f.*» nabarmentzen ditu, aitaren izena G-Ea izan arren, beste zati batzuek elementu indigenak gorde dituztelako. Horrela, bada, pertsona izenen parteen izaera linguistikoak parada emango luke kultur integrazioaren (erromatartzearen) sakontasuna antzemateko. Gauza bera sumatzen du Nafarroako sartaldean, Gastiain eta Aguilar Kodezen sail horretako bereko testigantzak baitaude. Hango emakumeen izenak gordetzaileagoak edo kontserbadoreagoak, indigena kutsu handiagokoak, direla iruditzen zaio (Albertosi bezala).

Azkenik, Bartzelonako irakaslearentzat, antroponimoen osagaien (askotariko) jatorriak ez du gizabanakoen estatutu juridikoa baldintzatuko, hau da, *onomastika indigena-sistema erromesa* eta *onomastika latindarra-sistema erromatarra* parekatze nagusiak ez dira aldi eta alde oro beteko.

6.2 Hilarriak

Iturburu IEeko elementuak bakarrik dituzten hogeita hemezortzi (38) epitafio (44 antroponimo) ditugu azterkizuntzat eta bi sailetakoak (IEekoak eta G-Eekoak) dauzkaten hogeita zortzi (28) (beste hainbeste antroponimo). Horrenbestez, badira jende izen bat baino gehiago daukaten lau hilarri eta, ondorioz, hirurogeita hamabi (72) lagin erabiliko ditugu jarraian.

6.2.1 Indoeuopar sustraiko elementuak bakarrik dauzkaten pertsona izenak

6.2.1.1 Osagai bakarreko deizioak

IE adarreko izen bakarra (idionimoa) dutenetatik hasiko naiz. Hemezortzi (18) dira horrelako aztarnak dauzkaten oroitarriak eta haietan hemeretzi (19) antroponimo irakur daitezke, hamaika (11) Araban eta zortzi (8) Nafarroan (*gfr. Ciprés 2006, 92. or.*).

D M (6) (AR 3, NA 3) eta *H S E* (7) (AR 4, NA 3) formularioak sarri ageri dira, kasu batean biak aldi berean (Kontrasta, AKoH4). Emakumezkoak zazpi (7) dira (ADuH4, AIIH1, AKoH4, NAKH1, NEsH1, NGaH6, NRoH1). Ciprésék (2006, 88. or.) dioena egiaztatzen da, hortaz, alegia, izen bakunak ohikoak direla emaztekien artean.

Zaila (eta arrunt arriskutsua) da hauen kronologiaz ezer esatea, zatiren bat (filiazioa?) falta dutenak ez ezik, tartean, deizio bakoitz zaharrak, antroponimo berankorrek nahiz jopu izenak ere egon daitezkeelako (badira bi, gutxienez; *Ablonius* [Ilarduia, AIIH1] eta *Anica* [Kontrasta, AKoH4]; cf. Ciprés 2006, 94. or.). Gainera, multzo honetan bi ama (*ma-ter*) (*Acnon* [Oteitza, NOtH1], *Ambata* [Gastiaín, NGaH6]) nahiz emazte (*uxsor*) (*An[na]* [Marañón, NMaH1] eta ahizpa (*soror*) bana dauzkagu (*Picull(a)* [Eslaba, NEsH1]).

Zernahi gisaz, idazkuntan irakur daitezkeen (G-E ondareko) beste jende izen batzuk, baita zenbait substantibo (*m(onumentum)*...), adjektibo (*carissimo*...) eta aditz ere (*f(aciendum)* *c(uraverunt)*...), hiliarrien data jakiteko lagungarriak izan daitezke (ik. 4.2 §).

Konparazio batera, Gastiaingo *Ambata* [*m*]ater-en kasuan, senarrak (hiru urterekin hildako semearen aitak) *P[e]greinus* izena zuen eta epitafoian *posu[e]runt* ('[hilarri hau] ezarri zuten') aditza irakur daiteke. Hala berean, Aguilar Kodesko epigrafe batean (NAKH2) hiru antroponimo azaltzen dira; bik bi sailetako hiruna osagai dauzkate eta batek IE jatorriko bakarra, *Vendio*, hain justu, (amaren) oroitarriaz arduratu zen semearena (*f(aciendum)* *c(uravit)*). Herriko bereko beste adibide batean (NAKH1) *Ana* emaztekiak ezarri zuen [*C*]oe[*lius*] gizasemaren hilarria (*m(onumentum)* *posu[it]*). Berebat, Arroitzen (NArH1) *K(a)rauir(onus)?*-ek, semeak eta *Aesti-us*-ek hartu zituzketen beren gain *Festus Palydinus*-ekikoak eta *Verna*-rekikoak (*f(aciendum)* *c(uraverunt)*). Alaitzako (Luzkandoko) mostran (AAIH3) *Sento* senar maitearen gomuta emazteak gauzatu zuen ([*sibi*] *f(aciendum)* *c(uravit)*). Azkenik, Marañoñen (NMaH1) *Armentariu[s]*-ek eginarazi zuen *An(na)* emazte (*uxsor*) kutunaren (*caress[im(a)e]*) estela.

Aipatu berri ditudan substantiboak, adjektiboak eta aditzak dauzkaten bost hilartitzak ez dira, segur aski, darabiltzagunetatik antzinakoenak. Beharbada, Kontrastako (AKoH4) *Anica*-rena ere (*D M* eta *H S E* formularioak ditu) ez da zaharrenetakoa (ik. 4.2 §). Alabaina, Ilarduiaiko *Ablonius*-en hilartitzean (AIIH1), adibidez, *e* grekoa (<II>) dukegu, *e* «zaharra» ere esaten zaiona.

Ciprésék (2006, 93. or.) deritzo gizon-emakume askeen filiaziorik gabeko idionimoak II. mendetik aitzina dokumentatzen direla botozko eta ehorzketako idazkietan, eta ohikoagoak direla beranduagoko epigrafeetan. Bestetik, III. gizalditik aurrera datatutako laginek mononimiarako (izen bakarra erabiltzeko) joeraren berri emango lukete eta horrek, apika, Caracallako ediktuaren (K.o. 212) ostean erromatar hiritartasuna Inperioko gizon-emakume askeengana hedatzearekin zerikusia izango luke.


Azpinarra dezadan IE enborreko bost idionimo Toloño aldean (Aguilar Kodesen [2], Marañoñen, Angostinan, Bernedon) eta beste lau Araba-Nafarroa mugatik urrun samar daudela (Oteitzan, Rocaforten, Arroitzan, Eslaban, Saratsun?). Azken azao horretako gehienak behin bakarrik dokumentatzen dira (*Acnon*, NOtH1; *Visten(a)*, NRoH1; *K(a)rauir(onus)?*, NArH1; *Picull(a)*, NEsH1); ik. 7.4 §.

Bidenabar, eta bukatzeko, diodan hamar hilarrik ez dutela inolako apaingarririk eta gainetikoetan denetarik dagoela (eguzkiak, hexapletoak, ilargiak, gizakiak...), baina ez da dekorazio bat gailentzen.

6.2.1.2 Idionimoa + filiazioa *egitura dutenak*

Badaude hogei (20) hilartitz *idionimoa* + *filiazioa* eraketa duten jende izenak dauzkatenak. Haietan diren hogei (20) deizioetatik hemezortzik (18k) bi zati IEak gorde dituzte eta beste bi mostretan, egun, patronimoa besterik ez dago (Kontrasta [AKoH6], Alaitza [AAlH2]). Egitura naroa da, beraz, elementu IEak besterik ez dituztenen artean (*cfr.* Castillo 1977, 133. or.); ik. 4. mapa.

Ez dago matronimorik, ezta aita-semeen arteko homonimia etsenplurik ere, bai, ordea, sustrai bereko osagaiak dauzkatenak (*Segontius Segontieci filius* [AOKH8]; *Secontiecus Seconti filius* [AOKH5]; *Araica Arai filia* [AKoH5], ik. 14. argk.; *Turesica Turesamus filia* [AAlH1]); hau da, cognomena errepikatu orde, etorki bereko onimo eratorria erabiltzen da nomen gisa (*cfr.* Ciprés, 2006, 109. or.).



14. Argazkia. Kontrastako Elizmendiko Andre Mariaren ermitako horma batean den Araica Araia f.-ren hilarria (AKoH5).

Araban hamasei (16) adibide daude eta Nafarroan lau (4). Zuñigako (NZuH1), Marañoño (NMaH2) eta Oteitzako (NOtH1) hiru mostrak izan ezik, gainerako

guztiak Donemiliaga aldean edo Lokizen idoro dira. Ohart bedi Gastiainen eta Larragoan alerik ere ez dagoela. Okariz (AOkH2, AOkH3, AOkH5, AOkH6, AOkH7, AOkH8), Kontrasta (AKoH1, AKoH5, AKoH7, AKoH8) eta Egilatz (AEgH1, AEgH2) nabari dira indargune edo foku gisa.

Gehienek (14k) *H S E* formula dute (A 13, N 1). Alabaina, *D M* sigla behin bakarrik ageri da (Marañónen, NMaH2). Ezer ez dutenak bost dira (Okariz [2], Alaitza, Olatzagutia, Oteitza) eta bi akronimoak dituenik ez dago.

Idazkunotan ez dago *m(onumentum)* substantiboaren, *carissimo* adjektiboaren edo *f(aciendum)* *c(uravenunt)* aditzaren moduko elementurik (*gfr.* Ciprés 2006, 102. or.). Alabaina, Okarizko *Segontius Seg[o]ntiei f.*-en epitafioan *e* grekoa edo zaharra (<II>) birritan baliatzen da.

Idionimoa + *filiazioa* da osaketa joriena darabildan azpimultzoan eta, esan bezala, hurrenkera hori duten antroponimo gehienak Araban dira, haietatik hamahiru (13) *Iter XXXIV*-aren altzoan. Horiei Olatzagutiko alea erants dakieke. Salbuespenak, nolabait esan, Oteitzako eta Marañoño mostrak dira.

Antroponimootan gurean gehien errepikatzen diren elementu IEak nagusitzen dira (*Segontius, Ambatus/a, Turaesamus, Araus...*).

Apaingarri ugariena ilargia (6) da. Lau etsenplutan arkuak daude eta beste batean (Okarizen) mahatsondo zutarrak. Gainerakoetan ez da edergarririk gorde (edo ikusten).

Ciprésentzat (2006, 90. or.), *idionimoa* + *filiazioa* moldeko pertsona izenek talde berezia osatzen dute eta nolabaiteko kultura batasuna emango liekete Arabako sortaldeko eta Nafarroako sartaldekoko laginei. Hildakoaren izena, haren adina eta *H S E* formula (*D M* gabe) adierazteak epitafio zaharrenen artean kokatzen dituzte. Ziurrenik I. mendearen erdialdekoak edo amaierakoak lirateke.

Erreferentzia moduan, diodan, filiazioa jakitera ematen duten asturren eta galaikoen bizilekuetako soldadu laguntzaileen izenak K.o. I. gizaldikotzat jotzen direla, batez ere aro julio-klaudioaren lehen erdikoak (Pitillas 2006, 25. or.). *Reburus Coroturetis f(ilius) mil(es) c(o)ho(rtis) I Lucensiu(m) Hispanorum* (Zalbach [Magunzia], HD056266) eta *Elaesus Coelonis f.* (Sagunto, Hesp. Onom.2341) dira bi adibide.

6.2.1.3 Osaketa iluneko bi ale

Eraketa ezezaguneko bi pertsona izen daude: *Aunia Ara* (AIIH2) eta *Tergido Gall[- -]* (NGaH7). Ikerbide bat izan daiteke pentsatzea bigarren elementuak filiazioa azaleratzen duela (Ilarduiaikoan, *H S E* sigla duenean, batez ere; *gfr.* Ciprés, 2006, 90. or.), baina ez da hipotesi bakarra, Gastiaingoari, apika, hirugarren partea falta baitzaio.

6.2.1.4 Hiru osagai dituztenak

Buruenik, badira hiru zati IE dauzkaten edo izan ditzaketen hiru adibide, beste hainbeste oroitarritan leitu daitezkeenak. Batean (Iruña Okakoan; AIrH3) hiru elementuak ezagunak eta ohikoak dira (*Elanus Turaesamicio Ambati f.*). Beste bi kasuetan, damurik, bigarren onimoa ezin da irakurri edo berreraiki, baina lehenbizikoa (nomena) eta hirugarrena (patronimoa) bai: *[E]lasus N[- - - / - - -] E(l)andi f.* (ADuH3); *Doiteru[s] [- - -]do Ambati f.* (NMaH3); ik. 15. argk. Hitzak hizpidea ekarrita, aurrera dezadan zati G-Eak dauzkatenen artean ez dagoela IE saileko lehenbiziko eta hirugarren partea dituenik.

Iruña Okako eta Durrumako inskripzioek ez dute formulariorik, baina Marañoongoak bai, biak (*D M* eta *H S E*). Hondar etsenplu horretan hiru gizaki irudi daude zizelkatuta hilarrian.



15. Argazkia. Marañoongo epitafio bikoitza (NMaH3).

Vianako Printzea Erakundea-Kulturako Zuzendaritza Nagusia.

6.2.2 Ondare indoeupear eta greziar-erromatarreko elementuak dauzkaten antroponimoak

Bietariko (sustrai IEeko eta G-Eko) zatiak dauzkaten hogeita zortzi (28) epitafioetan diren hogeita zortzi - hogeita bederatzi (28-29) jende izenei begiratu diegu orain.

6.2.2.1 Idionimoa + filiazioa egitura dutenak


Idionimoa + *filiazioa* osaketaren lagina duten zortzi (8) hilartitz (eta beste hainbeste antroponimo) daude (AR 5, NA 3). Zazpi (7) kasutan idionimoa IE sorburukoa da eta filiazioa G-Eekoa (Agurain, AAgH1; Etxarri Aranatz, NEAH1; Argantzón, AAtH1; Kontrasta (2), AKoH2, AKoH3; Larragoa, NLaH2; Urabain, AUrH1, ik. 16. argk.; *cf.* Ciprés 2006, 113. or.); ik. 4. mapa. Azao berean sar daiteke, alde batera, Kontrastako *Segontius Ambati Vecti f.* (AKoH7), filiazioan *Vectus* cognomena duelako, *Ambati* (gen.) IEaren segidan. Idionimoen artean, *Segontius* (2) eta *Ambatus/a* (2) nabarmentzen dira.

Erdiak *H S E* akronimoa du. Kontrastako *Am[bat]us Serani f.*-en idazkunean (AKoH2) *e* grekoa edo zaharra (II) dago.

Jatorri G-Eeko idionimoa eta patronimo IEa duen ale bakarra Marañoño *[Su]ccessus Doiter(i) [f]* da (NMaH3). *D M* eta *H S E* siglak ez ezik, oroitarriak hiru giza irudi ere baditu irarrita.

Multzo honetan eguzkiaren (3) eta ilargiaren (3) marrazkiak nagusitzen dira.

Arreta pixka bat opa diona ohartuko da batik bat Lokizko (4), *Iter XXXIV*-aren ondoko (2) eta Toloño aldeko etsenpluak ditugula eskuartean; Argantzongo lagina da salbuespena.



16. Argazkia. Urabaingo elizaren horman den [A]mbatus [A]rabi f.-en oroitarria (AUrH1).

Orotara, bi sailetak (6.2.1.2 eta 6.2.2.1§) mostrak kontuan hartuz gero, hogeita zortzi (28) dira *idionimoa* + *filiazioa* egitura duten antroponimoak. Molde naroena ez bairik gabe azterkizun dugun corpusean.

6.2.2.2 Duo nomina-k

Duo nomina-k diratekeen sei daude. Bi Iruña Okakoak dira eta beste bat Kontrastakoa, baina gainerakoak *Iter XXXIV*-tik edota Araba-Nafarroa mugatik nahiko urrun dauden tokietan topatu dira (Mañuetan, Mendigorrian, Iruñelan).

Lau kasutan nomena IE jatorkikoa da (*Amba*[- -] NMeH1; *Homicino*(?), NIñH1; *Annicius*, AKoH4; *Aunnia*, AIrH2) eta cognomena, berriz, G-Eekoa (*Matern*[], *Asino*, *Florus*, *Secundiana*).

Ciprésentzat (2006, 111. or.), horrelako izenek (errromesek zein erromatar hiritarrek), hein batean, «familia eremuko tradizio onomastikoari» eutsi ziotela adierazten dute. Bere usterako, joera horrek erromatar moldeko deizioen artean cognomina IEak zergatik dauden ulertzen lagunduko du.

Bi adibidetan, baina, nomena G-E sailekoa da (*Ursicenus*, AMñH1; *Licin(ius)*, AIrH6) eta cognomena IEekoa (*Aselucio*(?), *Cant(a)ber*). Aurreratu nahi dut hiru zatikoen artean, alegia, (IE adarreko) patronimoa atxikirik duten *duo nomina* direlakoan arloan, badirela eraketa bereko sei (ik. 6.2.2.3 §).

Batek izan ezik, multzo honetako inskripzio guztiek badute formularioren bat. *D M* hirutan zenbat daiteke eta *H S E* beste hainbestetan, horietako batean (Kontrastakoa) *D M*-rekin batera; hilarri horrek (AKoH4) eguzkiaren eta mahatsondo zuztarren irudiak ditu. Hiru oroitarritan giza irudiak daude (Iruñela, Iruña Oka eta Mañuetan).

6.2.2.3 Duo nomina + filiazioa osaketakoak

Azao honetan hiru eratako antroponimoak ditugu, IE adarreko zatien zenbatekoaren eta kokapenaren arabera. Hamaika dira guztira (cfr. Ciprés, 2006, 100. or.); ik. 4. mapa.

Lehenengo eta behin, *nomen G-Ea + cognomen IEa + patronimo IEa + filius/a* ordena duten sei (6) ale daude, horietatik lau (4) Nafarroan, guztiak Gastiainen (NGaH1, 2, 4, 5), eta bi (2) Araban (Ibarguren [AIbH1] eta Iruña Okan [AIrH5]). IE sustraiko osagaien artean *Segontius* (4) eta *Ambata* (2) nabarmentzen dira.

Ciprésen (2006, 116. or.) iritzia da filiazioa adierazten duten zenbait etsenplutan, (patronimoan) funtzio bereizlea cognomenak betetzen duela (cfr. *Minicius Florus* vs *Anica Flori ancilla*). Hain zuzen, dago Gastiainen (Nafarroan) dokumentaturiko (emakume) izen batzuetan horixe jazozen dela (*Antonia Buturra Viriati f.*; *Minicia Aunia Segonti f.*).

Emakumeen deizioetan tribua aipatzen ez denez eta kontrako argudiorik ez dagoenez, printzipioz, erromatar hiritarren artean sailkatu beharko genituzkeelakoan da bartzelonarra. Estatus hori aitarengandik datorkiekie (jaiotza, ezkontza *iustum* baten

barruan gertatu bada) edo, aurrerago, *ius Latii*-ari esker (aitak edo senarrak *ciuitas per honorem* delakoaren bidez eskuratuz gero).

Sorta honetako seiek *H S E* formularioa dute eta bik *D M* siglak ere bai. Bi hilarrik, Ibargurengoak eta Gastiaingo batek, zehazkiro, mahatsondo zuztarrak eta eguzkiaren marrazkiak dituzte apaingarritako. Ibargurengoak, gainera, badu giza irudia ere eta Gastiaingo bi mostratan ilargia dago zizelkatua.

Badira, berebat, nomen eta cognomen G-Ea eta filiazio IEa duten bi etsenplu. Iruña Okan (AIrH4) eta Okarizen (AOkH4) edirendakoak dira. Iruña Okako laginean patronimoak *-icus* berrekailua du (*Ambaici*, gen.).

Biek *H S E* akronimoa eta mahatsondo zuztarrez egindako edergarria daukate (aitzin multzoko bik bezala). Okarizkoak orein baten irudia du irarrita.

Hirugarrenik eta azkenik, nomen G-Ea, cognomen IEa eta patronimo G-Ea duten hiru jende izen dauzkagu, bi hilaiztetzan daudenak. Bata (bikoitza) Aguilar Kodeskoa da (NAKH2) eta bestea Iruña Okakoa (AIrH1). Lehenago aipatu dudana bezala, lehenbizikoan (*Vendio*-renean) semea amaren hilarria egiteaz arduratu zela (*f(aciendum)* *c(uravit)*) jakinarazten da. Iruña Okakoak arkuak zituzkeen dekoraziotako.

Castillok (1977, 129. or.) esaten du, Aguilar Kodesko *Oppia Coemia Frontonis filia*) eta *Oppia Boutia Patruini filia*) antroponimoetan bezala (NAKH2), filiazioa aitaren cognomen G-Earen bidez jakitera ematea onomastika indigenaren (IEaren) eta erromatarren bateratzea, edo haren urardotzea, aurreratua zegoelako seinale dela.

Gorago ikusi dugunez, Ciprés (2006, 116. or.) pentsamendu berekoa da eta aitzineko bi laginei *Iunia Ambata Vironi f.* gehitzen die (NGaH2), funtzio «diakritikoa» cognomenak beteko bailuke (Gastiaingo) azken horretan ere. Ciprésentzat, cognomenak norbanakoa identifikatzea jokabide ezaguna da erromatarren munduan, baina, beharbada, Euskal Herrian eta inperioko beste toki batzuetan indartu egin zen tokiko onomastika ohitura erromesen pisuaren edo eraginaren ondorioz.

Irakasle bartzelonarrak (2006, 119. or.) filiazioa atxikirik duten *duo nominak* I. mendearen amaiera eta III.aren hasiera artekoak izan daitezkeela uste du. Horrelako deizioak zeuzkaten pertsonak, oro har, hiritar erromatartzat hartu beharko genituzkeela dio, baina ez du baztertzen gizon-emakume batzuek gisa horretako izenak integrazio (erromatartze) prozesuan urrats bat emateko asmoarekin hobetsi izana, horrek, aldi oro, hiritartasuna eskuratzea ekarri gabe.

Bada Ciprésék (2006, 117. or.) azpimarratzen duen filiazioarekin lotutako azken ñabardura bat: hain zuzen *tria nomina*-ren ohi deneko (*praenomena* + *nomina* + *filiazioa* + *tribua* + *cognomena*) eskemaren arabera eratutako antroponimoetan ez bezala, datu hori zehazten duten hemengo *duo nomina* guztietan filiazioa cognomenaren jarraian

dago. Kokapen horrek onomastika hurrenkera errimesa dakarkio gogora, patronimoa izenaren akabailan jartzten dena, alegia.

6.2.2.4 *Tria nomina-k*

Gurean, IE etorkiko filiazioa atxiki zaion *tria nomina* bakarra dago, Gastiaingo *M(arcus) Iunius Paternus Cantabri f(ilius)* (NGaH3); ik. 4. mapa. Ikusten den bezala, filiazioa aitaren cognomenaren bidez jakinarazten da eta, *tria nomina*-ren molde kanonikoan ez bezala, onomastika segidaren hondarrean ezarrita dago (cognomenaren segidan). Hilarriak dekorazio aberatsa du: mahatsondo zutarrak, eguzkia, txoriak, pitxerrak...

6.2.2.5 *Eraketa eta osagai berezia daukaten bi epitafio*

Bukatzeko, aparteko eraketa eta osagaiak dituzten bi epitafio entzutetsu aipatu nahi ditut. Biak Araban dira, aztergai dugun epigrafia eremuaren periferian dauden herrietan, Lantziegon (Assan, ALnH1) eta Laudion (ALdH1), zehatz-mehatz.

Biek egitura bera dute: *nomen* G-Ea + *cognomen* IEa + *bi osagai* dituen *patronimo* «nahasia». Preseski, bi patronimoak osaketa berekoak dirateke: *cognomen* G-Ea + -o(m) bukaera duen izen IEa.

Iritzi zabaldia da Assakoaren hondar zatia (*Attesuclo*) ahaidetasun harremana azalerraten duen onimoa dela, baina, ikusiko dugunez (7.4 §), hipotesi horrek eragozpen larriak ditu. Laudiokoaren (*Licoiom*-en) kasuan ere badaude zenbait ikertzaile, Gorrotxategi (2015, 17. or.) adibidez, genonimoa delako aieruari (hizkuntza arloko) oztopoak antzematen dizkiotenak.

Ciprésék behin baino gehiagotan hartzen du ahotan Lantziegoko antroponimoa. Lehenik eta behin (2006, 111. or.), latinezko nomena (*[A]urelia*) duen gizabanako baten cognomina IEa dela azpimarratzen du, are aitak (*Flaccus*-ek) deizio G-Ea daukanean ere. Bartzelonako ikertzailea (2006, 116–117. or.) sinetsita dago patronimo hori, sortzez, cognomina dela. Filiazioa cognomenaren (*Bouti[a]-ren*) ostean ipintzen dela ere agerian ipintzen du.

Finean, Ciprésen (2006, 126. or.) ustea da *Boutia*-ren hilarritzak erromatarturiko gizarte indigena batera begirarazten duela, Penintsulako parte indoeuroparreko beste herrialde batzuetan (konparaziora, beroiengan) lekukotzen den berera.

Laudioko hilarrian haren ezarpenaren ardurari buruzko argitasunak ematen dira, *su[ae] mu(nimentum) pos(uit)* eta, gainera, *D M* formula dugu. Era berean, uste da Assakoan

f(aciendum) c(uravit) aditza zegoela irarrita. Hori ikusirik, ez dirudi biak eskuartean ditugunen artetik antzinakoenetakoak direnik (ik. 4.2 §).

6.3 Aldareak

Aldareetako zortzi (8) antroponimoei bagagozkie, erdiak osagai bakarra du (Guardia, AGuH1; Viana, NViA1; S. M. Unx [2], NSMA1, 2) eta beste erdiak bi (Rocaforte, NRoA1; Barbarin, NBaA1; Monteagudo, NMoA1; Eslaba, NEsA1). Ez dago hiru zatiko jende izena duenik, darabiltzagun aren artean. Kontuan har bedi gehienak aztertzen ari garen epigrafia eremuaren periferian daudela.

Elementu bakoitza dutenetatik hiru (eta, beharbada, laugarrena ere bai) jainko G-Eei eskainitako aldareetan dira.

Bi parte dauzkatenen artean batek bakarrik ditu IE jatorriko bi osagai (Rocafortekoak; jainkoa ere IEa da). Bi aletan nomena G-Ea da eta cognomena, berriz, euskal sailekoa (Barbarin; euskal jainkoa) edota IEekoa (Monteagudo). Beste kasu batean (Eslabakoan), alderantziz gertatzen da (jainko IEa).

Ez dago filiazioaren adierazpena duen adibiderik aretan diren laginen artean.

6.4 Hilarrietako antroponimoen egituren grafikoa, taula eta mapa




4. Grafikoa. Id.: idionimoa. f.: filiazioa. Ezezag.: ezezaguna. nom.: nomina. os.: osagai.

Osagai IEak dituzten antroponimoen eraketa hilarritzetan.

A	Praenom.	Nomena	Idionimoa / Cognomena	Filiazioa	Aleak
			Anna		19
d			[Seg]ontius	[Ab]loni f.	18
				Segoti f.	1
				Cantabri Tritai f.	1
i		Egitura	ezezaguna		2
		Elanus	Turaesamicio	Ambati f.	3
b	Osagai IEak bakarrik dituzten antroponimoak guztira:				44
		Annicius	Florus		4
i		Licin(ius)	Cant(a)ber		2
			Calaetus	Sereni f.	6
			Segontius	Ambati Vecti f.	1
d			[Su]ccessus	Doiter(i) [f.]	1
		Porcia	Ambata	Segonti f.	6
e		M(arcus)	Semp(ronius)	Elavi [f.]	2
	M(arcus)	Iunius	Paternus	Cantabri filius	1
		Oppia	Boutia	Patruini f.	3
a		[A]ureliae	Bouti[ae]	Flacci Attesuclo f.	2
	Elementu IEak eta G-Eak dauzkaten antroponimoak guztira:				28
k	Zati IEak nahiz IEak eta G-Eak dituzten jende izenak orotara:				72

1. Taula. Hilarrietako antroponimoen egiturak (enbor indoeuroparreko elementuak urdinez daude).



- *Id. IEa + f. IEa*; ▼ *Id. IEa + f. G-Ea*; ▲ *Id. G-Ea + f. IEa*.
 ● *Nom. G-Ea + cog. IEa + f. IEa*; ▼ *Nom. G-Ea + cog. G-Ea + f. IEa*.
 ▲ *Nom. G-Ea + cog. IEa + f. G-Ea*; ■ *Prae. G-Ea + nom. G-Ea + cog. G-Ea + f. IEa*.

Cog.: cognomena. *Prae.*: praenomena.

Formaren tamaina mostra kopuruaren arabera da. Adib.: Alaitza (1), Okariz (6).

4. Mapa. Filiazioa atxikita duten antroponimoen egiturak.

7. Adar indoeuroparreko izenen xehetasunak

7.1 Jatorki indoeuroparreko onimoen erakuskariak

Aztergaitzat darabiltzadan laurogei (80) pertsona izenetan, guztira, ehun eta berrogeita hemeretzi (159) zati ezberdin zenbat daitezke; jakina, asko errepikatuak. Izan ere, egotez, bestelako hirurogeita hemeretzi (79) onimo daude, berrogeita bost (45) enbor IEekoak eta hogeita hamalau (34) ondare G-Eekoak. Izen IEak ehun eta hamazazpi (117) aldiz azaltzen dira orotara eta G-Eak berrogeita bi (42) aldiz. Horrek esan nahi du IEak, batez beste, 2,6 aldiz errepikatzen direla eta GEak, berriz, 1,23 aldiz.

Ñabarduretan sartuz gero, hamahiru (13) deizio IEen artean (% 29) hirurogeita hamasei (76) mostra edo agerraldi batzen dituzte (% 65), bestela esanda, horietako bakoitza ia sei aldiz dokumentatzen da, batez beste. Hauek dira izen IE jorienak: *Segontius* (*Segotius*, *Segontiecus/a*, *Secontiecus...*) (16 [aldiz ageri da]), *Ambatus/a* (*Ambaicus...*) (16), *Turesamus* (*Turesica*, *Turaesamicio...*) (6), *[E]lasus* (*Elauus*, *Elanus...*) (5), *An(n)a* (*Anica*, *Annicius...*) (5), *Aun(n)ia* (4), *Cantaber* (4), *Tritaus* (*Tritaiecus...*) (4), *Araus/a* (*Ara(i)ca...*) (4), *Calaetus* (3), *Ablonius* (3), *Coema* (*Coemia...*) (3), *Doiterus* (*Doitema...*) (3). Lagina hamazazpi (17) onimo IEera zabalduz gero (% 38), hau da, *Licira* (2), *Boutia* (2), *[A]meanus* (*A[m]eaicus*) (2), eta *[Reb]urrus* (*[Reb]urrinus*) (2) kontatuz gero, laurogeita lau (84) erakuskari metatzen dituzte (% 72). Kontuak horrela aterata, bakoitza ia bost aldiz lekukotuko litzateke, batez beste. Beste muturrean, hogeita zortzi (28) elementu IE (% 62) behin bakarrik irakurtzen dira (lekukotasun guztien % 24).

Arlo IEeko osagaiak, oro har, G-Eekoak baino gehiago berritzen dira, beraz, eta lehenbiziko horien artean badaude, era nabarmenean, besteak baino gehiago baliatzen diren batzuk.

7.2 Jende izenak eratzeko gehien erabiltzen diren indoeuropar saileko deizioak

Goian aurreratu dudan moduan, azpiatal honetan bildutako hamahiru (13) zati IEetako bakoitza, batez beste, ia sei aldiz errepikatzen da. Hirurogeita hamasei (76) aztarren batzen dituzte guztira (ik. 5. grafikoa).

Segontius

Segontius (10) ([*Se*]gontis(?), *Segotius*) eta haren eratorri *Segontiecus* (2) / *Seg[onti]eca* (*Secontiecus*) dira—*Ambatus/a*-rekin batera—ikergaitako dudan eremuko antroponimian gehien leitzen direnak; hamasei (16) aldiz, hain zuzen (AAgH1, AAlH2, ABeH1, AEgH2, AIrH5 [2], AKoH7, AOcH5 [2], AOcH6, AOcH7, AOcH8, NGaH4, NGaH5, NOIH1, NZuH1).

Hiru multzo nagusietan (Donemiliaga, Lokiz nahiz Toloño aldean) eta Iruña Okan dokumentatzen da, zehazki zazpi herritan (Okariz [6], Iruña Oka [2], Gastiain [2], Alaitza, Kontrasta, Zuñiga eta Bernedon). Esan beharrekoa da Iruña Okako *Ve[ntius]* [*Sego*]ntius [*Segon*]ti f. (AIrH5) zalantzakoa dela, bistakoa denez, hizki gutxi gorde baitira, oso.

Hesperia datu basean biltzen denez⁷, Penintsularen sartaldeko epigrafian bada *Segont-* oinarria duten jende izenen aztarnarik. Portugalen, esaterako, Três Minas-en (Vila Pouca de Aguiar [Vila Real]; Ourensetik ez oso urruti) eta Idanha-a-Velha-n (Idanha-a-Nova [Castelo Branco], Cácerestik gertu) jasota dago. Cáceresen (Oliva de Plasencian) eta Salamancan ere (Yecla de Yeltes-en) badaude mostrak (*Segontius Talaui f. Talabonicum*; Hesp. Onom.4037).

Euskal Herritik hurbilago, Estolloko (Donemiliaga Kukula ondoko [Errioxako]) erakuskaria dugu. Ildo berean, badaude *Secont-* aldaeraren bi adibide Burgosen, Lara de los Infantesen eta Beloradon (*Moenio Messori Seconti*, Hesp. Onom.3203; *Secontio Eburen[i]q(um) Ambati f.*, Hesp. Onom.4001).

Bestalde, Botorritako III. brontzean **sekontios** idionimoa edo izen bakarra lau aldiz irarrita dago.

Hala Zeltiberian nola Penintsulako sartaldean lekukoturiko deizio baten aurrean gaude, baina ematen du indargune edo foku nagusia Euskal Herrian dela (16 mostra). Hain zuzen, *-ecus/a* berrekailuarekin (*-i + -icus → -i-ecus*) hornitutako eratorriak Araban baizik ez dira kausitu, gaurdaino.

Ciprésen (2006, 93, 124. or.) irudiko, lege estatusaren (*seruus, libertus*) adierazpen agerikorik ez dagoen arren, Aguraingo *Segontius*-en aita (AAgH1), *Ianuarius*, jopu jatorrikoa zatekeen.

Okarizko mostrak interesgarriak dira, itxura batean, paraje hartan bi *Segontiecus/Secon[ti]cus* zeudela iradokitzen baitute: *Seco[ntius]*-en semea bata (AOcH5), *Ablonius*-ena bestea (AOcH6). Herri hartan berean, bi *Segontius* zeuden, bat *Seg[o]ntiecus*-en semea

⁷ Atal honetan erabilitako gainerako erreferentziak ere iturri horretatik eskuratutakoak dira.

(AOKH8) eta bestea *Ablonius*-ena (AOKH7). Hori ikusita, pentsa daiteke *Ablonius*-ek, apika, *Secontius* eta *Secon[tie]cus* izena zuten bi seme zeuzkala, baina argitu beharra dago bi hilarriek oso bestelako kuntza dutela. Iruña Okan bazen, segur aski, *[Segon]tius*-en oinordea zen *Ve[tlius] Se[gontius]* bat (AlrH5) ere.

Beraz, bada, hiru harreman (oinordetza) mota dituzkegu, nolabait esan, aita-se-meen izenei erreparatzen bazaie: *Seco[ntius]* (aita) $\rightarrow$ *Secon[tie]cus* (semea); $X \rightarrow$ *Secon[tie]cus*, *Segontius*; *[Segon]tius* $\rightarrow$ *Ve[tlius] Segontius*.

Nabarmentzekoa da *Secon[tie]cus* *Seco[ntius]* f. antroponimoa (AOKH5), bokal erdikoan arteko herskari belar ahoskabearengatik. Ezaugarri hori bera duten beste hiru lekukotasun badaude EHTik kanpo, Lara de los Infantes eta Beloradon (2), hain justu.

Ambatus [Vectus]-en aitzinetik idionimoa da (Kontrasta; AOKH7) eta, aitzitik, patronimo eginkizuna betetzen du *[Li]cira* (Egilatz; AEgH2), *Ablonius* (Okariz [2]; AOKH6, 7) nahiz *Aunia*-ri lotuta (Gastiainen; NGaH4). Ohart bedi «uztar-lagun» horiek guztiak sustrai IEekoak direla eta Donemiliaga eta Lokizko multzoetako beste jende izen batzuetan ageri direla. Elementu G-Eekin ere elkartu da, *Ianuari*-rekin (Agurain; AAgH1) izen bakar moduan eta *Minicia Aunia* zein *Porcia Amabata*-rekin (Gastiainen, NGaH5) patronimo eran. Ez nuke guztiz baztertuko azken biak ahaideak (ahizpak?) izatea.

Lehendik jakina daukagu *Segontius*-en **segh-* ('garaitu') erroitik eratorritako **segho* (> *sego-* 'garaipena') hitz-oina dugula, *-nt-* atzizkia atxiki zaiona. Adiera 'garailea' dateke, horrenbestez (ik. Zaldúa, 2016, 198-199. or.). Hitzak hizpidea ekarrita, diodan, Ptolomeoren (II, 6. 65) (kokapen ezezaguneko) *Segontia Paramica* hiri barduliarraren aipamenaz gainera, Gipuzkoan badirela *Zegama* izen nagusia (ik. Salaberri & Zaldúa, 2019, 329-332. or.) eta *Zegondia* mikrotoponimoa (*Çegondia*, 1512, Zestoa; Ayerbe & Elorza, 2008, 232. or.).

Munta handiko izena da gurean, Botorritako III. brontzean grabatuta egoteaz gainera, mostra kopuruarengatik eta hiru multzo nagusiei (batez ere Donemiliagakoari eta Lokizkoari) batasuna eta nortasuna ematen dielako.

Ambatus/a

Ambatus (10)/*Ambata* (5) eta *Ambaicus* oinordea, *Segontius* bezala, joriak dira, oso, Euskal Herrian (AAAnH1, ADuH1, AEgH1, AlrH3, AlrH4, AKoH2, AKoH3, AKoH7, ASaH1, AUrH1, NGaH2, NGaH5, NGaH6, NMaH2, NMaH3, NMeH1).

Hamasei (16) erakuskariak hamar (10) herritakoak dira: Urabain, Durruma (2), Egilatz, Iruña Oka (2), Gastiain (3), Kontrasta (3), Marañón, Angostina, Mendigorria eta

Saratsukoak, zehazkiro. Zabalpen handiko izena da, ondorioz, hiru multzo nagusietan eta haietatik kanpo idoro delako.

Alde batera, ez da harritzeko, Iberiar penintsulako onomastikan usu erabili delako. Diodanaren lekuko, badaude laginak Portugal (3), Galizia (1), León (5), Asturias (3), Extremadura (10), Salamanca (10), Zamora (5), Toledo (3), Ávila (5), Kantabria (2) eta Valentzian (2). Nolanahi ere den, indargune nagusia Burgosen dago (39), Lara de los Infantesen (18); Beloradon (8) eta Peñalba de Castron ere kausitu dira laginak. Haatik, ez da Botorritan leitzen.

Buruenik, *Anbaticum/Ambaticorum* (ahaidetasun) harreman izenaren hiru adibide daude Hispanian: *Ambati Pentouieci Ambatiq. Pentoui f.* (S; Hesp. Onom.720), *Ata Ambaticorum Hirni f.* (Candeleda, AV; Hesp. Onom.1127) eta *Vernaculus Ambatic(um) Modesti f.* [---] (Candeleda, AV; Hesp. Onom.4695).

Iruña Okan (AIrH4) *Ambaici f.* (gen.) patronimoa dugu (ez **Ambatici f.*; cfr. Candeledako laginak), beste inon dokumentatzen ez dena. Kontuan har semeak (*Munatius Fuscus*-ek), aitak ez bezala, latinezko izenak zituela; Kontrastako *Am[ba]-tus Serani f.* antroponimoan alderantzizkoa gertatzen da (AKoH2). Bada *Seranus* cognomenaren etsenplua Mendigorriko idazkun batean. Aurrekoak bezala, onomastika nahasia du bigarren jende izen honek ere, baina kasu honetan ohikoa ez den *izen bakar IEa + aitaren izen G-Ea + f.* hurrenkera du, horratik (cfr. Ciprés, 2006, 90-91. or.).

Deizio IEei estekatuta, idionimo (*[A]rauus*; Urabain, AUrH1), nomen (*Viro[us]*; Gastiain, NGaH2) zein patronimotako erabili da (*Segontius*, Kontrasta, AKoH7; *Doitena*, *Doiteru[s]*, Marañón, NMaH2, 3). Preseski, herri bereko *Doiteru[s]* [- -]do eta *Doitena* gizon-enakumeei, filiazioa adierazteko, *Ambati f.* eta *Ambati Celti f.* onimoak atxiki zizkieten. Hala berean, aitaren izena jakitera ematen du (Iruña Okan) *Elanus Turaesamicio-ri* gehituta (AIrH3).

G-E etorkiko elementuekin batera, idionimo gisa (*Seranus*, *Appa*, Kontrasta, AKoH2, 3) eta nomen (*Porcia*, Gastiain, NGaH5; *Matern[us]*, Mendigorria, NMeH1) nahiz patronimo moduan dokumentatzen da (*Munatius Fuscus*, Iruña Oka, AIrH4).

Kontrastan *Vectus* izenondoa du aldamenean (AKoH7), Albertosen (1970, 141. or.) aburuz, Galian eta Pirinioez haraindiko beste eskualde zeltikoetan aski ezaguna bide dena.

Marcok (1979, 223. or.) –Untermannen (1965, 6. mapa) oinatzetan– dio hartzen duen esparrua bat datorrela ia erabat ahaidetasun harremana azaleratzen duten izenenenarekin; Euskal Herrian, baina, ez da hori gertatzen.

Ambactus ('zerbitzari, morroi') galiarraren familiakoa da, antza, hura bezala **ambaxto* proto-zeltatik letorkeena (Matasovic, 2009, 32. or.).

Turesamus

Turesamus-en ([T]uraesamu[s], [Turae]sam[us], [Tur]usam[us]?), *Turaesamicio*-ren eta *Turesica*-ren sei lekukotasunak (AAlH1 [2], ADuH2, AIrH3, AKoH8, AOOkH1) Arabako bost herritan daude, gehienak *Iter XXXIV*-aren ondoan direnetan (Durruma, Okariz (2), Alaitza, Iruña Okan) eta bat Lokiz aldean (Kontrastan); ik. 17. argk.

Hispaniako hilarrietan badira *Turaes*- erroaren arrasto gehiago, baina *-amo/a* berrekailu superlatiboarekin hornitua Euskal Herrian baizik ez da ediren gaur arte. Esate baterako, Cifuentesen (GU [Zeltiberian]) *Turaesius Letondicum Marsi* f. antroponimoa dugu (Hesp. Onom.4547). Gainerako agerraldiak, hiru zehazkiro, Cácereskoak dira: *Severa Turaesi* f. (Trujillo; Hesp. Onom.4099), *Turaesio Turcaudi* f. (Abertura; Hesp. Onom.4546), *Acira Tu[r](a)esia* (Logrosán; Hesp. Onom.5048).

Beste alde batetik, *Turaius*-en mostrak ditugu Rabanales (ZA), Villalcampo (ZA) (2), Castro de Avelãs (BRA), Hinojosa de Duero (SA), Yecla de Yeltes (SA), Plasencia (CC), Astorga (LE) eta Barcina de los Montes-en (BU). Botorritako III. brontzean **turaio**s izena leitu daiteke, halaber.

IE adarreko izenenekin uztartu da aldi oro. Idionimoa da *Cantaber*-en (Kontrasta, AKoH8) eta *[Trit]aiecus*-en (Okariz, AOOkH1) altzoan, eta cognomena, berriz, *Elanus* eta *Ambatus*-en artean (Iruña Oka; AIrH3).

Azpinarratzekoa da Alaitzako (Luzkandoko) *Turesamus*-en alabak ez duela –espero zitekeen eran– **Turesamica* izena, *Turesica* baizik. Era berean, *Turaesamicio* eta *[Tur]usam[us]* ditugu, ez **Turaesamicius* zein **[Tur]aesam[us]* Iruña Okan (AIrH3) eta Durruman (ADuH2), hurrenez hurren.

Donemiliaga aldea Iruña Okarekin eta Lokiz inguruarekin batzeaz gainera, naroak diren izen batzuk batez ere eremu edo gunek jakinetan loratzen direla gogorarazten du onimo honek eta ez, *Ambatus/a* bezala, han-hemenka. *Turesamus* eta *Turesica* formak, biak ala biak, hemengo multzoaren nortasunaren alde mintzo dira.

Albertosek (1970, 143. or.) *Tur*- (← **turos*, «indartsua») erroa dakusa, hau da, Arabako *Turesamus*-en adiera «indartsuena», «oso indartsua»-edo litzatekeela oldozten du.

Behinola, Iruña Okako irudimenezko **Turaesamicio[n]* genonimotzat hartzen zen (ik., adibidez, Albertos 1970, 141. or. nahiz González Rodríguez, 1984, 220. or.), baina, egun, ez. Hemen, besteak beste, ondo dator gogoratzea, Ciprèsek (2018, 47. or.) azpinarratu bezala, idazkun hori (AIrH3) kontu handiz erabili beharrekoa dela.

Toponimiari erreparatuz gero, Salaberrik (2015, 363. or.), Lantarongo *Turiso* herri izenaz ihardukitzean, diosku Luzkandoko (Alaitzako, AAIH1) *Turesica Turesami f(ilia)*-ren lehen osagaiak (-ica atzizkia ezabatzen badugu) *Turesius*-en funtsatua dirudiela eta deizio horrek toponimoaren antz foniko ukaezina duela. Dena den, Uxueko maisuak argitzen du lehen testigantzetan (XI. eta XII. m.) leku izenak *Tör*- duela hasmentan, ez *Tur*-, agian bokal labur belarraren irekieragatik.



17. Argazkia. Alaitzako (Luzkandoko) *Turesica Turesami f.-ren* estela (AAIH1). Bibat Museoa.

Ela-

Hurrengo azaotxo nabarra da. Hasieran *Ela*- segida dutenez ari naiz: *[E]llasus*, *Elaus*, *Elanio*, *Elanus*, *E(l)andus(?)* (ADuH3 (2), AIrH3, AOoH4, NZuH1); ik. 18. argk. Ikusten den bezala, bost lakinak lau herritakoak dira (Durruma [2], Okariz, Iruña Oka, Zuñiga) eta *Turaesamus*-en antzeko banaketa du.

Elaesus (ez *Elasus*) joria da Iberiar penintsulan (22 erakuskari guztira). Bragançan, Leónen, Zamoran eta Salamancan badira aztarrenak. Adibidea jartzearen, Pitillasek (2006, 31-35. or.) Saguntoko hilarri bateko (K.o. I. m.) *Elaesus Coelonis f. ala III asturum turma...* inskripzioa ahotan hartzen du asturren eta galaikoen herrialdeetako soldadu laguntzaileen deizioak xehatzen dituen artikuluan.

Halaber, Paredes de Navan (P) eta Lara de los Infantesen (Zeltiberian) *Elaiscum* (Hesperia Onom.215) eta *Elaesisc(um)* (HE 25776) genonimoen arrastoak aurkitu dira, hurrenez hurren. *Lara de los Infantesen* bertan *Elaesus*-en lau lagin badaude.

Elauus-i dagokionez, hiru etsenpluak Portugalgoak dira (Bragança eta Castelo Brancokoak).

Bestetik, *Elan(i)us*, *Elanio* (*Elanicus*, *Elanianum*) ugari samarra da Penintsulan. Izan ere, Portugal, León (4), Salamanca, Zamora, Valladolid eta Asturiasen badira erakusgarriak. Era berean, Zeltiberian *[El]anio Cili* (Burgo de Osma, SO; Hesp. Onom.2356) eta *Arcea Elanioca Paterni f.* (Lara de los Infantes, Hesp. Onom.1006) antroponimoak ditugu. Daitekeena da azkenaren bigarren osagaia (cognomena), sortzez, genonimoa izatea.

Zeramika eta brontze gainean egindako zenbait inskripzioetan ere ageri da *Ela*-segida. Lehenengo eta behin, Vianako ontzi batean **elanou** (*elanos*) jende izena dugu (Hesp. NA.01.10) eta, ildo beretik, Botorritako III. brontzean **elaukos bentikum ro-tenanko** sekuentzia ikus daiteke. Oroit bedi, buruenik, Ascoliko brontzean *Segia*-ko (Ejea de los Caballerozeko) *Elandus Enneges* zalduna aipatzen dela.

Izen IEen ondoan, no-men moduan (*Turaesamicio*, *Ambatus*; Iruña Oka, AIrH3) eta patronimo bezala (*[Se]gontis(?)*; Zuñiga, NZuH1) dokumentatzen da. Durrumako *[E]lasus* [--- / ---] *E-(l)andi(?) f.* azpimarratu nahi dut (ADuH3), gorde diren bi osagaiak leinu eta erro berekoak direlako (*Ela*-). Okarizko (AOkH4) *M(ar-cus) Semp(ronius) Elaui* [f]-ren lehenbiziko bi elementuak, baina, G-E sustraikoak dira eta, jakina, ez dute zerikusirik hondarrekoarekin.

Ela- duten deizioak *Iter* XXXIV-ko eta Lokiz aldeko multzoen arteko loturaren alde mintzo zaizkigu.



18. Argazkia. Zuñigako *Elanio* *[Se]gontis(?) f.-en hilaria* (NZuH1).

Berebat, Lara de los Infantes aintzat hartu beharreko erreferentzia dela sinalatzen dute. Gorago esan dudanez, *Lara de los Infantesen*, bada *Sergontius*, *Ambatus/a* eta *Turaesamus*-en adibiderik.

Albertosek (1970, 134. or.) *Elanus*, **eln-*, **elani* ('oreina') IEarekin alderatzen du eta *Elauus* horren gainean (beste berrekailu batekin) eratutako aldaera izan litekeela iradokitzen. Ideia hori indartzeko, Okarizko hiliarri batean (AOKH4) oreina irarrita dagoela gogorarazten du. Aurrerago, **El-* sustraia animalien eta zuhaitzen deizioak eratzeko erabili dela eta horietako batzuk, gero, pertsonak izendatu dituztela diosku Leóngo irakasleak.

Salaberriren (2015, 165 or.) arauaz, daitekeena da Gasteizko *Ehari* herri izenak jatorri antroponimikoa izatea, hau da, azpian *Elanus* egotea (*[uilla] *Elani*, 'Elanoren jabetza'). Bizkaiko *Erandio* toponimo nagusia ere sail berekoa izan daitekeelakoan da Uxueko irakaslea, **Elande*-tik ateratakoa hura (ahozko adierazpena).

An(n)a

Anna (2)/*Ana* eta *Anica* nahiz balizko *Annicus* (Hesperian [---*Mi*]*nicus*) oinordeen bost arrastoak hiru multzo nagusietako lau herritan aurkitutakoak dira; Durruman, Kontrastan (2), Aguilar Kodesen eta Marañoñen (ADuH4, AKoH4 [2], NAKH1), hain justu.

An(n)a joria da Penintsulan, besteak beste, Portugal (BRA, Miranda do Douro), Cáceres, Sevilla (Alcalá del Río), Zamora, Palentzia, Ávila (2), Segovia, Salamanca eta Santanderren dokumentatzen baita. Errioxan (Herramellurin) eta Burgosen ere ageri da, Monasterio de Rodillan (*Iter XXXIV*-aren ondoan) eta Peñalba de Castrom agertu ere.

Botorritako III. brontzean bada **ana uerzaizokum atu** onomastika segida eta, ildo beretik, II.ean *Segilus Lubbus Annicum* antroponimoa irakur daiteke.

An(n)icius/a-z denaz bezainbatean, ezagutzen ditudan bi etsenpluak Portugalen dira, São Joao de Campo-n (Terras de Bouro-n) eta Pias-en (Serpan-en).

Bakarrik (3) azaltzen ez denean, elementu GEekin (nomentzat) uztartua dago beti. Preseski, Kontrastan *Annicus Florus* eta *Anica Flori ancilla* daude grabatuta epitafio berean (AKoH4), baina bi pertsona horien arteko harremana ez dago guztiz garbi. Uste izatekoa da *Annicus Florus*, *Anica*-ren nagusia zela. Kontuan har bedi jopuaren izenean *Florus* besterik ez dela aipatzen, alegia, Cipréssek (2006, 116. or.) esan bezala, badirudi cognomenak identifikatzen duela «jabea».

Penintsulan (Zeltiberia barne) arras zabaldua dagoen izenaz ari gara. Euskal Herrian, IE endako laginak dauden hiru multzo nagusien arteko loturaren berri ematen du, bestalde.

Salaberrik (2015, 340. or.) Arabako *Añana* herri izenaren pean, menturaz, *Annius* dagoela idazten du eta **(uilla) anniana*-tik euskaraz **Aniāhā* atera dela zehazten, *Añana*-ren eta Jungituko *Ania* herri hustuaren sorburua, alegia. Nolanahi ere, *Añana*-ren kasuan, *Anna* jende izenean funtsatuz, **(uilla) annana*-tik ere abia gintezkeela argitzen du.

Aun(n)ia

Aunia (3)/*Aunnia* emakumezkoaren lau laginak beste hainbeste herritan dira: Laudion, Iruña Okan, Ilarduian eta Gastiainen (AIIH2, AIIH2, ALdH1, NGaH4). Lehenbizikoa izan ezik, beste hirurak sorta edo multzo garrantzitsuenen eremuen barruan daude, ikusten denez.

Euskal Herritik kanpo *Aunia* oso zabalduta dago, <n> bakarrarekin idatzita betiere. Portugalen badaude bost testigantza, Quintela de Lapaças-en (BRA), Idanha-a-Velha (2), São Vicente da Beira-n (Castelo Branco) eta Vila Viçosa-n (Castelo Branco), zehatz-mehatz. Cáceresen beste hainbeste adibide daude eta Zamoran (3), Palentzian nahiz Badajozen ere mostrak idoro dira.

Zeltiberiari dagokionez, Lara de los Infantesko eta Navalcaballoso (SO) bi hiliarritan leitu daiteke eta, berebat, Botorritako III. brontzean **aunia** **beskokum** segida dugu.

IE jatorriko izenekin batera, idionimotako erabili da (*Ara*, Ilarduia, AIIH2) eta G-E sustraikoekin, berriz, nomen (*Secundiana*, Iruña Oka, AIIH2) eta cognomen moduan (*Minicia*, Gastiain [NGaH4]; *Se(mpronia)*, Laudio [ALdH1]). Bide batez, diodan Iruña Okako oroitarrian bi busto daudela zizelkatuta.

Motzean esanda, Zeltiberian (Botorritan eta Lara de los Infantesen) agertuagatik, badirudi honen indargune nagusia (sorburua?) Penintsulako sartaldean dagoela.

Cantaber

Izen etniko honen lau erakuskariak Iruña Oka, Kontrasta (2) eta Gastiainen aurkitutakoak dira (AIIH6, AKoH6, AKoH8, NGaH3); ik. 19. argk.

Ez da izen joria Iberiar penintsulan. Collado Villalba (Madrilen) *Cantaber Elguismiq Luci filiis* antroponimoa dugu (Hesp. Onom.1773) eta Segovian nahiz Poza de la Sal-en (BU) [---] *Cantabr<e>cum* (Hesp. Onom.284) eta *Cantabregun* (Hesp. Onom.249) genonimoen urratsak badaude, hurrenez hurren. Botorritan ez dago honen arrastorik.

Hispaniatik kanpo, *Cantaber Viroti f.*-en epitafioa kausitu zuten Magunzian (Germania Garaian) 19. gizaldiaren amaieran (EDH HD056254).

Hiru etsenplutan filiazioa adierazten du. Hain justu, herri berean (Kontrastan, AKoH6, 8) *Cantabri Tritai f.* eta *Cantabri f.* patronimoak ditugu, apika, bi *Cantaber* zeude-

lako seinale. Gastiainen ere aitaren izenaren berri ematen du NGaH3), baina, Kontrastan ez bezala ([T]ur^{ae}amu[s]), aitzinetik (M(arcus) Iunius Paternus) tria nomina du.

Tritaus

Tritaus (3) eta *Tritaeicus*-en hiruzpalau mostrak (NOIH1?, AO_KH1, AO_KH3, AO_KH6) Donemiliagako eta Lokizko multzoetako hiru herritakoak dira, Olatzagutia, Okariz (2) eta Kontrastakoak; ik. 19. argk.

Valladoliden (Venta del Moron) zein Astorgan badira *Trita*-ren agerraldiak. Orobat, *Tritalicus* eta *Tritalicum* (gentilitateak) dokumentatzen dira Astorgan (*Iter XXXIV*-ean) eta San Esteban de Gormázen (Zeltiberian): *Proculus Tritalicum* L. f. (Hesp. Onom.3615); *L. Tritalicu[s] Attonis Flau* f. (Hesp. Onom.4506); [L(ucius)] *Tritalicum Atto[nis F]lauri [f(ilius)]* (Hesp. Onom.4963).

Botorritako III. brontzean ez dago *Tri*- segidaren adibiderik, baina **tirtanos** (2), **tirtunos** (3), **tirtanikum** (2), **tirtobolokum** (4), **tirtukue** nahiz **tirilokum**, **tiriu** eta **tirikantanko** formak irakur daitezke. Era berean, Botorritako I. brontzeko lehenbiziko hitza **tirikantam** (toponimoa?) da.



19. Argazkia. Kontrastako Elizmendiko Andre Maria-ren ermitako Cantabri Tritai f.-en hilarria (AO_KH6).

[Cal]aetus (Okariz, AO_KH3), [Tur^{ae}]sam(us) (Okariz, AO_KH8) eta Cantaber (Kontrasta, AO_KH6) uztarlagun IEei lotuta azaltzen da, betiere filiazioa adierazteko. Ez da sustrai G-Eeko osagaiei atxikita ageri.

Okarizen *Tritaus* eta enbor bereko [Trit]aeicus oinordea ditugu (← *Tritai*- + *-icus*), hori bai, epigrafe ezberdinetan (AO_KH1, 3).

Albertosen (1970, 140-141. or.) aburuz, *Tritaius*-ek zenbaki batean du sorburua (cf. *Tertius*, *Tertionus* latinezkoak). Numeroen erabilera ohikoa omen zen, antza, antzinateko antroponimian, batzuetan familia nardoetako seme-alabak jaiotza ordenaren arabera izendatzen baitziren. Aurrerago esaten du Hispanian, sarritan, *Tirt* formaren pean «hiru»

zenbakia dagoela; *Ti.r.ta.n.o.s* (Eivissa; signario paleohispaniarrean idatzia) eta *Tirtalicom* (Cabeza del Griego [behinolako Segobriga]; genonimoa) jartzen ditu adibide moduan.

Donemiliaga aldea Lokiz inguruarekin batzeaz gainera, jori samarrak diren izen batzuk batez ere gun e jakinetan (ez alderdi guztietan) metatzen direla gogorarazten du.

Araus/a

Araus/Ara eta *Ara(i)ca* eratorriaren lau lagin dauzkagu guztira hemen (AIIH2, AKoH5 (2), NEsA1), hain justu, Ilarduian (Donemiliaga aldean), Kontrastan (2) eta Eslaban. *Araus* diot, eta ez *Araius*, bigarrenaren aitzinean bageunde **Araieca* baikenuke seguruenera, eta ez *Araica* (cfr. *Segontiecus/a*, *Tritaiecus*; *Aliono Areieco Camali f.*, Belorado, Hesp. Onom.580).

Hispaniako ipar-sartaldean bost erakuskari daude: *Araus Ablecaenus* (Astorga, LE; *Iter XXXIV*-an [Hesp. Onom.984]), *Etin(ius) Araus* (Baltezana, S [Hesp. Onom.985], *Araus [---]alus* (León? [Hesp. Onom.986], *Araus* (Vega de Riacos, P [Hesp. Onom.987]. Beste alde batetik, **araiokum** ahaidetasun harreman izena lautan irarrita dago Botorritako III. brontzean.

Sail IEeko deizioei lotuta, cognomen moduan (*Aunia*, Ilarduia, AIIH2) eta G-Eekin, nomen gisa (*Marcella*, Eslaba, NEsA1) baliatu da. Kontrastako inskripzioa (AKoH5) ereduizkoa da, *Araus*-en alabak *Araica* izena baitzuen. (cfr. Eslabako *Araca*); ik. 14. argk.

Salaberrik (2015, 82-83. or.) pentsatzen du Asparreneko *Araia* herri izena Kontrastako *Araica Arai f(ilia)* inskripzioko *Araius*-ekin lotua egon daitekeela, baina, era berean, ohartarazten du *(uilla) *araiana*-tik abiatu ordez, zuzenagoa dela oinarritako menturazko **Haraius* hartzea. Ez du baztertzen Trebiñuko *Araiko*-k etorki bertsua izatea. Nafarroan *Araitz* toponimoa badela ere oroitarazten du Uxueko onomastikiariak (Salaberri, 2015, 83. or.).

Ablonius

Honen hiru laginak (AIIH1, AOOkH6, AOOkH7) Donemiliaga aldeko herrietakoak dira (Ilarduiaikoak eta Okarizkoak [2]).

Hispanian, Badajozko (*Ablonios*, Higuera la Real; Hesp. Onom.4932), Leóngo (*Ablonnio Taurino Doideri f. Vad(iniensi)*, Armada [Hesp. Onom.373]) eta Palentziako (*Ablo[nn]o Fab[i] f.*, Baños de Cerrato; Hesp. Onom.372) hiru oroitarritan aurki daiteke.

Botorritako I. brontzean **abulu ubokum** nahiz **letontu esokum abulos bintis** onomastika segidak ditugu, esaterako, eta, era berean, hor dago Andeloko mosaiko

entzutetsuko **likine abulo^{ra}une**. Botorritako II. brontzean, berriz, *Ablo Lubbus Tindilicum* zein *Babbus Ablo Bolgondiscum* jende izenak idatzita daude.

Okarizen IE jatorriko [*Segon*]tius (AOKH7) eta *Segontiecus*-ekin (AOKH6) batera erabiltzen da, bi kasuetan filiazioa adierazteko. Hipotesi bat da pentsatzea anaiak zirela, *Ablonius*-en semeak biak. Bide batez, zehaztu dezadan Ilarduiko *Ablonius* (AIIH1) *Licira*-ren morroia edo jopua (*seruus*) zela.

Ablonius-ek Donemiliagako multzoaren nortasuna azaleratzen du, neurri batean behintzat. Euskal Herriaz kanpoko mostrei erreparatuz gero, agerikoa da, hau bezala, zenbait izen Penintsulako sartaldean nahiz Zeltiberian (Botorritan), bietan, nahiko ezagunak direla.

Albertosek (1970, 125. or.), **apelo*- sustrai IEarekin lotzen du ('indarra'; 'ahala, boterea').

Calaetus

Hiru testigantzetatik (NEAH1, AOKH3, NOTH1) bi *Iter XXXIV*-aren ondoan kausitutakoak dira (Etxarri Aranatzek eta Okarizen); bestea, ordea, Oteitzan aurkitu zuten, denbora joanetako *Andelo* hiritik gertu, horrenbestez.

Portugalen lau erakuskari kontu daitezke, Idanha-a-Velhan (*Calaetus Boutius*; Idanha-a-Nova, Cáceres ondoan [Hesp. Onom.1650]) (2), Bragançan eta Cárquer-en (Resenden) kontatu ere. Hala berean, Cáceres aldean hiru mostra zerrenda daitezke, *Calaetius* bat tartean. Astorgan *Laturo Claet. f.* antroponimoa dokumentatzen da (Hesp. Onom.2793) eta, bestalde, Burgosen ere badaude bi lakin, bata Euskal Herritik aski gertu (Barcina de los Montesek); alabaina, bestea ez da hain hurbil (Lara de los Infantesek). Avilan *Calaet(i)cum* (1)/*Calaeti(um)* (2) genonimoaren bi aztarren badira (Hesp. Onom.114, Onom.3601 eta Onom.3245).

Botorritako III. brontzean **kalaitos** (4) idionimoa eta **kalatokum** (3) ahaidetasun harreman talde izena sarri samar ikus daitezke. Hari beretik, diodan Peñalba de Villastar-en (Teruelen) *Calaitos* forma harrian (hirutan) irarrita zegoela.

Buruenik, Austrian bada *Daeipora Calaetus* libertaren hilartitza (EDH HD020138).

Jatorki IEeko *Tritai f.* (Okariz, AOKH3) eta *Equesi f.* (Oteitza, NOTH1) patronimoekin ez ezik, G-E saileko *Sereni f.*-ekin uztartu da (Etxarri Aranatzek, NEAH1). Hiru kasuetan idionimoa da, hortaz.

Etxarri Aranatz eta Okariz *Iter XXXIV*-aren alboan zeuden, baina, bistan denez, Oteitza ez; Andeloko bidea igarotzen zen handik, idoro diren miliarioek frogatzen dutenez.

Marcok (1979, 224. or.) diosku azpian *kal*- ('gogor') erro IEa dagoela.

Coem(i)a

Honen hiru aztarna daude Euskal Herrian, Aguilar Kodesen (NAKH2) bata, San Martin Unxen beste biak (NSMA1, 2).

Cáceresen (*Coema* [2]) eta Pontevedran (*Coemia*) badira hiru lekukotasun, baina ematen du sorburua ez dagoela paraje haietan, Zeltiberian baizik. Izan ere, hamar aldiz ageri da Burgosen (*Coemea*), Lara de los Infantesen (7) eta Peñalba de Castro aldean. Lehenbizikoan badaude *Ancoema*-ren hiru lagin. Honek ere zenbait izen Zeltiberiatik (sortaldera ez ezen) sartaldera igaro zirela iradokitzen du.

Aguilar Kodesen *Oppia* nomena osatzen duen cognomena da.

Castillok (1977, 129. or.) azpimarratzen du onomastika indigenaren (IEaren) eta erromatarraren nahasketa edo urardotzea aitzinatu samarra zegoenean, zenbait aldiz, filiazioa aitaren latinezko cognomenaren bidez ematen zela, Aguilar Kodesko *Oppia Coemia Frontonis filia*) eta *Oppia Boutia Patruini filia*) segidetan bezala, alegia.


García Ariza (1991, 216. or.) IE jatorkiko **Coimos*-ekin ('maitatua'-rekin) zerikusia duelakoan da.

Doiterus, Doitena

Doiterus (2) gizonezkoaren eta *Doitena* emakumezkoaren hiru adibideak (NMaH2, NMaH3 [2]) Toloño aldeko multzoan (Marañónen) kausiturikoak dira; ik. 20. argk. Hango taldearen nortasunaz hitz egiten du, beraz, onimo honek.

Leónen *Doiderus*-en arrasto ugari dago (8), tartean Armadako *Virono Taur[ino]*(-) *Doideri f. Vad(iniensi)* (Hesp. Onom.4742) eta Villayandre-ko *Fronto Doiderigum* (Hesp. Onom.2533). Beharbada, azao hori *Iter XXXIV*-arekin lotua egon daiteke.

Badira mostrak Salamancan, Palentzian (2), Segovian, Asturiasen eta Santanderren ere. Ildo berean, Valladoliden *Tedi Vicani Vadiniensis Doiteri f.* pertsona izena



20. Argazkia. Marañónko Doitena Ambati Celti f.-ren estela (NMaH3). Nafarroako Museoa.

dugu (Pedrosa del Rey-n; Hesp. Onom.4382) eta Ávilan *Dobiterus Equaes Caburoni-q(um)* (Hesp. Onom.2202).

Doidena emazteki izenari dagokionez, dauden aztarnak Santanderren, Palentzian, Valladoliden eta Burgosen (Pancorbo eta Arroyo de Muñón) agertutakoak dira.

Ez da Botorritan dokumentatzen.

Elementu IEkin eskutik idionimotako eta nomenetako erabili da eta G-Eekin ([*Su*]accessus-ekin), ostera, patronimo gisa. Ohart bedi (herri berean) *Doiterus* [- - -] do-ri eta *Doitena*-ri, filiazioa jakitera emateko, *Ambati* f. (NMaH3) eta *Ambati Celti* f. (NMaH2) patronimoak atxiki zaizkiela (ik. 15 eta 20. argk.). Castillorentzat (1977, 134. or.), biak ala biak ahaideak ziratekeen.

7.3 Jende izenak osatzeko gurean birritan baliaturiko elementu indoeuroparrak

Badira bi aldiz dokumentatzen diren lau jende izen IE gurean (ik. 5. grafikoa).

[*A*]meanus eta haren *A[m]eicus* eratorriaren bi agerraldiak Kontrastako hilarri batean daude (AKoH1). Ez da beste inon topatu. Herri bereko *Araica Arai* f.-ren moldekoa da, ondorioz. Kontuan har *Ameaicus* dagoela, ez **Ameanicus*. Zegaman bada *Amiao* (*Amiano*) baserria, baita ere *Amiama* Gaintzan (Gipuzkoan) (ik. Zaldua, 2016, 189-190. or.).

Boutia-ren laginak Toloño mendilerroaren alde banatara daude, Aguilar Kodesen (NAKH2) eta Lantziegon (Assan) (ALnH1).

Boutius/a joria da Iberiar penintsulan. Portugalen bakarrik, hogeita hamasei (36) adibide zenbat daitezke. Euskal Herritik gertuen direnak Peñalba de Castroko *Attuae Boutiae Bouti* f. *Intercatiensi* (Hesp. Onom.1184), Hontoria de la Canterako (BU) *Auscus Boutius Vironi* f. (Hesp. Onom.1271), Beloradoko *Boutia Vqulanca Segili* f. (Hesp. Onom.1461) eta Tricioko (Errioxako) *Bo[uti]a* (Hesp. Onom.1457) dira.

Aguilar Kodesen *Oppia* G-Eari lotuta dago, cognomen gisa egon ere, eta Lantziegon [*A*]urelia nomenaren aldamenean da.

Ciprések (2006, 116. or.) ohartarazten du [*Au*]relia Bouti[a]ren kasuan filiazioa ez dela idionimoarekin adierazten, *Flacci* (gen.) cognomenaren bidez baizik. Hala berean, agerian jartzen du aita familiaz gaindiko (irudimenezko) «*Attesu[c?]lo(n/-m)*» unitateko kide izateak ez dirudiela hiritartasunaren eskudun izateko oztopoa (ik. 7.4 eta 6.2.2.5 §).

Ik. *Coemia*.

Licira emazteki izena Ilarduia (AIIH1) eta Egilazko (AEgH2) bi hilaurretan irakur daiteke.

Euskal Herritik kanpo badaude *Licirus*-en arrastoak, esate baterako, Yecla de Yeltesen (SA), Astorgan (LE) eta Peñalba de Castre. Azken horretan *C(aio) Vitio Licirico Vi[---]* antroponimoa dugu (Hesp. Onom.237).

Egiltzen *Segontius* (patronimo) IEa du altzoan, eta Ilarduian *Ablonius* jopuaren (*seruus*-aren) nagusiaren izena zen.

[Reb]urrus eta *[Reb]urrinus* deribatuaren (patronimoaren) bi etsenpluak Ibargurengo inskripzio batean daude (AlbH1); Donemiliaga aldean (eta *Iter XXXIV*-aren ondoan), hortaz.

Euskal Herritik kanpo, *Reburrus* naroa da. Portugalen, konparaziora, hogeita hamar (30) mostratik gora dago, gehienak iparraldean. Zeltiberian ere badaude lekukotasunak, Burgosen batez ere (6), besteak beste, Peñala de Castre, Beloradon eta Pancorbon. *Reburrinus* ere aski ugaria da. Adibideen dozena bat Portugalen dago.

Zeltiberiako zenbait hilaurretan lakinak badiren arren, ez dira Botorritako brontzetan dokumentatzen.

Mainz-en (Germania Goienean) *Reburrus Coroturetis f.* garaikoen herrialdeko soldadu laguntzailearen epitafioa (EDH HD056266) ediren zuten: *mil(es) c(o)ho(rtis) I Lucensiu(m) Hispanorum* (cfr. Pitillas, 2006, 31-35. or.).

Gurera etorritik, bistan da *Reburrus* cognomenaren aitzinetik den *[---Mi]nicius* nomina G-E ondarekoa dela.

Elorzak (1967, 143. or.) Ibargurengo *Reburrus Reburrinus*-en oroitarriaren dekorazioa Kontrastakoen antzekoa dela jakitera ematen du, eta Albertosek (1970, 137. or.) gogorarazten du *Reburrinus*, kasu honetan, *Reburrus*-en aitaren deizioa dela. Bere iritzirako, beharbada, aitona, *Reburrus*-en bat izango zen.

7.4 Euskal Herrian behin bakarrik ageri diren izen indoeuroparrak

Begira diezaiegun orain behin bakarrik irakur daitezkeen hogeita zortzi (28) onimoi. Hauek dira, hasteko, Penintsulako beste paraje batzuetan ezagunak diren eta gure esparruan (behin) lekukotu diren hamabostak (15ak) (ik. 5. grafikoa):

Arquio (Monteagudo, NMoA1). Alcalá de Henaresen dokumentatzen da, ahaidetasun harreman izen baten oinarri moduan dokumentatu ere (*Arquiocum*; Hesp. Onom.2511). Albertosek (1970, 116. or.), /kw/ multzoa gorde bide dela ikusita, Hispa-

niako hizkuntza indoeuroparrak –Europako beste batzuen aldean–, oro har, kontserbatzaileak direla argudiatzeko darabil Erriberako antroponimo hau.

Attesuclō (Lantziego, ALnH1). Hispanian ez dago *-clo* bukaera duen beste jende izenik. Antzekoena, nolabait esateko, Lugoko *Cara Vēsucloti f.* da (Hesp. Onom.1791). Botorritako III. brontzean **esueiku ateskum** segida leitu daiteke, bide batez.

Gentilitatea azaleratzen duen onimotzat hartu izan da eta hartzen da oraindik (ik. Albertos 1970, 143. or.; González Rodríguez, 1984, 230. or.; Gorrotxategi, 2015, 17. or.). Ciprés (2006, 111. or.) ere pentsamen berekoa da. Alabaina, badaude hipotesi hori onesten ez duten adituak. Ramírezek (1999, 602. or.), adibidez, pertsona baten izena dela deritzo eta ez (genitiboko *-on/-om* akabaila duen) familiaz gaindiko talde batena.

Izan ere, goiko azterbideak baditu zenbait eragozpen. Lehenengo eta behin, genonimotzat hartzen duten autore gehienek, guztiek ez esateagatik, sudurkari bat (*m/n*) berreraikitzen dute bukaeran, baina, gorde diren argazkietan ez da irudimenezko kontsonante horren trazadura garbirik antzematen. Gainera, ez dirudi (*f* laburduraren aurretik) beste hizki batentzat tokirik dagoenik (ik. 21. argk.). Izatekotan, singularreko genitiboan legokeen genonimoa izan beharko luke (ik. 9.3.2 §).



21. Argazkia. Assako (Lantziegoko) hilarria (ALnH1). ALHA-GUE-PP-01831.

Gaur arte ez da kausitu akabailan *-clo* duen IE ondareko izen gehiago eta, dakigula, segida hori ez dago ahaidetasun harreman deizioak sortzeko baliatu *-ko/-co* atzizkiaren aldaeren zerrendan. Horrez gainera, Iberiar penintsulan ez dira batere ohikoak filiazioaren bigarren osagai moduan erabilitako genonimoak (ik. 9.3.2 §).

Betunus (Barbarin, NBaA1). Zamoran bada erakuskari bat (*Arco Betuni*; Hesp. Onom.1025). Hori da Hispanian ezagutzen dudan bakarra (Ik. Zaldúa, 2022, 62–63., 78–79. or.).

Buturra (Gastiain, NGaH1). Albertosek (1970, 131. or.) honetara dio Bartzelonan badela familia bereko mostra bat, *Buturati* (dat.) (*cf.* Hesperia) eta, hala berean, Penintsulatik kanpo, Akitanian, *Butturrus*, *Buturo*, *Butiro* formen aztarrenak aurkitu direla. Jatorria

Akitanian ez ote den galdetzen dio bere buruari, baina argitzen du *Buturra*-ren aitak *Viriatu*s izena zuela eta deizio hori zinez hispaniarra dela.

Albertosek aipatu erreferentziak ezin izan ditut EDHn kausitu. Hori bai, Austrian (S.Veit/Glan-en) *Butturae Cypaer[fi filiae]* jende izena bilduta dago (EDH HD057685) eta Alemanian (Rottweil-en), berebat, *Butura* (EDH HD078245) dugu. Tunisian, bestetik, badaude *Butura* (EDH HD039822), *Buturaria* (EDH HD039879) nahiz *Buturarius*-en (EDH HD039775) arrastoak.

Botorritako III. brontzean **muturiskum** genonimoa lau aldiz irarrita da.

Celtius (Marañón, NMaH2). Portugalen (18) eta Cáceresen (12) usu erabilitakoa da hau. Izen etnikoa da, bertakoek euren burua zeltatzat ez zutela frogatzen duena (ik. 10.1 §).

ElcV+n (HE) (NLaH1). Ez dago garbi zeren aurrean gauden, bi datu base nagusiak ez baitatoz bat (**Elque**[-]n[-] (Hesp. Onom.2380). Niri, behintzat, ez zait begitantzen Larragoako elizako hormako hiliarrian *Elque*- ipintzen duenik (ik. 22. argk.). Esanak esan, badaude *Elguenus* eta *Elguanus*-en laginak, Zamoran (Hesp. Onom.334) eta Teruelen (Hesp. Onom.2379), hurrenez hurren. Hortik, beharbada, Nafarroako idazkunean erro bera dagoelako ustekizuna.



22. Argazkia. Larragoako elizako (barruko) horma batean den hiliarriaren xehetasuna (NLaH1).

Equesus (Oteitza, NOtH1). Zamoran (2), Salamancan eta Ávilan badaude *Equaeus*-en urratsak; *cf.* Ibargoitiko *Ekisoain* jauregia. Marcoren (1979, 224. or.) aburuz, *Eku*- ('zaldia') IEetik sortua dateke. Ik. *Arquius*.

Gall[---] (Gastiain, NGaH7). Zalantzakoa da, oso, gordetako irudiak ez direlako nahi eta behar bezain onak. Portugalen badira *Gallaecus*-en bi etsenplu eta Peñalba de Castron *Gallaicis*-ena ere bai.

Otai (Rocaforte, NRoA1). Hau ere arazotsua da, aurrekoaren arrazoi berarengatik (ik. 2.3 §). Segovian *Otaliq[---]* (***Otaliqum**) genonimoaren lagina badago.

P[a?]esina (Rocaforte, NRoA1). Iberiar penintsulan bada *Paesica*-ren (ez *Paesina*-ren) laginik: Alandroal-en (Evoran), Lara de los Infantesen, Hontoria de la Canteran, Quintanilla-Somuñon zein Valdorrosen (azken laurak Burgosen).

Ramírezentzat (1999, 53. or.) *Paesica* jatorri etnikoa duen cognomena izan daiteke, eta ez *-co-* berrekailua atxiki zaion antroponimo baten bidez adierazitako ahaidetasun multzoa. *Paesici*-tarren gizatalde asturretik eratorritakoa izan daitekeelakoan da.

Albertosen (1970, 116. or.) hitzetan, *p* sortzezkoaren iraupenak Penintsulako mintzaira indoeuroparrak kontserbatzaileak zirela erakutsiko luke, fonema horren galera ezaugarri bereizgarritako duten hizkuntza zeltikoak ez bezala.

Pimaus (Larragoa, NLaH2). Alcalá de Henaresen (Madril) badago balizko etsenplu bat, baina lehen hizkia falta zaio (*Jimaus*; Hesp. Onom.4986). Ik. *P[a?]esina*.

Segilus (Guardia, AGuH1); ik. 23. argk. Beloradon (5), Tarragonan (2) eta Botorritako II. brontzean azaltzen da. *Segontius*-en ahaidea da, honek ere **segh-* ('garaitu') erroa baitu hasmentan.

Vendio (Aguilar Kodes, NAKH2). Portugalen (*Vendiecus*) eta Botorritako III. brontzean (**bentikum** [2]) adar bereko deizioak irakur daitezke. García Arizak (1991, 215, 216. or.) *Vendalo*, *Vendiecus*, *Vendiricus*-ekin alderatzen du eta oinarrian **vindos* zelta ('zuria') nahiz **uendh-* ('ilea') indoeuroparra egon daitezkeela iradokitzen.

Viriatus (Gastiain, NGaH1). Aski ezaguna da Portugalgo (6) eta Cáceresko (6) onomastikan. Pentsa daiteke sorburua paraje haietan duela (ik. 10.1 §).

Vironus (Gastiain, NGaH2). Iberiar penintsulako hainbat lekutan erabili da, batez ere sartaldean: Portugal (5), Cáceres (2), Salamanca (6), León (4); Hontoria de la Cantera (BU), Herramélluri.

Gurean behin bakarrik ageri diren gainetiko hamahiru (13) onimoak ez dira Hispanian gehiago dokumentatzen, hau da, neurri batean, *hapaxak* dira (ik. 5. grafikoa). Hori dela eta, are zailagoa da oraindik haiei buruz egiantzeko ezer esatea edo ekartzea.



23. Argazkia. *Segilus*-en aldareñoa (AGuH1). Guardiako Lagunen Elkartearen Museoa.

Hauexek dira: *Acnon* (Oteitza, NOtH1), *Anutisema* (Argantzón, AAAtH1),

Aselucio (Mañueta AMñH1), *Ausivos* (Iruña Oka, AlrH1), *Homicino* (Iruñela, NIñH1), *K(a)rauir(onus)?* (Arroitz, NArH1), *Licoiom* (Laudio, ALdH1), *Orulio* (Okariz, AOñH2), *Picull(a)* (Eslaba, NEsH1), *Plend[us?]* (Egilatz, AEgH1), *Sentoni* (dat.) (Luzkando, AAlH3), *Tergido* (Gastiain, NGaH7) eta *Vistena* (Rocaforte, NRoH1).

Acnon (NOtH1). Albertosen (1966, 8. or.) hipotesia da Oteitzako idionimoaren lehenbiziko *n*-a nahasmenduaren ondorioa dela, alegia, berezko izena **Acmon* zela, grezierazko *akmé* ('punta') hitzetik letorkeena. Marcoren (1979, 223. or.) usterako, berriz, *ak-* ('zorrotz') edo *akka-* ('ama') IEekin lotuta egon daiteke, apika.

Aselucio (AMñH1). Elorzari (1967, 132 or.) hilarria berankorra izan daitekeela iruditzen zaio.

Ausiuos. Cipréssek (2018, 45–46. or.) Iruña Okako cognomena kontu handiz erabili beharrekoa dela ohartarazten du, irakurketa zailtasunak direla medio.


Licoiom (ALdH1). Isasiko (Laudioko Ugarte auzoko) idazkunaz ari delarik, Cepedak (2001, 129–130. or.) adierazten du bi hileta eskaintza leudekeela hilarrian, bata bestearen segidan jarriak. *D(is) M(anibus) [S(acrum)]* goiburuaaren ondoren, lau lerroko lehenengo testua legoke: «SE(mpronia) AVNIA/ LIC(inia) LICOIOM/ FILIAE SV[AE]/ MV(nimentum) POS(uit)». Honela itzultzen du: 'jainko maneei eskainia. Senpronia Auniak monumentua jarri zion bere alaba *Licoio*-tar *Licina*-ri'. *Lic(inia)*-k eta (-om) genitibo plural zelta lukeen) *Licoiom*-ek erro bera izan dezaketelakoan dago Kantabriako Unibertsitateko irakaslea. II.–III. gizaldietakotzat dauka.

Zenbait autorek deizio hau genonimotzat hartu dute, baina iritzia bereiz dabilta, Gorrotxategik (2015, 17. or.), adibidez, zalantzazkotzat baitauka hizkuntzaren aldetik (damurik, ez du gehiago zehazten). Assakoak bezala, ahaidetasun izentzat hartzeko honek duen arazo nagusietakoa, -co atzizkiaren arrastorik ez egoteaz gainera, Iberiar penintsulan filiazioaren bigarren osagai gisa baliaturiko gentilitate izenak ez ohikoak izatean datza (ik. 6.2.2.5 §).

Plend[us?] (AEgH1). Albertosek (1970, 137, 138. or.) auhendatzen du hilarriaren desagerpenak eta inskripzioaren okerreko transmisioak Egilazko patronimoaren (gen.) pean, egiazki, *Plend(i)us* maskulinoa edo *Plendia* emakumezkoa dagoen ziurtasunez jakitea eragozten dutela. Garrantzia ematen dio hasierako *P-* gordetzeari (ik. *P[a?]esina*).

Ramírezek (1999, 204. or.), bestetik, Lara de Los Infantesen hirutan ageri den *Plandica* gentilitate izena ahotan hartzen du.

Sentoni (dat.). Albertosek (1970, 139. or.) honen pean *sento-* ('bidea, bidaia') erro IEa dagokeela eta adiera 'ibiltaria' datekeela idazten du. Gorrotxategik (2020, 728. or.) aletzen duen *Sintus* (← *sentu-*, 'bidea') galiarrarekin aldera daiteke.



Agerr.: agerraldi. *I.p.:* Iberiar penintsula.

5. Grafikoa. Osagai indoeuroparrak dituzten antroponimoen banaketa agerraldi kopuruaren arabera.

8. Sartaldearen hizkuntza egoera erromatartzearen hasmentan

8.1 Hego Euskal Herri indoeuropartua?

Badira XX. gizaldiko (Schmollen ondorengo) autoreak begitantzen zaienak Erromaren errainua heltzen hasi aitzinetik Euskal Herriko sartaldea, Araba bereziki, erabat edo ia erabat indoeuropartuta zegoela. María Lourdes Albertos da ezagunenetako bat.

Leóngo hizkuntzalariak (1970, 220-221. or.), bertako toponimia eta antroponimia bahetu ostean, ateratzen duen ondorioa da Araba arras indoeuropartua zegokeela, bere aburuz –hainbat motatako izenek ez ezen– datu arkeologikoek hori frogatuko baidukete. Araba ez zatekeen igarobidea bakarrik, baizik eta K.a. I. milurtekoan Europako Erdialdetik iritsitako jendea finkatu zen eskualdea, erromatar inperioaren garai arte bertan iraun zukeena. Herrixka batzuetako (arkeologia) aurriek eta hizkuntza arrastoen nolakotasunak hori adierazten bide dute. Indoeuroparturiko eremu bat topatuko zuten, beraz, erromatarrek gureru ailegatu zirenean.

Albertosek (1970, 124-125. or.) dio –jakinik lehen inbaditzaile indoeuroparren gizarte egituraren izaera aristokratikoa zela– ez dela harritzekoa erregetzarekin eta estatuarekin nahiz indarrarekin eta boterearekin zerikusia duten izenen munta. Oinarrian **turo* «indartsua», **segh-* «garaitu», **seghos* «garaipena», **bhoudhi-* «garaipena», -*genos* «seme-alaba», -*maros* «handia», **wesos* «ona», **klutos* «entzutetsua», **katu-* «borroka», **koro-*, **korjo-* «armada» eta **kados* «ohorea» elementuak dauzkatenak ditu buruan.

Erromatarren aitzineko pertsona izenak «hispaniar»-tzat dauzka, gehienak ondoko beste herrialde batzuetan dokumentatzen baitira, batez ere Nafarroan (hegoaldean, Arabarekin bateratasuna erakusten duen barrutian), Burgosen eta Kantabrian, baina, baita Hispaniako nahiz Pirinioez haraindiko beste toki batzuetan ere.

Latinezko onomastika sistemak ez ziokeen lekua guztiz kendu molde indigenari (IEari), apika, erromatarren aitzineko ohituren indarrarengatik, hau da, «elebitasunak» antroponimian nolabait iraun zukeelako, arlo hori beti kontserbadorea izan ohi baita. Hori bai, onartzen du Araban edirendako inskripzio guztiak latinezkoak direla.

Albertosen (1970, 221-223. or.) arabera, Penintsularen barnealdeari erreparatuz gero, Arabak bi norabidetako loturak ditu hizkuntzari dagokionez. Alde batetik, kanta-

briarren, asturren eta betoien bizilekuekin bat egiten du, oro har, onomastikaren aldetik. Bestetik, Arabako hegoaldea eta Ebro ibaiaren ertzeko esparrua (Nafarroa hegoaldearekin batera) Zeltiberiarekin estekatuta daude. Hori guztia arkeologia aldetik egiaztatutzat jotzen du.

Euskal mintzairaz denaz bezainbatean, Albertosen aierua da hiztun gutxi zeudekeela eta –kultur nahiz ekonomia ezberdintasunarengatik– etorkin indoeuroparren aurrean gutxiagotasun egoeran geratu zirela edo latinezko epigrafeetan beren hizkuntzaren arrastorik ez utzi arte indoeuropartu zirela, bizikidetza luze baten ondorioz.

Badaude, aukera hori guztiz baztertu gabe, hemen substratu indoeuroparra zegoelako ustekizuna hain garbi ez dakusaten ikertzaileak. Agudek (1973, 47. or.), adibidez, Araba-Nafarroetan lekukoturiko *Ambatus*, *Calaetus*, *Doitena*, *Equesus* zein *Segontius* erromatar gudarosteko beterano edo lizentziatuen izenak izan daitezkeela deritzo, bazeudelako alderdi hartako bertako legionarioak (mertzenarioak).

Aguilar Kodesko hilarriak xehatu zituen García Arizak (1991, 218. or.) ere ez du oso argi ikusten K.a. I. milurtekoan zeltek Euskal Herrira (Baskoniara) euren kultura eta hizkuntza ekarri zutela. Onartzen du indoeuropartzearen hipotesia ezin dela baztertu eta aitortzen, agian, hori dela ikerbide erakargarriena, baina, halaber, azpimarratzen du dauden datuak Inperioaren garaiko hilarri erromatarretatik eskuraturikoak direla eta, gehienetan, «indigenak» deitzen ditugunak deizio erromatarrekin batera irarrita agertzen direla inskripzioetan.

Castillok (1992, 118. or.) ontzat ematen du izen batek ez duela zertan izan hura hartu duen gizabanakoarekin erkidego edo hizkuntza alorreko harremanik, baina, era berean, pentsatzen du gure aroko lehen mendeetan, gizarte erromanizatu batean, zenbait gizasemeri herritarrek *Ambatus*, *Doiderus*, *Segontius* deitzen bazieta eta haien amek eta emazteek, *Aunia*, *Coema* edo *Buturra* izena bazuten, onimo horiek, artean, bazutela nolabaiteko zentzua eurentzat. Arbasoengandik jasotako ohiturak gordetzeko ahalegina adierazten dukete.

Cepedak (2001, 35-37. or.), beste historialari askok bezala, bat egiten du Albertosekin. Beretzat, autrigoen, barduliarren eta karieteen bizilekuetako toponimiak nahiz erromatar sasoiko jende izenek Hispaniako iparraldeko barruti horietako herritarrak txoil indoeuropartuak zeudela erakusten dute.

Autore honen usterako, erromatarrek etorri aitzineko hemengo hizkuntzak indoeuropar sailekoak ziratekeen, Euskal Herriaren sartaldean bizi ziren herriek zerabiltzatenen antzekoak, K.a. bigarren milurtekoan Europako Erdialdetik eta Sartaldetik etorritako jende eta kultur eraginekin batera hasitako prozesu luze baten

ondorioz. Beraz, dago geruza latinoa jatorri indoeuoparreko hizkuntza substratu baten gainean «ezarri» zatekeela.

Kantabriako Unibertsitateko irakaslearen hitzetan, Euskal Herriko sartaldearen «baskonizazioa» (euskalduntzea) Antzinako berantiarrean jazo bide zen, baina, demografia arloko aldaketa baino gehiago, kultur eremuko mudantza dakusa.

Ciprések (2006, 103-104. or.) Arabako antroponimo indigenen (IEen) artean Hispanian sarri dokumentatutako izenak ditugula nabarmentzen du, bai eremu zeltiberiarrean, bai Penintsulako iparraldeko eta mendebaldeko eskualdeetan: *Ambatus*, *Cantaber*, *Boutia*, *Reburus*, *Reburinus*. Beste batzuk, ordea, *Segontius*, *Segonticus*, *Turesamus*/*Turaesamus* nahiz *Turesica* kasu, –Logroñon, Cáceresen edo Salamancan lekukotu arren– Arabako sortaldean (Agurainen, Okarizen, Alaitzan, Kontrastan) eta Nafarroako sartaldean kausitzen dira batik bat. Era berean, agerian ipintzen du *Tritai* (gen.), *Tritaicus*, *Aseuucius* eta *Ursicenus* Arabako ekialdean baizik ez direla topatu orain arte.

Gorrotxategik (2015, 18-19. or.), beranduko baskonizazioaren hipotesiaren muturreko aldaera (euskal hizkuntza Iberiar penintsulara Akitaniatik Goi Erdi Aroko migrazio baten ondorioz zabaldu zelako ustekizuna) txarrets ostean, honela laburbiltzen du, hitzez hitz, bere iritzian, Araban eta haren ondoan antzinatean genukeen hizkuntza arloko egoera:

- Errioxa beroien mendeko lurraldean zegoen; bertan aurkitu diren lekukotasunen arabera (Vianako eta beroien Libiako teserak) beroien hizkuntza zeltiberiarra zen.
- Mendebaldeko haranetan autrigoiak bizi ziren; Beloradon, autrigoiaren lurraldean, aurkitutako tesera batek erakusten digu haien hizkuntza ere zeltiberiera zela.
- Arabako lautadan karistioak eta barduliarak bizi ziren, eta bildu diren pertsona izenen arabera (ez dago testurik) hizkuntza zeltiarra zen nagusi; nolana ere, ezin da baztertu haien artean baskoieradunak ere bazirela.

Zeltiberieraren eta euskal hizkuntzaren arteko «muga» non zatekeen finkatzea ez da eginkizun erraza, ezta gutxiagorik ere. Esate baterako, badira hizkuntzalariak, Jordánek (2008, 8-9, 28. or.) bezala, sinesten dutenak hiru mintzairak (euskal hizkuntzak, iberierak eta zeltak) bat egiten zutela Ebroren haranaren erdiko zatian; alabaina, ibaiaren ezkerreko aldean (Euskal Herrian) epigrafia corpora urria denez gero, zaila egiten zaio hizkuntzen norainokoez ondorio zehatzak ateratzea. Inskripzioak zeltak, iberiarrak nahiz baskoiak dira, baina ezin da –Ebroren beste aldean (hegoaldean) bezala– epigrafia–mintzaira eremurik bakartu. Ebroren Erdialdeko haranaren ertz baten eta bestearen arteko alde hori zeri zor zaion ez daki.

Beste alde batetik, Emborujoren (1987, 379. or.) esanetan, (indoeuopar kutsuko edo endako) barduliarren eta baskoien arteko –balizko– muga marraztea ere ez da

samurra, bereziki Burunda aldeari (zehazkiro Arabako mugatik hasita Etxarri Aranatz arteko zatia), Lana haranari (Gastiaini, Iribarriri...) eta Egaren haran garaia (Marañoni, Aguilar Kodesi) dagokienez. Paraje horiek, usaian, baskoitzat hartu izan dira, baina barduliarrei edo baskoiei esleitzea korapilatsua iruditzen zaio.

Goikoak erakusgarri batzuk baizik ez dira, sail luzeagoa, askoz luzeagoa, ere ekar baitaiteke, baina nago aski eta sobera direla bere laburrean agertu nahi nukeena agertzeko: zenbait autoreren irudiko alegiazko bi edo hiru hizkuntza ordezkapenez arituko ginatekeela. Lehenbizikoa, indoeuropartzea, K.a. lehen milurtekoaren hastapenean (edo lehenago) agitu zatekeen; bigarrena, erromanizazioa, aro aldaketaren garaian hasi zen; hirugarrena, eta azkena, euskalduntzea, Antzinako berantiarren amaiera baino lehen ez zatekeen jazo.

Estreinako mudantzaren xehetasunik ez da ezagutzen, baina bistan da, oro har, ez zatekeela kolonizazioa izan, izatekotan, migrazioa baizik, lehendik jendea bizi baitzen Euskal Herrian. Garbi dago bigarrenaren (erromanizazioaren) lehen urratsa menperatze militarra izan zela, hirugarrenean (euskalduntzean) ez bezala. Hain justu, hondarreko biak esplikatzen inork ez du migrazio (handi) konturik aipatzen.

8.2 Hego-sartaldeko (Ebro haraneko) zeltiberieraren arrastoak

Arabak, Errioxak eta Nafarroak elkar ukitzen duten gunearen aldamenean, Ebroren iparraldeko ibaiertzean, Vianaraino barneratzen den (hamar bat kilometroko) epigrafia arloko zerrenda zeltiberiarra dago. Hala berean, hegoalderago (70 bat kilometroa), Nafarroaren eta Errioxaren arteko sartaldeko mugaren parean, ibaiaren hegoaldeko ertzean, bada, idazketaren aldetik bederenik, Zeltiberiaren zatitza har daitekeen esparrua (Cintruénigo, Fitero eta Cascante barruan dituena).

Izan ere, egun, «Zeltiberia» terminoa hizkuntza paleohispaniarren idatzizko erakuskariak dauden lurraldea aipatzeko erabiltzen da, besteak beste edo, batez ere, txanponetan eta taseretan daudenak (*cf.* Beltrán & Jordán, 2022, 276. or.) (ik. 9.2 §).

8.2.1 Taserak

Vianako La Custodian (behinolako *Vareia* hirian) aurkitutako bederatzi teserek Nafarroako aztarnategi hori Zeltiberiako lehena bihurtu dute brontzezko pieza sinbolikoen gainean sinatutako abegi oneko itunen kopuruaren aldetik, guztira, berrogeita hamar ale baino gehixeago baitaude epigrafia eremu osoan.

Vianakoak K.a. II. gizaldiaren eta K.a. 76. urtearen artekoak dira. Izkiriatzeko era iberiarraren aldaera batean, zehazkiro, sortaldeko signario zeltiberiarrean, irarriak, Ebro ondoko eremu horietan gorde diren idatzizko lekukotasun zaharrenak dira eta bertakoek hizkuntza zeltiberiarra bazekitela iradokitzen dute Armendárizen eta Velazaren arabera (2022, 144-145, 157. or.).

Abegi oneko taseretan, txanponetan eta zeramiketan signario paleohispaniarraren aldaera batean ezarritako inskripzioek erakusten dute vareiarrek gure aroaren aurreko bigarren mendearen erdialdean hasi zirela epigrafeak egiten. Armendárizek eta Velazak (2022, 158. or.) irizten diote K.a. 76. urtea baino lehen (kanpoko txanpon erroturen bat alde batera utziz gero) latinezko erregristorik ez egoteak frogatuko lukeela ordu arte erromatarren konkistak ez zuela eragin gizarte indigenaren (IEaren) desagertze erabatekoa, baita mintzaira zeltiberiarra zabaldua zegoela ere.

2021ean edirendako taseretako onomastikak *Vareia* hiriak Ebro Erdiko jende eta hiri zeltiberiarrekin zukeen harremanaren berri emango luke, zehatz-mehatz, *Contrebia Belaisca* (Botorrita), **burzau** (Borja) eta **kaiskata**/*Cascantum* hiriekin (Cascanterekin). Preseski, duela urte batzuk Nafarroako azken hiri horretatik gertu topaturiko taseran «Ura hirikoa» jartzen du. Hurrengo puntuan ikusiko dugun bezala, Vareiak, K.a. II. mendearen erdialdean eratu zen bizilekuak, brontzezko txanpona jaulki zuen (**uarakos** erroturearekin).

Azpian (onomastikaren/hizkuntzaren aldetik) Euskal Herrian kausitu diren tesera garrantzitsuenetako batzuk bildu ditut. Guztiak zeltiberieraz grabatuta daude, ekialdeko aldaera ez-dualean, Nafarroan ez baitago, konparaziora, Alfaron (behinolako *Graccurris*-en) bezala (Hes. LO.04.03), latinezko alfabetoan emandako idazkunik duen taserarik.

Viana, tesera poliedrikoa (Hesp. NA.01.12). **memunos telkaskum kar** du irarrita. Lehenbiziko bi elementuak genitiboan daude (sing. eta pl.). Ohart bedi bigarrena ahaidetasun harreman talde baten izena dela. Segidan, **kar** termino arrunta dugu ('tesera?', 'adiskidetasuna?', 'ituna?') eta, bistan denez, ez dago toponimia erreferentziarik. Armendárizen eta Velazaren (2022, 148, 149. or.) hitzetan, elementu onomastikoek Botorritara begirarazten dute. Honako esanahia izan dezakeela zehazten dute: 'Memunen tesera, Telcasco (edo Telgasco) gentilitatekoa'.

Viana, animalia tankerako tesera (Hesp. NA.01.13). Honatx testua: **tirtaku ama+riko burzauka**. Armendárizek eta Velazak (2022, 153, 154. or.) agerian ipintzen dute, gaurdaino, **tirtaku** ez dela beste inon dokumentatu, baina **tirtanos**-en erroan funtsatuz osaturiko pertsona izen baten nominatibo gisa uler daitekeelakoan dira, horrelakoak eratzeko ohikoa den **-ku** atzizkiarekin hornitutakoa. **ama+riko** singularreko genitiboa dateke eta, hondar osagaia, ostera, **burzau** toponimo ezagunari

-**ka** berrekailua gehituz sortutako «lokalizioa». Egitura hau litzateke, horrenbestez: *pertsona izena* (nom.) + *patronimikoa* (genitiboan eta, oraingo honetan, **ge(ntis)** hitza gabe) + *lokatioa* (*ad sensum*, [hemen ezabatutako] **kar** terminoaren mende legokeena).

Viana, urde tankerako tesera (Hesp. Na.01.01); ik. 24. argk. **berkuakum:sakas** segida irakur daiteke. Lehen elementua ahaidetasun talde baten izena da, ohi denez, pluraleko genitiboan dagoena.



24. Argazkia. Vianako urde tankerako tesera (Hesp. NA.01.01).

ἸΦΟΔΟΥ:ΜΔΑΜ

Nafarroako Museoa.

Cascanteko tesera (Hesp. NA.08.02). Idazkuna: **uaraka kortika**. Lehenbiziko partea badu parekoa: aipatu berri dudana **uarakos** (Hesp Mon.59), geroago *Vareia* izango den bizilekuan zegoen txanpon-etxearen izena, alegia. Autore batzuentzat, txanponaren legendan den adjektiboak *Vareia* toponimoarekin duen harremana arazotsua da. Bidenabar, diodan *Hesperia* datu basean jakitera ematen denez, De Hoz-i – **-kar**-en orde – **kortika** egotea piezaren benetakotasunaren aurkako zantzua iruditzen zitzaioela, paralelo bakarra ziurrenik faltsua den tesera bat litzatekeelako (Hesp. [SP.2.14] SUSPECTA). Guztia erekin, aldebakarreko formula litzateke, itunaren sinatzaileetako bat bakarrik agertzen baita.

Cintruenigoko tesera (Hesp. NA.07.02). Honakoa ipintzen du: **terdabiizum : kaqr**. Segidan **kaar** duen familia izentzat nahiz lokatibo bezala interpreta omen daiteke, antza. Azken kasu horretan, **bii** sekuentzia, apika, –*brig*-ekin lotzeko parada legoke, baina eskribak (akats ez edo) ahaztutako **r** bat berrezarri behar da horretarako. Balizko lokatibo horrek pluraleko genitibo batekin zerikusia izan lezake, apika (ik. Hesp. NA.07.02).

Fiteroko tesera (Hesp. NA.07.01). Gorde den zatia, hau da, **namato**+[[---]], –**o** hitz-oina duen antroponimo baten genitibo izan daiteke. Bada susmagarritzat daukan autorerik (ik. Hesp. NA.07.01).

8.2.2 Txanpon-etxeak

kaiskata, Cascante (Hesp. Mon.49); ik. 22. argk. K.a. II. mendearen bigarren erdia - Tiberioren garaia (K.o. 14-37. urteak). Ptolomeok (II, 6. 66) Cascante baskoien (hirien) taldean sartu zuen (*baskonton káskonton*), baina hango «zekak», Vianakoak bezala, signario zeltiberiarrean jaulki zituen txaponak. Horzkariaren aitzineko sudurkaria ez zuten idazten, baina Velazak (2010, 138. or.) dio badaudela antzeko etsenpluak beste testu zeltiberiar batzuetan. Castejongo irakaslea toponimoaren jatorrizko forma *kaskant* zatekeelakoan da.




25. Argazkia. **kaiskata** txanpon-etxeko brontzezko as-a.

ΑΠΜΑΧ

Berbintzanako Las Eretas Museoa.

uarakos, Viana (Hesp. Mon.59); K.a. II. gizaldiaren amaiera – K.a. I.aren hasiera. Txanpon-etxe honen ale guztien atzealdean, lehen aipatu dudanez, **uarakos** adjektibo toponimikoa irarrita dago, gizonezko genitibo singularrean egon ere. Lehen bi jaulki-penetan aurkiak anepigrafoak ziren.



■ Tesera. ● Txanpon-etxea. -+--+ Nafarroako muga. — Ebro ibaia.

5. Mapa. Euskal Herriko hegoaldeko (Ebroren ondoko) zeltiberieraren idatzizko arrastoak.

5. mapan ikus daitezkeen bezala, Zeltiberiak bere-berekiak dituen tesarak eta txanponak Ebro ibaiaren ondoan baizik ez dira topatu gurean, hau da, erromatar garaiko onomastika IE gehien dagoen alderdian ez da alerik kausitu. Beste alde batetik, tesarak eta txanponak ediren diren barrutian ez dago IE saileko jende edo jaingo izenik duen gure aroko lehen gizaldietako inskripziorik ia. Salbuespen bakarretakoa Monteagudoko lagina da (NMoA1) (ik. 7.4 §).

8.3 Ahaidetasun harreman taldeen izenak Euskal Herriko sartaldean

Arabako onomastikan gentilitatean oinarrituriko antolaketa (ik. 9.3 §) aztarren gutxi dagoela agerian ipintzen du Albertosek (1970, 142-143. or.). Honen ondorioa da, Kantabriako eremuarekin alderatuz gero, (bertan errotutako biztanleria IEa zuen) Araban gizarte eredu horren berri ematen duten antroponimoak urri direla, hiru besterik ez, horietako bat zalantzakoa, gainera. Inskripzio kantabriarretan, ordea, hogeita hamar bat dokumentatuta daude. Konparaketa Burgos aldearekin egiten duenean, antzeko zerbit

dakusa, hau da, Gaztela Zaharrean, denbora joanetan, «tribu» eta «klan» antolaketa indarrean zegoela. Gauza bera dio betoien (Lusitaniako) eskualdeaz.

González Rodríguez (1984, 225-226. or.) historialaria da Arabako «barruti barduliarreko» epigrafeetan familiaz gairik unitate indigenak aipatzen dituzten inskripzio gutxi (bi) daudela nabarmentzen duen beste autore bat. Iruña Okako *Elanus Tulrasaemicio(n) Ambalti f(lius)* eta Assako (Lantziegoko) *[A]ureliae Bouti(ae) Flacci Atesucl(n) f(iliae)*-z ari da (ik. 21. eta 26. argk.).

Urritasun horrek pentsarazten dio hilartitzak irarri zituzten garaian indigenen (IEen) behinolako gizarte eraketa (gentilizioa) eraldatuta (erromatartua) zegoela neurri handi batean, ahaidetasun harreman taldeak Erromako politika eta administrazio antolaketan urardotuta zeudela. Hori dela eta, uste du genonimoak dituzten hemengo epitafioak erromanizazio prozesuaren lehen uneetakoak (I. mendekoak – II.ekoak) diratekeela, beste herrialde batzuetan eta komentu kluniarreko beste erkidego batzuetan ez bezala, haietan ahaidetasunean oinarrituriko gizarte antolamendu indigena beranduago arte dokumentatzen baita.

González Rodríguez (1984, 231. or.) iritzian, lehenagoko gizarteak goiz integratu zatekeen berrian (erromatarrean), Araban familiaz gairik unitateen zantzu gutxi baitago, oso. Ziur aski, molde gentilizioak indar gutxiago zukeen hemen komentu kluniarreko beste herri batzuen (arebakoen, pelendoiak eta kantabriarren) artean baino; horregatik aski erraz sustraitu eta zabaltu zatekeen hiletekin zerikusia duten idazkietan sumatzen den eredu erromatarra.

Eskualde zeltiberiarreko ahaidetasun harreman deizioen katalogoan, Ramírezek (1999) haien azpian dauden jende izenek Penintsulako beste toki batzuetako latinezko epigrafian dituzten parekoak biltzen ditu. Bakoitzak dagokion



26. Argazkia. Bigarren lerroaren akabailan eta hirugarrenaren hasmentan Attesucl(n) irarritu duen Assako (Lantziegoko) hiliarria. ALHA (ATHA-GUE-PC-00239).

segida onomastikoan duen eginkizun edo funtzioa ere zehazten du (nomena, cognomena).

Honatz ziurtzat dauzkan Euskal Herriko erakuskariak, hau da, Zeltiberian-eta lekukotzen diren zenbait genonimoren pean diren pertsona izenak, gurean, ia beti, idionimotako edota nomenetako erabili direnak: *Ana* (Aguilar Kodes, 579. or.), *Anna* (Marañón, 582. or.); *Anica* (Kontrasta, 580. or.); *Araica* (Kontrasta, 592. or.), *Araus* (Kontrasta, 593. or.); *Calaetus* (Oteitza, 691. or.); *Cantaber* (Gastiain, Kontrasta; 645. or.); *Segontius* (Agurain, Bernedo, Egilaz, Gastiain, Kontrasta, Okariz (3) (767-768. or.); *Segontieca* (Olatzagutia, 768. or.); *Segontiecus* (Okariz (768. or.); *Segotius* (Alaitza, 769. or.); *Tritaus* (Okariz (2), Olatzagutia), *Tritaiecus* (799-800. or.); *Vironus* (Gastiain, 830. or.); *Viriatus*, (Gastiain, 831. or.). Badira zalantzakotzat dituen beste lau (idionimo nahiz nomen): *Appa* (*Appae* f.) (Kontrasta, 542. or.); *Attesuclō* (Assa, 602. or.); *Elanus* (Iruña Oka, 674. or.)/*Elanio* (Zuñiga, 675. or.); *Segilus* (Guardia, 771. or.). Cognomentzat baliatu diratekeenak askozaz gutxiago dira, bi baino ez: *Ausiuos* (Iruña Oka, duda-mudazkoa, 609. or.) eta *Betunus* (Barbarin, 632. or.).

Ramírezek (1999) zerrendaturikoez gainera, Euskal Herrian jaso diren izen IEen artean badaude Iberiar penintsulan gentilitateak adierazten dituzten onimoen oinarritako erabili diren gehiago.

Lehenengo eta behin, gurean behin baino gehiagotan lekukotzen direnen artean, *Ambatus/a* eta *Elasus* ditugu: *Ambati Pentouieci Ambatiq. Pentoui f.* (S); *Ata Ambaticorum Hirni f.*, (Candeda, AV); *Vernaculus Ambatic(um) Modesti f.* [---] (Candeda, AV); *Elaiscum* (Paredes de Nava, P). Bada *Coemea Elaesc[a] Agricol(a)e f(ilia)*-ren adibidea ere (Lara de los Infantes, BU, Hesp. Onom.2055).

Bestetik, hauek dira Iberiar penintsulako gentilitateekin lot daitezkeen Euskal Herrian behin bakarrik kausitu diren pertsona izenak eta haien ahaideak:

– *Arquius* (NMoA1): *Fl[orin]a liberta Arquiocum* (Alcalá de Henares, M, Hesp).

– *Buturra* (NGaH1): **aba muturiskum** (Botorrita III., Hesp. Onom.351), **elkuanos muturiskum** (Botorrita III., Hesp. Onom.2387), **kalaitos muturiskum** (Botorrita III., Hesp. Onom.2717, Onom.2718), **stena muturiskum tirtu+** (Botorrita III., Hesp. Onom. 4197).

– *Vendio* (NAKH2): **elaukos bentikum rotenanko** (Botorrita III., Hesp. Onom.2364), **sekonzos bentikum** (Botorrita III., Hesp. Onom. 4053).

Ramírezek adierazitakoaren harira, Gorrotxategik (2015, 18. or.) diosku Arabako pertsona izen indigenen (IEen) artean badaudela familia edo *cognatio* izenak (genonimoak) sortzeko ohikoa den *-icus/-ica* atzizkia duten batzuk. Izan ere, esparru zeltiberiarreko

antroponimo askoren latinezko hainbat cognomenek aurreko *-icus* erako cognatio izenetan dute jatorria, baina, aldiz, ez zaio iruditzen *-icus* berrekailua duten Arabako laginak aitzineko ahaidetasun taldeen deizioetatik eratorriak direnik, patronimiko moduan baliatzen direlako; hau da, *-nomen* berria sortzeko, atzizkia, aitaren izenari eransten zitzaion eta, ondorioz, izatez, ez zen gentilitate izen baten zatia: *Araica Araí f.*; *Turesica Turesami f.*; *Ameaicus Ameaini f.* Arabako mostra horiek zeltiberiarren ohiko izendapen eraren etsenplu batekin alderatzen ditu: *[A]rceae Dessicae Pat[er]ni f.* ([dat.]; Lara de los Infantes, HE 6801).

Euskal Herriko sartaldean ediren diren sustrai hispaniar-zeltako zenbait izen Penintsulako eremu indoeupearrean genonimoak eratzeko baliatu dira; hemen ikusten diren osagai IEen artean bada Iberiar penintsulan ahaidetasun harremanen onimoren baten funts gisa baliatu den bat baino gehiago. Alabaina, gurean apenas dago holakorik (cognatorik).

Hemendik kanpo genonimoen pean diren pertsona izen horiek Euskal Herriko epigrafian nomenaren lekuan ezarrita dira gehien-gehienetan (hogeita lautan), eta ez cognomenaren tokian (bitan), *-(V)co* atzizkiarekin hornituta. Horrela, bada, ez dago ahaidetasun lotura azaleratzen dutelako zantzurik, onomastika sekuentzian duten posizioak eta berrekailu ezak iradokitzen dutelako ez direla antroponimo baten bidez adieraziriko gentilitate indigenen deizioak (ik. 2. Taula).

Nortasunaren markatzaileez edo gizarte antolakuntzaren adierazleez ari garelarik (ik. Ramírezen argitan 9.3.3 §n jakinarazitakoa), diodan badirela *Maternus*, *Paternus* nahiz *Fraternus* Decknamen-ak dituzten antroponimoak Euskal Herrian. Zati G-Eak baino ez dituzten Arabako bost pertsona izenetan elementu horien beste hainbeste erakuskari daude: *Maternus/a* (3) (Iruña Oka, Foronda, Lantziego), *Paternus* (1) (Urbina Basabe) eta *Fraterno* (Iruña Oka).

Orobat, onomastika G-Ea bakarrik daukaten Nafarroako lau oroitarritan *Maternus* Decknamena irakur daiteke (Muruzabal Andion, Ezkabarte, Lana Oloritz; ik. HE). Euskal jatorriko izenak dituzten jainkoei opaturiko aldareetan ere badira horrelakoak, Larragakoan (*Materna*) nahiz Barbarin (*Paternus*) eta Leratekoetan (*Paterna*) bezala. Elementu IEak dituzten inskripzioetan latinezkoak bakarrik dauzkatenetan baino gutxiago ikusten dira. MendiGORRIKO hilartitzean (NMeH1) baizik ez da leitzen bat (*Maternus*).

8.4 Sartaldekoko (latinaren aurreko) toponimia indoeuoparra

Salaberrik (2015) Arabako bostehunetik gora toponimo nagusi (herri izen) bildu eta eralki ditu euskal onomastikan erreferentziazkoa den liburu mardul batean. Zenbait gauza azpimarra daitezke narraion auziaren karietara.

Batetik, (seguru antzean) etorki IEekoa den herri izen gutxi dago, hiru besterik ez: *Karkamu/ Cárcamo* (Gaubea; Salaberri, 2015, 150 or.), *Lezama* (Amurrio; Salaberri, 2015, 257. or.) eta *Osma* (Gaubea; Salaberri, 2015, 319-320. or.).

Ez da harritzekoa, oro har, IE saileko toponimo gutxi samar dagoelako Araban, izan nagusi, izan txiki (ik. 6. mapa). Lehenbizikoen artean ditugu *Aldama* (Amurrio, auzoa; ik. Zaldúa, 2016, 191. or.), *Arkamu/ Arcamo* (Barrundia-Leintz Gatzaga, mendia; Zaldúa, 2020, 597. or.; cfr. Zegamako *Arakama*-rekin), *Arkamu/ Arcamo* (Erriberagoitia-Gaubea-Kuartango, mendilerroa; Zaldúa, 2020, 597. or.), *Legizama* (Zuhatza [Aiara], auzoa; Zaldúa, 2016, 200. or.), *Toloño / Doroñu* (mendikatea / herrixka; Salaberri, 2015, 158. or.; Zaldúa, 2022, 26, 90-91. or.), eta, beharbada, *Andamón* (Kanpezu-Genevilla, auzoa; Zaldúa, 2020, 598. or.) ere bai. Bigarrenen multzoan, berriz, *Ledama* (Agurain-Legutio, aurkintza; Zaldúa, 2016, 196-197. or.), *Zalama* (Oteo [Kanpezu], aurkintza; Zaldúa, 2016, 203. or.) eta *Zezama* (Entzia, aurkintza; Zaldúa, 2016, 199. or.) sartu behar dira. Arreta pixka bat jartzen diona jabetuko da, azken laurak izan ezik, beste guztiak Arabako sartaldean direla, antroponimia IE gehien dagoen lekuetatik urrun.

Sustrai hispaniar-zeltakoak diratekeen alorrean, *Birgarabarren* eta *Birgaragoien* (Arraia-Maeztu; Salaberri, 2015, 139-140. or.) nahiz *Gebara* (Barrundia; Salaberri, 2015, 200. or.) herri izenak dauzkagu. Gogora bedi aurrenekoan badela pertsona izen IE baten mostra duen hilarria.

Buruenik, apika, *Berganzo* (Zambrana; Salaberri, 2015, 131. or.), *Bergonda/ Bergüenda* (Lantarón; Salaberri, 2015, 132. or.), *Gatzaga Burandon/ Salinillas de Buradón* (bigarren osagaia; Labastida; Salaberri, 2015, 341. or.), *Leza* (Salaberri, 2015, 256. or.), *Iruña Oka* (bigarren osagaia; Salaberri (2015, 221. or.) eta *Páganos* (Guardia; Salaberri, 2015, 326. or.) ere sorburu zeltiberiarrekoak izan daitezke. Hondar bietan (edo oso hurbil) badaude jende izen IEen arrastoak.

Salaberrik (2015) jasotzen eta bahetzen dituen Arabako herri izenen artean ez dira asko enda IEekoak (% 2,5). Toponimo nagusien hainbateko hori ez da asko aldatzen goian aipatu beste bostak (txikiak) kontuan hartu ezker, ezta *Araba* koronimoa gehituko bagenu ere (ik. Salaberri, 2015, 81. or.).

Salaberrik xehatzen dituen herri izenen artean bada bereziki interesgarria den sortatxo bat: deizio IEak oinarritako dituzketen deantroponimikoena (jabetzako atzizkiak atxiki zaizkien izen propioena). Horien artean daude, adibidez, *Añana* (← **[uilla] annana?*; Salaberri, 2015, 340. or.), *Araia* (← **[uilla] haraiana?*; Salaberri, 2015, 82-83. or.), *Araiko* (Trebiñu; ← **[fundu] araicu*; Salaberri, 2015, 83. or.; cfr. Nafarroako *Araitz*) eta *Ehari* (Gasteiz; ← **[uilla] Elani*; Salaberri, 2015, 165. or.; cfr. Bizkaiko *Erandio* [*< Elande*]), guztiak lehen osagaitzat lan honetan darabiltzadan antroponimoak dituzketenak. Arlo

berekoa dateke, menturaz, *Turiso* (Lantarón) (Salaberri, 2015, 363. or.). *Doroñu*-k (Trebiñu) ere iturburu IEa duela ematen du (← **[fundu] toloninu*; Salaberri, 2015, 157-158. or.), baina, ezaguna denez, *Tullonio* ez da hilarrietan dokumentatu, bai, ordea, Dulantzín kausituriko (desagertutako) aldare famatuan.

Adibide horiek guztiek, besteak beste, argi adieraziko lukete lehenbiziko elementuak (IE iturburukoak) latinezkotzat zeuzkatela, jabetza berrekailuak (-ana, -icu, -inu...) atxiki zizkietenean deantroponimikoak sortzeko.



- Herri izena (ziurra). ■ Auzo izena (ziurra). ▲ Mendi(lerro) izena (ziurra).
 ▲ Toponimo txikia (ziurra). ● Herri izena (datekeena). ■ Auzo izena (datekeena).
 ○ Herri izena (izan daitekeena).

6. Mapa. Indoeuropar jatorriko Arabako toponimoen mapa.

(Iturriak: Salaberri 2015 eta Zaldúa 2016, 2020).

Horrela, ahotan hartu berri ditudan hogeita bat (21) laginak mapan batera ikusita, Araban latinaren aurreko jatorri indoeuroparreko toki izen asko dagoela dirudike, baina kontuan har euskal leinukoak milaka direla eta, gainera, ez direla gutxi, beste enbor batekoak (hispaniar-zeltak, latinezkoak) izanagatik, (antzinatik) euskal araura bilakatu direnak (ik. Salaberri, 2016).

9. Hego-sartaldearen ondoko lurraldearen hizkuntza testuingurua Antzinaroan

9.1 Hispania indoeuroparra eta Zeltiberia

Erroma heldu zenean, Hispaniako barruti indoeuroparra nabarra zen. Badirudi zeltak Penintsulako hiru partetan bizi zirela: erdialdean, hego-sartaldean eta ipar-sartaldean.

Zaila da, izaera edo alde anitzeko ingurumari horretan, Zeltiberia non hasten eta non bukatzen zen zehaztea, zer esanik ez han eta ondoan bizi ziren kultura bereko edo bertsuko erkidegoak bakartzea. Batetik, bazeudelako, *stricto sensu*, «zeltiberiarrak» ez ziren (antzeko nortasuna zuten) herri hispaniar-zeltak eta, bestetik, daitekeena delako alde zuretik, sortzez, zeltak ez ziren herrialdeak «zeltiberiartu» izana.

Nekez ezar daiteke, ondorioz, Zeltiberiaren muga zehatzik; asko jota, gutxi gorabeherako marrak irudika daitezke. Guztiarekin, Zeltiberiak egungo Soria probintziako lurrak eta Guadalajara nahiz Cuencako zati handi bana hartzen zituen, baita ere Segoviako sortaldeko parte, Burgosko eta Errioxako hegoaldea, Zaragoza eta Teruelgo sartaldea eta Valentziako ipar-sartaldeko zerrenda (Lorrio, 1995, 85. or.). Besterik da Extremadurako eta Portugalgo arrasto zelten auzia; Pliniok (III, 10 eta 13) ahotan hartzen duen zeltiberiarren sartalderanzko hedapenarekin zerikusia izan dezakete, menturaz.

Zeltiberiarrei buruz idatzitako doktorego tesian, Lorriok (1995, 77-79. or.; *gfr.* 2011, 59-60. or.) garrantzi handia ematen die *Celtius* eta *Celtiber* deizioei («etnonimoei») eta haien aldaerei zeltiberiarturiko parajeak zeintzuk diren jakiteko. Lehenengoaren indargunea Lusitanian eta betoien bizilekuaren hegoaldean zegokeen; bigarrena, berriz, sakabanatuago ageri da, zeltiberiarren berezko lurraldetik kanpo betiere. Izen horien banaketak zelten eta zeltiberiarren barrutiak zedarritzen laguntzen dute, bazterketaz edo eskusioz lagundu ere, (nortasunaren eta jatorriaren adierazle diren heinean) garbi dagoelako onimo horiek bertakoak, tokian tokikoak, ez ziren gizon-emakumeak izendatzen zituztela. Horregatik iruditzen zaizkio Madrilgo historialariari esanguratsuak, esparru zelta «era negatiboan» definitzea ahalbidetzeaz gainera, lekualdatze eremuak azaleratzen dituztelako (Lusitania eta Betonia batik bat).

Adierazgarria begitantzen zaio *Ambatus*-en kasua ere. Batetik, gizarte zeltan «klientelismoak» edo esanekotasunak zuen muntaren berri ematen duelako (*gfr.* xtg *ambactos*

‘zerbitzaria’) eta, bestetik, Madrilgoaren aburuz, zeltiberiarturikoen artean gehiago erabili bide zelako sortzeko zeltiberiarren artean baino.

«Gentilitateak» («familia-taldeak», «cognatioak») eta haien izenak ere garrantzitsutzat jotzen ditu Lorriok (1995, 80–82. or.) gizarte zelta ezaugarritzeko orduan. Familia arloko multzotzat dauzka, gehienez ere lau bat belaunaldi irauteen zuketanak (*gfr.* De Hoz, 1986, 91. or. *et passim*); beraz, bada, talde iragankorrak eta txikiak ziratekeen (ik. 9.3 §).

9.2 Zeltiberierazko epigrafia

Kultura epigrafiko zeltiberiarraren loraldia K.a. II. gizaldian hasi zen, erromatarren konkistaren ondoren, ezagutu, idazkera paleohispaniarra («iberiarra») lehendik (K.a. III. mendetik) ezagutzen zutela badirudi ere (Beltrán & Jordán, 2016, 27. or.; Beltrán & Jordán, 2022, 292. or.).

Inskripzio gehienak signario paleohispaniarrean (aldaera zeltiberiarrean) irarrita daude, baina aro aldaketatik aurrera, gero eta gehiago, zeltiberiarrek alfabeto latinoari baliatu zuten, izkiriatzeko era zaharraren ordeztu. Latinez emandako testu iberiar gutxi kausitu da, baina zeltiberiarrek (eta lusitaniarrek) Erromako alfabetoari usu baliatu zuten beren hizkuntzan komunikatzeko.

Guztira, mila hitz baino gehiago daude dokumentatuta. Gehienak jende nahiz toki izenak dira eta asko errepikatuta daude edo, besterik gabe, aldaerak dira.

K.o. I. mendearen lehen hamarkadetatik aitzina zeltiberieraren idatzizko aztarrenik ez dago. Adituek (Beltrán & Jordán, 2022, 272. or.) uste dute sasoi horretatik aitzin erabilera familia girora mugatu edo murriztu zatekeela eta hurrengo hamarkadetan desagertu. Arras periferikoak eta urbanizazio maila eskasekoak ziren tokietan gehiago iraun bide zuela deritzoten autore batzuk badira (Díaz & Estarán & Simón, 2022, 450, 453. or.).

Epigrafia zeltiberiarraren esparruak Duero, Tajo, Júcar eta Turia ibaien haran garaiak hartzen ditu, baita Ebroren goiko eta erdiko ibarreko hegoaldeko isurialdea ere (Jordán, 2008, 10. or.; Beltrán & Jordán, 2022, 271. or.; *gfr.* Ramírez, 1999, 18. or.).

Zeltiberierazko bostehun eta hirurogeita hamar (570) idazkuntatik gora dago. Gehienak zeramika edo *instrumentum* gainean egindako grafito laburrak dira, baina badaude harri gainean zizelkaturiko dozena bat epitafio, hogeitabat erlijio labar-grafito, brontzeko *tesserae hospitales* mordoa eta, batez ere, tamaina ertain edo handiko zenbait brontze (testu luzeekin). Lekukotasun horiei hirurogeita bost (65) bat zekatako edo txanpon-etxetako diruetan ezarritako legendak gehitu behar zaizkie.

Hizki bakarrekoak (errotulu «monoliteroak») alde batera utziz gero, zeltiberiera ia hirurehun inskripzioetan dokumentatzen da. Luzera edo interes handiena dutenak berrehun bat dira (Beltrán & Jordán, 2016, 27., 35-36. or.; Beltrán & Jordán, 2022, 270, 272. or.).

Epigrafia zeltiberiarra bi objektu edo euskarri mota nagusik ezaugarritzen dute: *tesserae hospitales* direlakoek eta hainbat neurritako brontzezko plaken gaineko testuek. Brontzea hobesteak eta, batez ere, metal horrekin egindako *tesserae hospitales*-ek, eredu erromatarren errainuaren berri ematen dute.

Teserak epigrafia zeltiberiarraren objektu mota bereizgarriena dira, bai zenbatekoarengatik (berrogeita hamar bat ale), bai lurralde osoan zehar duten banaketa homogeneoarengatik. Askok jende (eta toki) izenak dauzkate: **lubos alizokum aualo ke(ntis) kontebiaz belaiskaz** (Hesp. Z.00.01); **retukenos uisalikum** (Hesp. SP.02.05); **berkuakum : sakas** (Hesp. NA.01.01).

Xafletan irarritako testuen artean, «Botorritako Brontzeak» azpimarratu behar dira. Signario paleohispaniarrean grabaturiko *Botorrita III* delakoan, adibidez, ehun eta laurogeita hamar (190) pertsona izen pasatxoko zerrenda dago. Zeltiberiarrak ez ezik (gehienak), badaude bestelako jende izenak (Beltrán & Jordán, 2022, 319. or.), baina kasu guztietan, edo ia guztietan, deizio horiek (bai iberiarrak, bai grekoak, bai latinoak) segida onomastiko zeltiberiarren barruan daude. Antroponimo zeltiberiarretan, idionimoari (izen bakarrari) genonimoak (familia multzoaren izenak) jarraitzen dio maizenik (ik. 9.3 §), adibidez: **belsu : uiriaskum**; (*Belsu*, *Biriasko*-tarren ahaidetasun harreman taldekoa).

Botorrita II brontzean, *Tabula contebriensis* delakoan, latinez jakitera emandako K.a. 87. urteko epaia leitu daiteke, *Salluie*-ren (Zaragozaren, hiri iberiarraren) eta *Allauon*-en (Alagón-en?, hiri baskoiaren) arteko gatazka bati buruzkoa. Lehenbizikoen arrazoiak hango bertako [.J]ASSIVS [.J]EIHAR F(ILIVS) SALLVIENSIS-ek aldeztu zituen. *Senatus contrebiensis*-eko kideek (magistratuek), berriz, *izen bakarra + ahaidetasun taldearen izena + aitaren izena + [filius]* erako izenak dituzte (LVBBVS VRDINOCVM LETONDONIS F...); ik. 27. argk.



27. Argazkia. Botorrita II brontzearen xehetasuna. Zaragozako Museoa. J. Garrido.

Goian esan dudan moduan, harri gainean ezarritako zeltiberierazko dozena bat inskripzio besterik ez da ezagutzen. Behinolako *Clunia Sulpician*-n (Peñalba de Castron, Burgosen) da Zeltiberian aurkitu den epitafio sorta bakarra.

Harrizko hormen gainean alfabeto latinoz izkiriaturiko errotuluen artean, Peñalba de Villastarkoak (Teruelgoak) nabarmendu beharra dago (latinezko grafitoen ondoan ipinitakoak haiek). Dirudienez, K.a. I. – K.o. I. jendemendeetakoak dira (Beltrán & Jordán, 2022, 297-299, 314. or.). Gehienak egitura sinpleko antroponimoei dagozkie (GVANDOS COTIRIQVM).

Instrumenta gaineko inskripzio gehienak jabetza markak dira. Numantziako multzoa gailentzen da haien artean. Ematen duenez, batzuek familia izenekin zerikusia izan dezakete (Beltrán & Jordán, 2022, 308. or.).

Txanponei datxekienez, lau motako legendak dituzkete: singularreko nominatiboan (**arekorata**) edo ablatiboan (**arekorataz**) diren toponimoak eta singularreko nominatiboan (**areikoratikos**) nahiz pluraleko genitiboan dauden gentilizioak (**kontebakom**, **belaiscom**) (De Hoz, 1986, 66. or.; Lorrio, 1995, 554. or.; Beltrán & Jordán, 2022, 310. or.).

Epigrafiak zeltiberiarren esparruaren barnean ez da barrutirik antzematen. Erakuskari mota bereizgarrienak –brontzezko xaflen eta plaken gaineko testuak eta *tesserae hospitales*-ak– eremu osoan kausitu dira eta gauza bera jazotzen da hilotitzekin. Era berean, badira toki batzuk, Ebroko erdialdeko haranaren ipar-mendebaldea bezala, adibidez, diru asko jaulki zutenak; txanpon-etxe zeltiberiarren kasuan, (geografia arloko) banaketa bat dator, oro har, gainerako inskripzioenarekin (Beltrán & Jordán, 2022, 295-296. or.).

9.3 Ahaidetasunezko harreman-taldeak

Jende izenen eta, bereziki, haien osaketaren ikerketaren bidez norbanakoen nahiz erkidegoen nortasunari buruzko ondorioak atera daitezke zenbait aldiz.

Adibidez, gauza jakina da Hispaniako alde indoeuroparreko zenbait herri indigenen gizarte antolaketa «gentilizio erakoa» zela, gizabanakoen arteko loturak ahaidetasun harremanetan funtsatzen zirela. Orobat, badakigu zeltiberiarrek eta haien inguruan bizi ziren jatorri bereko beste herri batzuek pertsona izenak eratzeke modu berezia zutela eta, molde hori erabiltzekotan, ezinbestekoa zela ahaidetasun harreman taldea barneratzea.

Giza-talde horiei «gentilitateak», «*cognatio*»-ak nahiz «(familiaz gaindiko) antolaketa unitate edo erakunde indigenak» esaten zaie eta haiei deitzeko izenei, oster, «genonimoak».

Hori guztia horrela delarik, onimo berezi hori duten epigrafeek, modu batera edo bestera, Antzinaroko Penintsulako zati bateko gizarte ereduaren berri emate dute. Haien

arrastoa K.a. II. gizalditik K.o. III.era arte jarrai daiteke, antza, eta isoglosak Tajoren erdiko ibilguaren iparraldeko Sistema Zentralaren alderdia, Zeltiberia, Kantabriaren zatirik handiena eta asturren bizilekuaren sortaldea hartzen ditu, besteak beste (ik. 7. mapa).

Zeltiberiarrek, idionimo baten eta ahaidetasun talde baten deizioaren bidez izendatzen zituzten eskuarki pertsonak (**sekontios uiriaskum** [Hesp. Onom.4051]; **kalaitos muturiskum** [Hesp. Onom.2717]), batzuetan, osagai bakarra badago ere (**elatunako** [Hesp. Onom. 2362]). Egitura hori onomastika molde edo formula zeltiberiarraren tasun bereizgarria da, erromatarrengan eta Penintsula Italikoko antzinako beste herri batzuegan baizik ez baita dokumentatu Europako hegoaldean (Beltrán & Jordán, 2022, 291. or.).

Era osatuenetan eta formalenetan bi elementu horien aldamenean aitaren izena (patronimoa) egon daiteke: **lubos kounesikum melmunos** (Hesp. Onom. 2898); **lubos alizokum aualo ke** (Hesp. Onom. 2899). Gizonezkoen eta emakumezkoen formulen artean ez dago diferentziarik; idionimoa besterik ez da aldatzen (Beltrán & Jordán, 2016, 23, 26. or.; Beltrán & Jordán, 2022, 291. or.).

Gentilitateak, ikusi dugunez, signario paleohispaniarrean ez ezen, alfabeto latinoan ere aditzera eman zituzten. Esate baterako, Peñalba de Villastarko idazkun batean TVRROS CAROQVM dugu (Hesp. Onom. 4601). Botorritako II. brontzean *senatus contrebiensis*-eko kideak izendapen modu luzearekin (LESSO SIRISCVM LVBBI F) zerrendatzen direla ere aipatu dut lehen.

Manuel Ramírez Sánchez-ek, gai honi buruz 1999an argitara emandako doktorego tesian, antolaketa unitate indigenen laginak dituzten ia lauhun (400) antroponimo bildu zituen eremu zeltiberiarrean. Hori da ezagutzen dudana monografia bakarra. Jürgen Untermann izan zen M. C. González Rodríguez-ek zuzenduriko lana epaitu zuen epaimahaiaren burua.

Hurrengo orrialdeetan, nagusiki, Ramírezen lanari jarraituko natzaio, baina ez harenari bakarrik.

9.3.1 Ahaidetasun taldeen izenak dauzkaten inskripzioak


Zeltiberieraz nahiz latinez jakitera emandako ahaidetasun talde indigenen izenak bereizten dituen tasun nagusia **-ko-/-co-** elementua da. Adjektibo denominalak dira, horrenbestez, antroponimo batetik eratorriak, taldearen arbaso komunaren izena zatekeenetik.

Epigrafia zeltiberierazkoan **-ko** era anitzetan ager daiteke, esan nahi baita aurretik askotariko soinuak dituela, baina, aukera guztien artean, **-iko** segida nagusitzen da.

Aldaera batzuek latinezko inskripzioetan iraun dute, baina beste batzuek ez dute arrastorik utzi haietan. Beltránek eta Jordánek (2022, 285. or.) azpimarratzen dute, jende izenak eratzeko ez ezik, **-ko-**/**-co-** toponimoetan funtsaturiko adjektibo izendatzaileak sortzeko ere baliatu zela (**aratikos**; **belaiskom**; **TVRIASICA**; **kortonikum**...).

Idazkun zeltiberierazkoetan **-um** (pl. gen.) gailentzen da akabailan, nahiz eta badi-ren autoreak, Ramírez (1999) edo Luján (2016, 229. or.) esaterako, pentsatzen dutenak genonimoak **-o-**rekin (gen. sing.) hornituta ere egon daitezkeela (**louanikoo** : **koorin-nau** [Hesp. Onom. 2889]).

Gentilitate izenak dauzkaten zeltiberierazko lekukotasun berantiarrenak edo berrienak Peñalba de Villastarko (Teruelgo) harpeko horman (latinezko alfabetoan) irarritakoak dirateke. Aditu gehienek uste dute K.a. I. - K.o I. mendeen artekoak direla. Zaharrenak, ordea, *tesserae hospitales*-etakoak dira (ik. 9.2 §)



7. Mapa. ● **-kum**. ● **-QVM**. ● **-CVM**.

Pluraleko genitiboan diren Iberiar penintsulako ahaidetasun harreman talde izenak.

Iturria: *Hesperia* (cfr. Gorrotxategi, 2015, 17. or.)

Latinezko testuetan ere ahaidetasun taldea pluraleko genitiboan adierazten da maizenik. Xehetasunetan sartuz gero, diodan ohikoa dela *-cum* akabaila *-q* batean laburtzea. Zeltiberiatik kanpo badaude berrekailuaren herskaria ahostunduta duten pluraleko genitiboen adibideak: *Alionig(um)*, *Boddegun* (Hesp. Onom.1167 eta 4571).

Genonimoa, genitiboa ez den kasuren batean deklinatuta egon daiteke (*-co-* atzizkiarekin betiere). Normalean, horrelakoak, cognomen gisa ezartzen dira onomastika sekuentzian eta *-pluraleko genitiboak bezala-* pertsona izenetatik eratorritakoak dira. Latinezko epigrafian baino ez dira dokumentatzen eta, nolabait esateko, molde erromatarretik ohi deneko pluraleko genitibotik baino gertuago daude (Ramírez, 1999, 57-58, 60-61. or.).

Gentilitatea barneratuta duten latinezko pertsona izenak K.o. I. mendearen eta K.o. III.aren artekoak dirateke, gehienak I. eta II. gizaldien bitartekoak (Ramírez, 1999, 23. or.). Lara de los Infantesen dago eskualde zeltiberiarreko lagin metaketa nagusia (ik. 7. mapa).

9.3.2 Genonimoa duten jende izen motak

Ramírezek (1999, 100. or.) cognatioaren izena daukaten bost onomastika segida edo antroponimo mota nagusi bereizten ditu:

1. motakoak oso sinpleak dira. Zeltiberierazko inskripzio jakin batzuetan (batez ere, zeramika gainean egindako grafitoetan; **elaturako**) eta nortasun indigena (IE) agerikoa duten epigrafe latinoetan (*Alionica*; Hesp. Onom.575) dokumentatuta daude. Lagin zaharrenak (teseretakoak eta zeramiketako grafitoetakoak) K.a. I. mendekoak izan daitezke eta berrienak K.o. II. gizaldikoak (latinezko idazkунetan daudenak).

2. mota da, alde handiarekin, Zeltiberian gehien erabiltzen den onomastika eredua, «prototipikotzat» hartzen dena, nolabait esan (**sekontius uiriaskum**). Egin kontu: *Botorrita III* brontzean molde honekin eraturiko ehun eta hamabost (115) bat jende izen badaude. Signario paleohispaniarrean nahiz latinezko alfabetoan irarritako zeltiberierazko inskripzioetan eta latinezko idazkунetan ageri da (TVRROS CĀROQVM). Lekukotasunen kronologia zabala da. K.a. I. jendemendean hasten eta K.o. III. ean amaitzen da (Ramírez, 1999, 110-116. or.).

3. motak egitura bat baino gehiago biltzen ditu, gehienak *Botorrita III* brontzean baizik leitzen ez direnak (**abu++ akuiakue araiokum**; Hesp. Onom.379) eta beste inskripzio indigenetan parekorik ez dutenak (Ramírez, 1999, 120. or.).

4.ekoak aurreko motetakoak baino formula onomastiko konplexuagoak dira, filiazioaren adierazpena baitute hondarrean (LESSO SIRISCVM LVBBI F. [Botorrita

II)). Goian aipatutako 2. motaren ondoren, ahaidetasun talde baten izena duten formula onomastikoen artean ohikoena da, bai inskripzio zeltiberiarretan, bai latinezkoetan (Ramírez, 1999, 126, 130. or.).

5. mota guztiz erromatarrak diren formula onomastikoez osatzen dute, hots, genonimoa erromatar eskemak berezkoak dituen elementuen (praenomenaren, nomenaren, cognomenaren, tribuaren eta abarren) aldamenean daukatenez (L. VAL(ERIO) LETONDIQ(VM) [Hesp. Onom.4145]). Guztiz indigenak ez ziren, bestela esan, erromanizata zeuden onomastika testuinguruen berri emango luke (Ramírez, 1999, 102, 137-138. or.).

Ramírezek (1999, 103, 106, 107. or.) antolaketa unitate indigenaren baten izena barneratuta duten hirurehun eta laurogeita bi (382) onomastika segida zerrendatzen ditu. Gehienak 2. motakoak (154, guztien % 41 inguru) eta 4. motakoak (140, ia % 37) dira. Bi eraketa horiek, beraz, adibideen % 78a batzen dute. Hauek dira azpimultzo naroenak: «2a», *idionimoa* + *genonimoa* (152 ale); «4a» *idionimoa* + *genonimoa* + *patronimoa* (sing. gen.) (66 ale); «4b» *idionimoa* + *genonimoa* + *patronimoa* (sing. gen.) + *ffilius* (60 ale); «5a» *nomena* + *cognomena* + *patronimoa* (sing. gen.) + *ffilius* (10 ale).

Ik. 2. Taula.

P.	Nom.	Cognom. / Iz. bak.	Genon.	Filiazioa	H	Kok.	Gizaldia
			elatunako		z.	Num.	I. K.a.
		sekontios	uiriasukum		z.	Bot. III	I. K.a.
		kalaitos	muturiskum		z.	Bot. III	I. K.a.
		lubos	kounesikum	melmunos bintis	z.	Bot. III	I. K.a.
		lubos	alizokum	aualo ke(ntis?)	z.	Froehner	I. K.a.
		TVRROS	CAROQVM		l.	Peñ.Vill.	I K.a-I.K.o.
		LESSO	SIRISCVM	LVBBI F	l.	Bot. II	I. K.a.
		L(VCIVS)	TRITALICVM	AITONIS FLAVI F	l.	S. E. Gorm.	III. K.o
L.	VAL(ERIO)		LETONDIQ(VM)		l.	S. E. Gorm.	II-III. K.o
	COEMEA	PLANDICA		PEDOLI F	l.	L. d. l. Inf.	II-III. K.o.

P.: praenomena. *Nom.*: nomena. *Cognom.*: cognomena. *Iz. bak.*: izen bakarra (*idionimoa*).

Genon.: genonimoa. *H.*: hizkuntza. *l.*: latina. *z.*: zeltiberiera. *Kok.*: kokapena.

Num.: Numantzia. *Bot.*: Botorrita. *Peñ. Vill.*: Peñalba de Villastar.

S. E. Gorm.: San Esteban de Gormáz. *L. d. l. Inf.*: Lara de los Infantes.

2. Taula. *Genonimoa* daukaten antroponimoen egitura naroenak.

Arreta pixka bat jartzen duena konturatuko da Assako (Lantziegoko, ALnH1) eta Laudioko (ALdH1) antroponimoen egitura, autore batzuen irudiko «*Attesuclom*» eta *Licoiom* genonimoak lituzketenena, alegia, ez datorrela bat goiko taulan biltzen diren hurrenkera jorienekin.


9.3.3 Bilakaera eta latinera moldaketa

Latinezko epitafioetan, guztira, ehun eta hogeita hamar (130) genonimotik gora zenbat daitezke. Hileta arloko inskripziook dira, hain justu, I. mendetik III.era bitartean ahaidetasun taldeek izan zuten garrantziaren froga bistakoenetakoa. Goi Inperioaren garaian gizarte zeltiberiarrean, artean, zuten muntaren eta -aro aldaketaren aitzineko egoerarekin alderatuz gero- izandako aldaketaren berri ematen dute.

Esan dudanez, ahaidetasun taldea bi eratara azalera zitekeen nagusiki: pluraleko geniti-boaren bidez edo cognomen latinoa balitz bezala txertatuta (Ramírez, 1999, 274, 277. or.).

Azken horietako gehienak nahiko erraz identifikatzen dira, *-co-* elementuaren aldaeraren bat duten onimoak izaten baitira. Badaude, horratik, nomen posizioan ezarritako adibide urri batzuk, batez ere testuinguru gutxi erromanizatueta; lanak izaten dira horrelakoak bakartzeko (Ramírez, 1999, 852-853. or.).

-Co- berrekailua duten genonimook, orduko, ez daude ohi deneko (*-um/-un* edo *-om/-on*) hondarkiekin hornituta; erromatar moldearen eragina dute, argi eta garbi. Herritarrek gentilitatea aipatzen jarraitzen dute, baina nahiago dute eredu erromatarretik hurbilago dagoen era batean egin, hau da, cognomen bezala barneratuta (Ramírez, 1999, 249. or.). Ik. 28. eta 29. argk.




28. Argazkia. Segio Lougesterico Aionis f.-en oroitarria (*Hesp. Onom.* 4022).
Burgosko Museoa.

Buruenik, badira, gentilitatearen ordeztasun, *Paternus/a*, *Maternus/a* edo *Fraternus/a* ahaidetasun *cognomina* latindarrak dituzten jende izenak. K.o. I gizalditik aitzina indartzen dira, indigenak ziren baina azkar erromatartzen ari bide ziren testuinguruetan indartu ere (L. LVTATIVS PATE[RNVS]; Lara de los Infantes, HE 25698).

Eskualde zeltiberiarrean, I. mendetik III.era bitartean, *cognatio*a jakitera emateko era, ohitura erromatarrekin bat zetorren formula onomastikoa erakusteko interes handiagoaren edo txikiagoaren arabera zen, horrenbestez (Ramírez, 1999, 252-254. or.). Batzuek nahiago zuten ohiko pluraleko genitiboa erabili, L(VCIVS) TRITALICVM AITONIS FLAVI F(ILIVS)-ek bezala (San Esteban de Gormáz, Hesp. Onom.4963). Beste batzuek onomastika segidan *cognomen* bezala eranstea atsegin zuten, *Medditus Stennico Lo(---) fi(Iius)*-ek kasu (Alcozar; HE 24200). Azkenik, baziren ahaidetasuna *paternus/a* *cognomen* latinoaren bidez adieraztea (ezkutatzea?) hobesten zuten gizon-emakumeak, Lara de los Infantesko L(VCIVS) LVTATIVS PATERNVS-ek egin gisan (HE 25698).

Teserek, txanponak, gizarte antolakuntza eredu gentilizioak-ahaidetasun harreman taldeen izenak herri hispaniar-zeltak ezaugarritzeko duten inportantzia jakinda eta, ikusirik, Ebro ondoko bi gunetan (Vianan eta Cintruénigo-Fitero-Cascanten) izan ezik, Euskal Herriko sartaldean ez dagoela haien aztarnarik ia, batere ez esateagatik, kosta egiten zait onestea Erroma iritsi zenean gurean zeltiberiarrak edo hispaniar-zeltak nagusi zirela eta haien hizkuntza gailentzen zela.



29. Argazkia. Ambata Aionca T[---]ti f.-ren epitafioa (Hesp. Onom. 673). Burgosko Museoa.

10. Araba-Nafarroetako etorki indoeuroparreko izenen balizko nondik norakoaren arrazoia

10.1 Izenen eta jendeen menturazko jatorria

Gurean behin baino gehiagotan erabiltzen diren hamazazpi (17) izenetatik gehienak Zeltiberian dokumentatzen dira, izan Botorritako I. II. eta III. brontzeetan, izan Burgosko edo Errioxako oroitarrietan, edo bietan. Beste erreferentzia garrantzitsua Penintsularen sartaldea da, ez direlako gutxi Cáceresen, Portugalen edo bietan lekukotzen diren deizioak. Buruenik, badaude Leónen azaltzen diren batzuk ere.

Behin bakarrik baliatzen diren hogeita zortzi (28) onimoetatik, hamabost (15) dira Hispaniako beste toki batzuetan aurkitu direnak. Haien artean, balizko bi foku edo sorburu azpimarra daitezke, Zeltiberia (Botorrita, Burgos) eta Portugal. Oroit bedi, hemen behin bakarrik ageri direnen ia beste erdia (13) ez dela beste inon kausitu, hau da, *hapaxak* direla, nolabait esan.

Araban eta Nafarroan idorotako onimo IEak kausitzen diren Penintsulako alderdien artean pisu berezia duten eremu batzuk badaude, beraz, Zeltiberia (19 izen), Portugal-Cáceres (17 izen) eta León (8 izen). Bi leku jakin gailentzen dira guztien artean, Botorrita (behinolako *Contrebia Belaisca*) (12) eta Lara de los Infantes (*Noua Augusta*?) (7). Peñalba de Castro (*Clunia Sulpicia*) (3) eta, Euskal Herritik gertuago, Herramelluri (iragan denboretako *Libia*) ere aipatu nahi ditut.

Nago, onimo batzuek, apika, beren menturazko iturburuaren berri emango luketen indargune garbi samarrak dituztela. Gurean irakur daitezkeenei erreparatuz gero, Burgos, batez ere, Lara de los Infantes, Botorrita, León, Cáceres eta Portugal nabarmentzen dira balizko sorleketako.

Uste izatekoa da, hortaz, batzuk Zeltiberiatik sartaldera eta sortaldera (gurera) zabaldu zirela, *Ambatus/a* edo *Coema* (eta **kalaitos**, *Calaetus*?) kasu, baina ematen du beste batzuk ezetz, urrutiagotik, Leóndik (*Doiterus*) nahiz Penintsularen hego-sartaldetik iritsi zirela hona; *Boutia*, *Celtius*, *Reburus/inus* nahiz *Viriatius* ditut buruan.

Oldoz daiteke, euren izenak eratzeko, jatorria Euskal Herririk distantzia handira dauden Penintsulako eskualdeetan (Portugalen, Cáceresen, edo Leónen) duten osagaiak hobetsi zituzten jendeetako batzuk (edota haien arbasoak) paraje haietatik

etorritakoak diratekeela; ez du ematen hemengoak eta hangoak onomastika esparru bereko elementuak direnik, ez bada lekualdatu diren pertsonen darabiltzatenak.



30. Argazkia. Coemea Desica Aploni f.-ren hilarria
(*Hesp. Onom.*2053). Burgosko Museoa.

Honetara ondo dator, beste behin, gogoratzea erromatarren aroan garrantzia handiko bide batek, *Iter XXXIV* delakoak, *Burdigala* (Bordele) eta *Asturica* (Astorga) lotzen zituenak, Euskal Herria alderik alde gurutzatzen zuela.

Tokialdatze auziez ari garelarik, adierazgarriak begitantzen zaizkidan bi etsenplu aipatu nahi nituzke.

Cantaber izen etnikoaren («exonimoaren») bost erakuskariak Iruña Okakoak (2) (AIrH6), Kontrastakoak (2) (AKoH6, 8) eta Gastiaingoak (NGaH3) dira, IE erroko antroponimo ugari samar dagoen tokietakoak, horrenbestez. Iberiar penintsulan ez da izen joria, baina, egon, genonimoen oinarri gisa erabili delako bi lekukotasun

badaude, Segovian eta Burgosen (*Cantabr<e>cum* eta *Cantabregun*, hurrenez hurren; ik. 7.2 §). Botorritan ez da azaltzen, horratik.

Kontrastako bi laginetan eta Gastiaingoan filiazioa jakitera ematen du. Hain justu, herri berean (Kontrastan) *Cantabri Tritai f.* eta *Cantabri f.* patronimoak ditugu, agian, bi *Cantaber* zeudelako seinale.

Bada, hala berean, *Celtius*-en arrasto bat Marañónen. Hau ere, IE etorkiko jende izen gehiago badagoen toki batean ageri da. Portugalen (18) eta Cáceresen (12) usu erabilitako deizioa da.

Bi onimo IE horiek epitafioetan gogorarazten diren gizon-emakumeen jatorria jakitea ahalbidetzen dute, bazterketaz edo eskusioz ahalbidetu ere, bistan denez, tokian tokikoak ez ziren pertsonak (kantabriarrak, zeltak) izendatzen zituztelako.

Maneatu dudan eremua «era negatiboan» ezaugarritzen dute, hortaz, hau da, bertako gehienak –Gómez-Morenok nahi bezala– kantabriarrak (edota haien ondorengoak) nahiz zeltak ez zirela erakusten dute eta, bestetik, hilartizetan aipatzen diren gizon-emakumeak nondik etorri ziratekeen iradokitzen. Badirudi, bada, IE sorburuko antroponimia duten oroitarrietan ageri diren zenbait pertsona, menturaz, ez ziratekeela Araba-Nafarroetakoak.

10.2 Azterturiko mostren alegiazko kronologia

Ikusirik bahetu ditudan inskripzio asko ez daudela osorik eta beste batzuk, gutxi edo asko, kaltetuak direla, alegia, gehienetan, –zatiren bat ezabatua dagoelako edo ezin delako ondo ulertu– badela leitzeko zailtasun edo oztoporen bat, baita arazo hori dela medio, argitara eman zituzten autoreek nahiz ondoren xehatu dituztenek proposatzen dituzten balizko irakurketak eta interpretazioak ez datozela beti bat, ikertzaile guztiek falta diren hizkiak eta zatiak ez dituztela era berean osatzen edo berreraikitzen, arriskutsua iruditzen zait mostren kronologia erlatiboaz ezer aditzera ematea.

Nolanahi ere den, ez dut behar baino gehiago esan uste –Penintsulan dituzten ahaideei erreparatuz gero– gurean dokumentatzen diren zenbait izenen formak «sortzezkoak» edo «jatorrizkoak» ez direla esatearekin, hots, ez diruditela zeltiberierazkoak, latinezkoak baizik. Ik. 3. Taula.

Adibide garbia hemen hiru aldiz lekukotzen den *Calaetus*-ena da. Izan ere, Botorritako III. brontzean **kalaitos** (–o hitz-oina duen antroponimo baten singularreko nominatiboa) lautan irakur daiteke, baina hori bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa da jabetzea Peñalba de Villastarko (Teruelgo) (horma batean)

latinezko alfabetoan idatzitako zeltiberierazko (K.a. I.-K.o. I jendemendeetako) epigrafeen artean *Calaitos* forma hirutan irarrita dagoela (cfr. *Seco[nti] f.*, gen. [AOkH5]).

Arab.-Nafar.	Botorita I	Botorrita III	Andelo	Botorrita II	Beste erref. b.
<i>Ablonius</i> (3)	abulu, abulos		abulo-	(<i>Ablo</i>)	<i>Abulaius</i> (CC)
<i>Calaetus</i> (3)		kalaitos (4)			<i>Calaitos</i> (3) (TE)
<i>Tur(a)esamus</i> (5) <i>Turesica</i> (1)		turaios			<i>Turaius</i> (7) (ZA, SA, CC, LE, BU)
<i>Tritaus</i> (3) <i>Tritaiecus</i> (1)		tirtanos tirtanikum tirikantanko			tirtaku (Viana)

Beste erref. b.: beste erreferentzia batzuk.

3. Taula. Araba-Nafarroetan dokumentatzen diren deizio batzuen zeltiberierazko formak.

Halaber, *-ama* superlatibo IEa daukaten Alaitzako (Luzkandoko, AAIH1) *Turesami* (gen.) eta Iruña Okako *Turaesamicio* (AIrH3 alde batera utziz gero, jende izenetan bakar daitezkeen atzizkiak latinetikoak dira (cfr. Salaberri, 2011, 149-150. or.): *-ica* (*Araica*, AKoH5; *Turesica*, AAIH1) / *-(i)ca* (*Araca*, NEsA1) / *-eca* (*-i* + *-ica* → *-i-eca*) (*Sec[- -]eca*, NOIH1); *-ecus* (*-i* + *-icus* → *-i-ecus*) ([*Trit]aieci* [gen.], AOkH1; *Segontiecus*, AOkH6; *Seco[n]tiecus*, AOkH5; *Seg[o]ntieci* [gen.] AOkH8); cfr. *Capicus Capi f.* (Kontrasta, HE 8788); *-inus* ([*Reb]urrini* [gen.] AIbH1); cfr. *Ursia* (Erriberri, HE 7494), *L(ucius) Aurelius Ursinus* (Eslaba [Santakriz], HE 32624), [*V]al(erio) Ursino* (Eslaba, HE 19172).

Euskal Herriko hilarrietan eta aldareetan leitu daitezkeenak, izatez, ez dira (Peñalba de Villastarkoak bezala) latinezko alfabetoan emandako antroponimo hispaniar-zeltak edo zeltiberiarrak, hau da, ez dute ernarazten inskripzioetan oroitarazten diren edo haiek eginarazi zituzten pertsonen zelta saileko hizkuntza zerabiltelako ustea. (Hispaniar-zelta sustraiko) latinezko deizioak dirateke, latinez mintzo ziren gizon-emakumeek ahotan hartu eta idatzarazitakoak.

Kronologia absolutuari bagagozkio, lehenik eta behin, argitu nahi dut hilarri (eta aldare) guztiak beren arkeologia testuingurutik kanpo idorotakoak direla, alegia, ez direla jarri zituzten tokian kausitu. Horrek, noski, ezinezkoa egiten du zehazkiro noiz egin edo ipini zituzten jakitea. Zailtasun hori dela eta, gutxi gorabeherako datazioa jakiteko, formulismoei (*D M, H S E*), adinaren adierazpenari, hilarriaren ezarpenari buruzko argitasunei nahiz antroponimoaren eraketari erreparatzea besterik ez dago (ik. 4.2 eta 6 §).

Autore guztiak bat datoz: gehien-gehienak K.o. I. - III. gizaldien artekoak dirateke, asko, seguruenera, II. mendekoak. Gogora bedi (ik. 9.2 §), salbuespenak salbuespen,

aditu gehienek pentsatzen dutela K.o. I. gizaldiaren amaierarako zeltiberiera galduta edo ihartzear zegoela eta, mintzatzekotan, familia giroan baizik ez zela mintzatzen.

10.3 Hilarrietan eta aldareetan aipatzen diren pertsonen menturazko etorkia eta bideen garrantzia

Irudi du IE sustraiko deizioak zituzten gizon-emakumeen artean jatorri ezberdineko jendea egon zitekeela, hau da, batzuk kanpotik (gertuagotik edo urrutiagotik) iritsitakoak edota haien ondorengoak ziratekeela.

Galdera da zergatik etorri ziratekeen gurera eta zer dela eta bertakotu ziren. Itaun horri ihardestea, ordea, ez dagokigu, nagusiki, guri, hizkuntzalariei, historialariei baizik.

Jakin, badakigu, segur aski, epitafioak eta botoak eginarazi zituzten (hango eta hemengo) pertsona asko ez zirela herritar arruntak edo txiroak, bazutelako oroitarriak ordaintzeko beharrezko sosa eta haiek ulertzeko gaitasuna. Batek baino gehiagok beretzat lan egiten zuten morroiak (jopuak) zeuzkan (*seruus*, *ancilla*). Zoritxarrez, aleturiko idazkunetan ez dago gizon-emakume haien ogibidearen, gizarte mailaren edo estatusaren berariazko zehaztapenik.


Ikerbide bat da uste izatea beste toki batzuetako jendeen etorrera *Iter XXXIV*-arekin lotua dagoela, ez irispide gisa bakarrik, migrazioaren zio bezala baizik. Hari-mutur horri tira eginez gero, aukera bat da pentsatzea sorburu IEeko izenak zituzten zenbaitzuek, hau da, eralki ditugun hilarriak ezarrarazi zituztenetako batek baino gehiagok, Donemiliaga aldean zatekeen *Alba* mansioarekin zerikusia zutela, (zentzu zabalean) hura artatzeaz eta kudeatzeaz arduratzen bide zirela, han lan egitera etorri zirela edo ekarri zituztela, nolabait esateko.

Erromatar gudarostearekin esteka zutelako hipotesia ere erabil daiteke, hots, oste laguntzaileetakoak ziratekeela sinets daiteke, apika, galtzada edota mansioa zaintzen zutenak. Izan ere, lehendik jakina daukagu Goi Inperioan bideek berebiziko munta zutela eta, besteak beste, jagoleak izaten zirela haietan, soldaduak alegia, geldiduneak, igarobideak nahiz puntu garrantzitsuenak babesten zituztenak eta, seguruenera, besteak beste, zergak biltzeaz ere arduratzen zirenak. Oroit bedi, *Calaetus Equesi f(i)lius*) lapurrek hil zutela («a latronibus occisus») Oteitza aldean.

Epigrafeetan gogoratzen diren gizaseme batzuk —era batera edo bestera— armadako kideak edo (bertakoturiko) haien oinordeak ziratekeelako ustekizunaren alde mintzo da Muetzen II. legio augustoarreko beteranoa zen *Aemil(i)o Or[d]unets*-en estela aurkitu izana. Alabaina, lan honetan xehaturiko hilarritzen artean ez dago Muezkotan bezalako zehaztapenik (*veter(ano) [le]g(ionis) II Aug(ustae)*), hots, ez da *expresis verbis* esaten norbait

armadakoa (edo izandakoa) zela eta, bestalde, ez dago Santikurutze Kanpezuko hilarri ezagunean denaren antzeko marrazkirik, gerlariak zirela iradokitzen duen irudirik. Salbuespena, apika, Iruña Okako *Licinius Cantaber*-en epitafioa izan daiteke (ik. 2.4 § eta 3. nahiz 4. irudiak).

Bi azterbide horiek, beharbada, antroponimia IEa duten *Iter XXXIV*-aren ondoko hilartitz batzuen nondik norakoa ulertzen lagun dezakete, baina hegoalderago dauden tokietakoen (Kontrastakoen, Aguilar Kodeskoen) zergatikoa ere argitu beharra dago. Hipotesi bat izan daiteke suposatzea Durruma ingurutik-eta hegoaldera zabaldu zirela edo eraman zituztela (ik. 3.1. §). Konparaziora, bideak, irispideak eta mendiak (azienda-erentzat bazkalekuak) jagoteaz gainera, zergak biltzeaz ardura zitezkeen.



4. Irudia. Prestamerok XVIII. gizaldian egindako Iruña Okako hilarriaren marrazkia. (ALHA-DH-1299 2, II).

Puntu honetan, ez dago sobran Elorzak (1967, 179. or.) hilarrien eta (erromatar) bideen arteko harremanaren kariatara idatzitako lerrook gogora ekartzea.

Hay dos caminos sin embargo, dados tan sólo por probables por Coello, en torno a los cuales aparece un número no pequeño de lápidas. Uno es el camino [...], que iba de Salvatierra a Mendaza, atravesando Ocáriz, Contrasta y Gastiáin en Navarra. Este camino, a mi modo de ver, no tomaba la dirección de Mendaza, sino que proseguía hacia Santa Cruz de Campezo, Marañón (Navarra), Angostina, y entraría en la Rioja por Asa o Laguardia. Hay que tener en cuenta que a lo largo de este camino, que en gran parte coincide con actuales carreteras, se agrupan 28 de las 118 lápidas alavesas, sin tener en cuenta los numerosos epígrafes navarros de Gastiáin y Marañón.

El otro camino pudiera ser muy bien una vía de unión entre los otros dos caminos antes citados, es decir entre la calzada principal y el camino hacia la Rioja.

Idazkunetan gomutan hartzen diren pertsona batzuk, bereziki, urrutiko izena dutenak, era batera edo bestera, bide(ar)ekin uztartuta zeudelako aieruak badu egiantza, baina, lehen esan dudana bezala, hori guztia ikertzea eta hausnartzea historialariei dagokie batez ere, eta ez, guri, hizkuntzalariei.

10.4 Onomastika barrutiak eta hizkuntza esparruak

IE adarreko deizioak zituztenen artean etorki ezberdineko gizon-emakumeak zeudekeen, tartean, kanpotik (ondotik edo urrundik) heldutako jendeak eta haien ondorengoak. Argudio edo hipotesi hori bakarrik, baina, ez da aski, agian, esplikatzeke, konparazio batera, *Segontius*-en indargune nagusia Euskal Herriko zerrenda txiki batean zergatik dagoen (16 erakuskari), Okariz eta Kontrasta artean (Entzian) *Zezama* aurkintza (eta harrobia) egotearen arrazoa zein den edota zer dela eta dugun *Zegama* toponimoa Durruma ingurutik abiatuta, –Aizkorri mendilerroa Leizarrateko (San Adriango) pasabidetik zeharkatuz– Arabako barnealdea eta Gipuzkoako kostaldea lotzen zituen bidean (ik. Zaldua, 2016, 198-199. or.).

Lehenengo eta behin, Gorrotxategik (1993, 122. or.) dioskun moduan, komeni da kontuan izatea onomastika barrutiak eta hizkuntza esparruak ezin direla gauza bertzat hartu, ez dutela zertan bat etorri, asko aldiz hori estrapolazio sinesgarria eta zentzuzkoa izan arren, egia ez izatekotan, iraganean galdu zatekeen mintzaira bat bizitzat jotzean besterik huts egingo ez lukeena.

Bigarrenik, ez da ahantzi behar, *stricto sensu*, izen propioek ez dutela ezer «esan nahi», besterik gabe, gauzak izendatu egiten dituztela eta horregatik ez direla hizkuntza arloko azterkizun egokienak haietan funtsatuz ondorio sendoak ateratzeko. Are gehiago, Mitxelenak (1961, 65-66. or.) azpimarratzen duen bezala, zoritxarrez, pertsona izenak dira bahetzen eta xehatzen zailenak, besteak beste, duten mugikortasunarengatik eta modari lotuta daudelako. Haietatik eskuraturiko inferentziak, beraz, probabilitatezkoak baino ez dira izango. Erretereriako maisuaren irakaspenekin jarraituz, izen berezi sortatxo batek ez du uzten jarraiko hiru edo lau testu lerrok erraz asko ahalbidetuko lituzketen iritzi kategorikoak ematen.

Beraz, bada, –IE kutsua duen eta Penintsulako beste toki batzuetakoarekin bat datorren Araba-Nafarroetako erromatar aroko antroponimiaz ari delarik– Mitxelenak (1964, 126, 127. or.) idatzi gisan, argi izan behar da jende izenak, modari, gutxienez, soinekoa bezain lotuak daudela eta aldatu egiten direla askotariko kultur joeren arabera.

Honela darrai Errenteriako jakintsuak:

Lengua escrita, como podemos comprobar sin trabajo en toda la historia del país, no significa tampoco lengua única, ni siquiera lengua corriente y usual. Pero sí supone un cierto grado de bilingüismo, al menos en algunas clases o grupos de una comunidad. Por ello, aunque nos esforcemos en atenuar por todos los medios la fuerza de estos testimonios, tendremos que aceptar que su coincidencia difícilmente puede explicarse sin admitir que gentes de habla vasca conocían y usaban también, en mayor o menor número, algún dialecto indoeuropeo.

Magister dixit.

Gakoetako bat, ondorioz, Mitxelenak (1969, 37. or.) berak agerian ipinitako dimentsio bertikala edo soziala ez gutxiestean datza. Beti hor da eta ez dago geografia arloko mugen mende, baina, aldi berean, aztarrenen testuinguruari esker, aski zehazkiro finka daiteke.

Hori horrela izanik, ez da erokeria oldoztea erromatarrak Nafarroara (eta Hegoaldeko hiru probintzietara) heldu zirenean –bertakoek, nagusiki, euskal hizkuntza erabili arren–, neurri batean edo bestean, IE arloko mintzairaren bat ezagutzen zuten biztanle batzuek (segur aski nabarmenenek) nahiago zutela (Penintsulako zati handi batean ohikoak ziren edo modan zeuden) IE sorburuko izen «exotikoak» izatea (cfr. Mitxelena, 1982a, 148-149. or.). Antzeko zerbait agitzen da, *mutatis mutandi*, euskal jainkoei eta jainkosei aldareak eskaini zizkietenekin (ik. Zaldúa, 2022, 69. *et passim*).

Hizkuntzaren sailekoa baino gehiago, onomastikaren alorreko gertaera batez arituko ginатеke, euskal hiztunak egon behar baitzuten, baina garaian garaiko kultura ospetsuenak zeltiberiarra, aurrena, eta, gero, Erromakoa izan zirenez gero, ez da harritzekoa zenbait jendek IE sustraiko nahiz G-E enborreko izenen aldeko hautua egitea, are epigrafian urratsa utzi duten gizataldeetako herritarrek (cfr. Zaldúa, 2022, 159. or.).

Gainera, Arabako *Ambata*, *Boutius* eta *Segontius*-en gisako deizioez diharduela, Mitxelenak (de Hoz-en [1981, 34. or. *et passim*] oinatzetan) agerian ipini gisa, argudio etimologikoak ez dira aski ondorioztatzeko antroponimoek izendatzen zituzten pertsonen mintzaira ziurtasunez jakiteko bidea ematen dutela.

Hala eta guztiz ere, pasartearen amaieran Errenteriako jakintsuak onartzen du ematen duela jende (eta leku) izenak saihestezina egiten dutela gurean, eta zehazkiago Arabako toki batzuetan, mintzaira IEa (dirudienez zeltikoa) arrotza ez zitzaien biztanleria guñeak egon zirelako ondorioa. Horrek, baina, ez luke esan nahiko dialekto IEen baten berri bazuten bizileku horietako herritar horiek oso bestelako (euskal) hizkuntza besterik ez zekien jendearekin batera bizi ez zirenik eta, seguruenera, bat baino gehiago (edo gehienak) elebidunak ez zirenik.

Bukatzen joateko, hauxe esango dut lehenik, niretzat argi eta garbi dagoenez gero: bistakoa da erromatartzearen aitzinetik, gutxiago edo gehiago, Euskal Herriko sartaldeak ekarpen indoeuoparra jaso zuela. Alderantzizkoa harritzekoa litzateke, arrazoizkoena unean uneko kultura nagusiek arrastoa uztea delako, latinarena lekuko. Zentzuzkoena da pentsatzea aipatu barrutiak Penintsulako beste eremu batzuekin hartu-emanak izan zituela, baita hizkuntzaren arloan ere (*cf.* Zaldua, 2016, 224. or. eta 2020, 81. or.).

Hori horrela izanagatik ere, baldin nire iritzia estalkirik gabe agertu behar badut, Araba-Nafarroetako toki jakin batzuetako zenbait hilarritan eta aldaretan irakur daitezkeen jatorki IEeko jende izenak ez zaizkit aski iruditzen Erromaren errainuak argitu zuenean Euskal Herriko sartalde osoan (Nafarroako sartaldean nahiz Araba, Bizkai eta Gipuzkoa guztian) euskal hizkuntza ezezaguna zelako teoriari eusteko. Nago datu horiek (bakarrik) ez direla helduleku nahikoa, ez dutela horretarako parada ematen, are IE leinuko oso toponimia gutxi dagoenean, eta jainko izenak oraindik urriago direnean.

11. Ondorio batzuk

11.1 Euskal Herriko sartaldeko Antzinaroko hizkuntzei buruzko ideia linguistikoak

Duela bi mila urte pasatxo, erromatartzea hasi zenean, Euskal Herriko alderdi zabal batean euskal hizkuntza arrotza zelako ustekizuna ez da atzo goizekoa. Euskaldun batek, Arnaut Oihenart zuberotarrak, plazaratu zuen estreinakoz XVII. jendemendean.

Hipotesi horrek XX. gizaldiaren lehen erdian jaso zuen behin betiko bultzada, batez ere, Manuel Gómez-Morenoren (1925) eta, hein batean, Gerhard Bähren (1948) lanei esker. Biek ala biek onomastika arloko argudioak darabiltzate beren aieruaren habetako. Handik hamarkada gutxira (1959an) Ulrich Schmoll hizkuntzalari alemaniarrek ideia muturrera eraman eta *Auskisch* delakoa (antzinako euskara) euskalduna izan den lurraldera Erdi Aroan jazo zatekeen inbasio batekin batera zabaltu zela proposatu zuen.

Egun badira –Gómez-Moreno, Bähr eta Schmollen oinatzetan– Euskal Herriko sartaldean Erroma iristean mintzaira hispaniar-zeltaren bat gailentzen zela defendatzen duten autoreak. Esan gabe doa badagoela –Caro Barojari nahiz Mitxelenari jarraikiz– hipotesi hori txarresten duen euskalaririk, Gorrotxategik, Lakarrak edota Salaberrik egin bezala, baita historialaririk ere, Monteano kasu.

Honenbestez, XX. eta XXI. mendeetako zenbait ikertzailek (hilarrietan-eta euskal sailekoak baino naroagoak diren) enda indoeuroparreko pertsona izenak baliatu (eta baliatzen) dituzte Euskal Herriko zati handi batean Antzinaroan hizkuntza hispaniar-zelta bat nagusitzen zela argudiatzeko.

Balizko bi edo hiru mintzaira ordezkapenez arituko ginateke, hortaz. Lehenbizikoa, indoeuropartzea, K.a. lehen milurtekoaren hasmentan (edo lehenago) agitu zatekeen; bigarrena (erromanizazioa) aro aldaketaren aitzineko hondar gizaldietan hasi zen; hirugarrena, eta azkena, berriz, hau da, euskalduntzea, Antzinaroaren ondoren jazo bide zen, antza.

11.2 Azterturiko idazkun corpora

Eskuartean dugun idazkun kopurua engainagarria, nahasgarria, gerta daiteke. Hasteko, nagusiki, epigrafeak, ordaintzeko sosa eta haiek «ulertzeko» gaitasuna zuketean

familiek eginarazten zituzketelako. Gehiago dena: hilarriak nahiz aldareak ezartzea eta haietan hilartitzak eta botoak irartzea, neurri batean, gainerako herritarrengandik bereizteko moduetako bat zen.

Beste alde batetik, pentsa daiteke inskripzio asko galduta daudela, beharbada, eza-gutzen ditugunak adina, edo gehiago.

Arabian eta Nafarroan, miliarioak, brontzezko xaflak, ontziak eta bestelako euskarriak alde batera utziz gero, –irakur edo berreraiki daitezkeen– pertsona izenak dauzkaten erromatar garaiko harrian zizelkaturiko berrehun eta berrogeita hamar (250) bat idazki daude. Lan honetan, Arabako ehun eta hamazazpiki (117ri) eta Nafarroako ehun eta hogeita zazpiki (127ri) behatu diet.

Euskal Herriko sartaldeko Antzinaroko hizkuntza egoera, azaletik bederen, jakiten saiatzeko, jatorri hispaniar-zeltako (zeltiberiarreko...) jende izenak dituzten hirurogeita hamalau (74) testu aletu ditut, hirurogeita sei (66) hilarritan eta zortzi (8) aldaretan direnak. Horietatik berrogeita lau (44) Araban daude (43 hilarri eta aldare 1) eta gainetiko hogeita hamarrak (30) (23 hilarri eta 7 aldare) Nafarroan. Araban erresuma zaharrean baino (latinaren aurreko) ondare IEeko antroponimia gehixeago dago, beraz.

Gaur arte ediren diren (hizkuntzaren aldetik ulergarriak edo erabilgarriak diren elementuak dauzkaten) estela gehienetan G-E ondareko onomastika besterik ez dago; ez dira heren batera iristen IE sustraiko osagairen bat duten epitafioak.

Berebat, Euskal Herriko aldareetan dauden antroponimo gehienak enbor G-Ekoak dira. Jainko IEei opaturiko Nafarroako bi arak baizik ez dauzkate jende izen IEak. Motzean esanda, antroponimia baino teonimia IE gutxiago dago, Araban batez ere.

Hilarrien eta aldareen % 20k (15ek) bakarrik du/ditu IE jatorriko pertsona izena/k osorik (hizki guztiekin), esan nahi baitut ez duela nolabaiteko irakurketa arazoren bat; gainetikoetan (59tan), izan arinagoa, izan larriagoa, bada leitzeko zailtasun edo oztoporen bat, alegia, –puskatuta edo higatuta egoteagatik– zatiren bat ezabatua dago edo ezin da ondo ulertu.

Hori dela eta, bai argitara eman zituzten autoreek, bai ondoren xehatu dituztenek, proposatzen dituzten balizko irakurketak eta interpretazioak ez datoz bat aldi oro; guztiek falta diren parteak edo hizkiak ez dituzte era berean osatzen edo berreraikitzen. Zenbait garaitan, editoreek zalantza handiak dauzkate plazaratzen dituzten transkripzioekiko.

Hainbat antroponimo berreraikitako formak dira, aurrera egiteko ez dago beste erremediorik, baina izenak noiz, zenbateraino eta nola osatu behar diren ebatzea ez da erraza. Korapilatsuena, noski, galdutako oroitarriekin nola jokatu erabakitzea da. Dudak direla eta, zenbait ikertzailek hainbat inskripzio ez dituzte beren lanetan aintzat hartzen.

Horren aurrean, bi jokabide daude: zuhurra/zurruna izan eta azaoa murriztea, hau da, onimo arazotsuak kanpoan uztea, edota arriskuak hartu eta ahal den sorta zabalena baliatzea, hots, gaurko iturri nagusietan (*Hesperia* eta *Hispania Epigraphica* datu baseetan) barneratuta dauden erakuskari guztiak (eta haietan ez dauden gutxi batzuk ere bai) ontzat eman eta ikergaitzat hartzea.

Bigarrenaren alde egin dut, eginkizuna aitzinatzeko irizpide murriztaileak baino aukera gehiago ematen duelako, Euskal Herriko sartaldeko Antzinaroko hizkuntza egoeraren ezagutzan argi egiten saiatzeko jakinkizun gehiago, azterkizun «zabalagoa», eskaintzen duelako. Izan ere, corpora txikituz gero –aleturiko pertsona izenak fidagarriagoak izanagatik– eragin edo ekarpen indoeuroparra «higatzeko» edo hutsaltzeko (baldintzatzeko) mentura areagotu egin daiteke.

11.3 Laginen banaketa

Hilarrien kuntzatik hasiko naiz. Egikereren zein dekorazio motiboen eta irudi sinbolikoen azterketak parada ematen du lurralde baten barruan antzekotasunak dituzten hilarri multzoak bereizteko. Hain zuzen, Arabako sartaldeko eta Nafarroako sartaldeko oroitarrien apaingarrien antzekotasuna ez da atzo goizeko kontua. Zenbait adituk berdintasun hori alderdi hartan hargindegi bat zegoelako hipotesiaren bidez esplikatu du, baina badaude aparteko lantegiez hitz egitea ahalbidetzen duten arrazoiak. *Officinae* horiek, gertu zeudekeenez gero, harremana zuketzen euren artean eta (eskualde mailako) moda berari jarraitzen zitzaizkiekeen.

Arabako sartaldeko edergarri bereizgarrienak (mahatsondo zuztarren orla...) barruti harekin muga egiten duen Nafarroako zerrendan ere idoro dira. Bestetik, Aguilar Kodesen eta Marañónen, bietan, (erliebean egindako) giza irudikapenak dauzkaten zenbait hilarri daude, baita Iruña Okan ere; ez dute, ordea, Gastiainen eta Arabako sartaldean ohikoak diren moduko apaingarririk.

Hamabi (12) hilarritan ilgoraren irudia dakusagu. Marrazki hori duten bost (5) aletan *Segontius* izena irarrita dago, eta beste hirutan (3) *Ambata*. Hala berean, hamaika (11) oroitarritan bada eguzkiaren imajina. Astro nagusia dagoen hiru (3) adibidetan *Segontius* leitu daiteke, eta beste bitan (2) *Ambata*.

Mahatsondo aihenak onomastika IEa duten bost hilarritan ikus daitezke eta adarrak (besterik gabe) lagin batean. Dekorazio hori daukatenen artean ez dago *Segontius*-ik eta *Ambatus*-ik. *Reburus*-en eta *Buturra*-ren estelek, ordea, mahatsondo zuztarrak dituzte.

Hizkuntza arrastoen banaketaz denaz bezainbatean, Araban, erromatar garaiko epigrafiak metaketa nagusia «ab Asturica Burdigalam» edo «Iter XXXIV» bideak

zeharkatzen zuen zatian da eta Bizkaian, berriz, iparraldean. Arabako iparraldean, Bizkaiko sortaldean nahiz hegoaldean eta ia Gipuzkoa osoan, hutsune nabaria dago, horratik. Gauza bera Iparraldeari dagokionean.

Nafarroari datxekionez, inskripzio gehienak erdialdeko eskualdeetan daude, asko, denbora joanetako hirien inguruan edota haien *territorii* edo barrutien barnean (Andelon [Muruzabal Andionen], Cournoniumen [Los Arcosen], Santakrizen [Eslaban]...). Deigarria da Ebro ondoko zenbait tokitan sumatzen den gabezia.

Berebat, Araban eta Nafarroan, IE sorburuko zatiak dauzkaten idazkunak ez dira antroponimo guztiz G-Eak dituztenak bezain era uniformeetan banatzen. Ereku jakin batzuetan kausitu dira, batez ere *Iter XXXIV* delakoaren aldamenean eta bi herrialdeen arteko mugan.

Deizio IEak grabatuta dituzten hilarriek kuntza bera dute behin baino gehiagotan; askok egikera, dekorazio eta onomastika bertsua daukate, baina zenbait azpimultzo (eta indargune) antzematen dira.

Iter XXXIV-aren ondoko epitafio gehienak –Iruña Oka alde batera utziz gero– Agurain-Olatzagutia artean daude, adibidez, hau da, Arabako Lautada bukatzen eta Sakana hasten den gunean (edo, nahiago bada, alderantziz). Paraje hura bidegurutze garrantzitsua zen. Han zatekeen, preseski, *Alba* hiria/mansioa.

Donemiliaga aldean foku garrantzitsua dagoela sumatzen da. Orotara, IE alorreko antroponimia duten Euskal Herriko hilarri guztien herenaz ari gara. Alderdi hartako izen erabiliak *Segontius* (*Segonticus*...) da. Penintsulako beste inon ez da hain joria. Iruña Okako azaoak badu zerikusia Donemiliaga aldeko honekin.

Bigarren sorta naroa (18 alekoa), Lokizkoa, *XXXIV*-tik urruti samar (11–16 km-ra) da, baina, hala eta guztiz ere, Donemiliagakoarekin lot daiteke. Bi indargune sumatzen dira Lokizko taldean, Kontrasta (Haranean) eta Gastiain (Lanan).

Lokiz aldean dokumentatu diren elementu IEen artean hirutik bi (jorienak direnak) Donemiliaga inguruan (nahiz Iruña Okan eta Sakanan) ere kausitu dira. Izenak (oroitarrien apaingarriek bezala) Donemiliaga eta Lokiz aldeko taldeen arteko hartu-emanaz mintzo zaizkigu, baina antzekotasuna ez da erabatekoa, badagoelako aldea Kontrastaren eta Gastiainen artean, antroponimoen eraketa moldean batez ere (ik. 6.2. §).

Donemiliaga aldekoarekin eta Lokizkoarekin (hein batean bederen) esteka dukeen beste multzo garrantzitsua Toloñoren aldamenekoa da. Aurreko azaotik, hau da, Lokiz aldekotik, 18–20 km-ra dago (hego sartalderantz), hura bezala, Arabak eta Nafarroak elkar ukitzen duten gune batean.

Gehien ageri den onimoa *Doiterus* (*Doitena...*) da eta bada Donemiliaga nahiz Lokiz aldean edirendakoen erakuskaririk. Horixe da Toloñoko laginak haietako bietakoekin alderatzeko arrazoi nagusia, izenen erdia iparralderago dauden beste bi esparruetan ere erabili direla ikustea. Beste batzuk (*Tiresamus*, [*E*]lasus, *Tritaus...*), baina, ez dira ageri Toloño aldean.

Hiru multzoon (Donemiliagakoaren, Lokizkoaren, Toloñokoaren) eta Iruña Okakoaren artean iturburu IEko izenak dauzkaten epigrafeen hamarretik zortzi batzen dute. Gainerakoak han-hemenka aurkitu dira, baina batzuk, sortatxotan bil daitezke: Errioxa, Trebiñu, *Cournonium*, *Andelo*, Santakriz. Guztietan badaude onomastika guztiz G-Ea duten idazkunak.

Ugarienak diren deizio IEak (*Segontius*, *Ambatus/a...*) hiru talde nagusien barrutietan dokumentatzen dira batik bat; behin bakarrik lekukotzen diren asko (*Arquio*, *Segilus...*) periferian daude, ordea.

11.4 Ondare indoeuroparreko izenen ezaugarriak

Aldez aurretik jakina daukagu antroponimoen osagaien nolakotasunari eta ordenari erreparatuz gero, neurri batean, hilarriak eta aldareak jarrarazi zituztenen artean erromanizazioa zenbateraino errotua zegokeen hauteman daitekeela. Cognominen artean izen IErik badagoen, familiaz gaindiko unitatea barneratzen den edota amaieran filiazioa jakitera ematen den aintzat har daiteke horretarako.

Adibidez, onomastika segidaren akabailan filiazioa adieraztea (batez ere izen bakar baten bidez egiten bada), integrazio (erromatartze) prozesua hastapenean zegoelako adierazletzat hartzen da, patronimoa kultura indigena (IEa) artean indarrean zen eta molde erromesak pisua zuen tokietan ezartzen bide zelako.

Antroponimia indigenak eredu erromesarekin (*izen bakarra + filiazioa*) eta latinoak sistema erromatarrarekin duten lotura bistakoa da, elementu IEak erromes saileko jende izenetan agertzen direlako batez ere (bai idionimoetan, bai patronimoetan), baina duo nominen artean ere badaude etsenplu batzuk. *Onimo indigenak-sistema erromesa* eta *onimo latindarrak-sistema erromatarra* parekatzeak ez dira alde eta aldi oro betetzen. Halaber, argitu beharra dago antroponimoaren parteen etorburuak ez duela ezinbestean baldintzatzen gizabanakoaren estatutu juridikoa.

Zatien jatorriaren eta onomastika segidaren egituraren argitan bereiz daitezkeen moldeak ez dira era homogeneousan banatzen maneatu dudan lurralde osoan. Esate baterako, Iruña-Veleiako, *Iter XXXIV*-aren aldamenean zegoen hiri nagusiko, inskripzio gehienak II. mendekoak dira eta –ondoko tokiekin erkatuz gero– aski erromatarturiko

gizartea azaleratzen dute. Han dira, preseski, Araban dokumentatutako *duo* eta *tria nomina* asko. Zernahi gisaz, hilarri gehienetan deizio G-Eak irakurtzen dira, elementu IEak dauzkatenak ere badiren arren.

Nafarroa eta Araba mugako onomastika eremuaren bereizgarri esanguratsuenetakoa *izen bakarra* + *filiazioa* egituraren ugaritasuna da. Gehienetan, eraketa hori duten antroponimoen bi parteak IE etorkikoak dira, batzuk Penintsulako beste herrialde batzuetan lekukotzen direnak, bereziki sartaldean eta esparru zeltiberiarrean, baina beste batzuk ez.

Bi aletan izan ezik, *izen bakarra* + *filiazioa* sekuentzia apaingarririk gabeko oroitarri apaletan leitzen da; *duo* eta *tria nomina*-k dituzten bat baino gehiago mahatsondo zuztar irudiekin apaindutako epitafio dotoreak dira, aitzitik.

IE jatorkiko elementuak bakarrik dauzkaten antroponimoei dagokienez, gurean, hemezortzi (18) dira idionimo IEak dauzkaten hilaitezak eta haietan hemeretzi (19) erakuskari ezberdin zenbat daitezke (10 Araban eta 9 Nafarroan). Azpimarratzekoa da lau (4) Toloño aldean eta beste lau Araba-Nafarroa mugatik urrun samar egotea.

Azpisail honetako esteletan-eta *D M* (6) (AR 3, NA 3) eta *H S E* (7) (AR 4, NA 3) formularioak asko aldiz ikusten dira, kasu batean biak aldi berean (Kontrastan). Emakumezkoak zazpi (7) dira, hots, *izen bakarra* ohikoa da emaztekien artean.

Zaila da kronologiaz ezer esatea, zatiren bat (*filiazioa*?) falta dutenak ez ezik, tartean, osagai bakoitzeko deizio zaharrak, antroponimo berankorrek nahiz jopu izenak ere egon daitezkeelako (badira bi, gutxienez).

Antroponimoetan leitu daitezkeen (G-E sorburuko) beste elementu batzuk, baita epitafioetan diren zenbait substantibo (*m(onumentum)*...), adjektibo (*carissimo*...) eta aditz (*f(aciendum)* *c(uraverunt)*...), hilarrien data zehazteko lagungarriak izan daitezke. Hain justu, aipatu ezaugarriak dauzkaten hilaitezak eta botoak ez dirateke, segur aski, darabiltzagunetatik zaharrenak. Oroit bedi, antza denez, gizon-emakume askeen filiaziorik gabeko idionimoak II. mendetik aitzina dokumentatzen direla, batez ere, ehorzketa (eta agintza) inskripzioetan, eta ohikoagoak direla data berantiarreko mostretan.

Bigarrenik, azpimultzo honetan, *idionimoa* + *filiazioa* egituraren hamazortzi (18) etsenplu daude (AR 14, NA 4). Badira patronimoa besterik gorde ez den beste bi ale. Gehienak Donemiliaga aldean edo Lokizen ediren dira (haietatik 13 *Iter XXXIV*-aren altzoan).

IE iturburuko elementuak bakarrik dauzkaten antroponimoen artean *idionimoa* + *filiazioa* egitura da joriena. Pertsona izen horiek talde berezitua osatzen dute eta nortasuna ematen diete Arabako sortaldeko eta Nafarroako sartaldeko onomastika

aztarnei. Sorta honetan, gurean gehien errepikatzen diren izenak gailentzen dira (*Segontius*, *Ambatus/a*, *Turaesamus*, *Araus...*). Ez dago matronimorik, ezta aita-semeen arteko homonimia adibiderik; bai, ordea, adar bereko osagaiak dauzkatenak (*Segontius Segontiei f.*).

Hildakoaren adina eta *H S E* formula (*D M*-rik gabe) sarritan egoteak inskripzio goiztiarrenen artean sailkatuko lituzkete; zaharrenak I. mendearen erdialdekoak edo amaierakoak izan daitezke. Zentzu horretan, diodan, idazkuntan ez dagoela *m(onumentum)* substantiboaren, *carissimo* adjektiboaren edo *f(aciendum)* *c(uraverunt)* adizkien gisako hitzik.

Talde honekin amaitzeko, hiru onimo IE dauzkaten oroitarriak ahotan hartu nahi ditut. Iruña Okakoak eta Durrumakoak ez dute formulariorik, baina Marañoangoak biak ditu (*D M* eta *H S E*), hiru gizaki irudiz gainera.

IE eta G-E ondareko elementuak dituzten pertsona izenei dagozkienetan, hogeita zortzi (28) daude, hogeita zazpi (27) hilarritan egon ere. Azpisail honetan, lehenengo eta behin, *idionimoa* + *filiazioa* egitura duten zortzi (8) jende izen ditugu, beste hainbeste epitafiotan direnak (AR 5, NA 3). Zazpi (7) kasutan lehen zatia IE etorkikoa da eta *filiazioa* G-Eekoa. Alabaina, enbor G-Eeko *idionimoa* eta *patronimo* IEa duen adibide bakarra dago. Laginak, batik bat, *Iter XXXIV*-aren aldamenekoak (2), Lokizkoak (4) eta Toloño aldekoak dira.

Bide batez, nabarmen dezadan, orotara, bi arloetako (zati IEak bakarrik dauzkaten eta IE nahiz G-E jatorkiko osagaiak dituzten) antroponimoak kontuan hartuz gero, *idionimoa* + *filiazioa* eraketa duten hogeita zortzi (28) ale zenbat daitezkeela; molde erabiliena da, ezbairik gabe.

Bestalde, osaketa nahasia duten deizioetara itzuliz, sei (6) dira *duo nomina*-k diruditenak. Bi (2) lekukotasun Iruña Okakoak dira eta beste hiru (3) Araba-Nafarroa mugatik urrun dauden lekuetakoak. Lau (4) aldiz nomina IE alorrekoa da eta *cognomena*, berriz, G-Eekoa. Haatik, bi (2) laginetan nomina G-E endakoa da (*Ursicenus*, *Licin(ius)*) eta *cognomena* IEekoa.

Duo nomina + *filiazioa* hurrenkeraren hamabi (12) adibide daude. Horrelako izenak zeuzkaten pertsonak hiritar erromatartzat hartu izan diren arren, ezin da baztertu batzuek gisa horretako deizioak, nolabait esateko, erromatartzea aitzinatzeko hobetsi izana, urrats horrek, nahitaez, hiritartasuna erdiestea ekarri gabe. Badirudi I. mendearen akabailaren eta III.aren hasieraren artekoak izan daitezkeela.

Azpinultzo honetan hiru motako eraketak ditugu, parte IEen zenbatekoaren eta kokapenaren arabera. Batetik, *nomen* G-Ea + *cognomen* IEa + *patronimo* IEa + *filius/a*

ordena duten sei (6) pertsona izen daude gurean, lau (4) Nafarroan eta bi (2) Araban. Badira, berebat, nomen G-Ea eta cognomen nahiz filiazio IEa duten hiru; lehenbiziko taldekoak ageri diren toki beretan dira gehienak. Hirugarrenik, nomen G-Ea, cognomen IEa eta patronimo G-Ea daukaten hiru jende izen ditugu, bi hiltartizetan. IE leinuko lehenbiziko eta hirugarren osagaia duen adibiderik ez dago.

Zenbait antroponimotako filiazioan, funtzio «diakritikoa» (bereizlea) cognomen batek betetzen du. Berezitasun hori dutenek onomastika indigenaren urardotzea (erromatarrarekin bateratzea) aurreratu samarra zegoela adierazten bide dute.

Zati IEa duen *tria nomina* bakarra dago gurean. Filiazioa aitaren cognomenaren bidez jakitera ematen da eta, *tria nomina*-ren eskema kanonikoan ez bezala, osagai hori antroponimoaren bukaeran da (cognomenaren jarraian).

Azkenik, badira *nomen GEa + cognomen IEa + filiazio «nahasia»* egitura duten bi, Lantziegon (Assan) eta Laudion, zehazkiro. Haietan diren bi patronimoek osaketa bera dute: *cognomen G-Ea + (-o(m) bukaera duen) onimo IEa*.

Aldareetako zortzi jende izenei datzekienez, erdiak osagai bakarra du eta beste erdiak bi. Ez dago hiru zatiko etsenplurik aretan. Guztiak maneatu dudan epigrafia eremuaren periferiakoak dira.

Bi parte dauzkatenetako batek bakarrik ditu IE jatorriko bi elementu. Bi kasutan nomina G-Ea eta cognomena IEa da. Beste mostra batean (Eslabakoan), alderantziz geratzen da. Ez dago filiazioaren adierazpena duen alerik.

Begira diezaiegun orain jatorri indoeuoparreko onimoen erakuskarien zenbatekoei buruzko xehetasunei. Aztarren IEak dituzten hilarri eta aldareetan, guztira, laurogei (80) antroponimo konta daitezke. Pertsona izen guztiz IEak berrogeita zortzi (48) dira (Arabian 30 eta Nafarroan 18) eta bi arloetako zatiak (G-Eak, IEak) dituztenak hogeita hamabi (32) (% 40).

Pertsona izen horietan guztietan, orotara, ehun eta berrogeita hemeretzi (159) elementu konta daitezke; jakina, asko errepikatuak. Izan ere, egotez, hirurogeita hemeretzi (79) deizio ezberdin daude, berrogeita bost (45) sorburu IEekoak eta hogeita hamalau (34) G-Eekoak. IEak ehun eta hamazazpi (117) aldiz azaltzen dira eta GEak berrogeita bi (42) aldiz.

Hamahiru (13) izen IEen artean (% 29) hirurogeita hamasei (76) mostra batzen dituzte (% 65), bestela esanda, bakoitza ia sei aldiz errepikatzen da batez beste. Aztergaia hamazazpi (17) onimora zabalduz gero (% 38), laurogeita lau (84) agerraldi metatzen dituzte (% 72). Beste muturrean, badaude behin bakarrik ediren diren hogeita zortzi (28) onimo IE (% 62), erakuskari guztien % 24 osatzen dutenak.

Etorki IEeko osagaiak, beraz, latinezkoak baino gehiago errepikatzen dira oro har eta aurrenekoen artean badaude, nabarmen, besteak baino gehiago lekukotzen diren batzuk.

Izen IE ugarietak *Segontius* (*Segotius*, *Segontiecus/a*, *Secontiecus...*) (16 aldiz), *Ambatus/a* (*Ambaicus...*) (16), *Turesamus* (*Turesica*, *Turaesamicio...*) (6), *[E]lasus* (*Elauus*, *Elanus...*) (5), *An(n)a* (*Anica*, *Annicius...*) (5), *Aun(n)ia* (4), *Cantaber* (4), *Tritaus* (*Tritaiecus...*) (4), *Araus/a* (*Ara(i)ca...*) (4), *Calaetus* (3), *Ablonius* (3), *Coema* (*Coemia...*) (3) eta *Doiterus* (*Doitena...*) (3) dira.

Badira, hala berean, bi aldiz dokumentatzen diren lau: *[A]meanus* (*A[m]eaius*; Kontrasta), *Boutia* (Aguilar Kodes, Lantziego), *Licira* (Ilarduia, Egilatz) eta *[Reb]jurrus* (*[Reb]jurrinus*; Ibaguren).

Hirugarrenik, esan moduan, badaude gurean behin bakarrik leitzen diren hogeita zortzi (28) elementu. Hauek dira beste toki batzuetan bildutako eta gure esparruan behin bakarrik topatu diren hamabostak (15ak): *Arquio* (Monteagudo), *Attesuclō* (Lantziego), *Betunus* (Barbarin), *Buturra* (Gastiain), *Celtius* (Marañón), *Elc V+n* (Larragoa), *Equesus* (Oteitza), *Gall[---]* (Gastiain), *Otai* (Rocaforte), *P[a?]jesina* (Rocaforte), *Pimaus* (Larragoa), *Segilus* (Guardia), *Vendio* (Aguilar Kodes), *Viriatus* (Gastiain), *Vironus* (Gastiain).

Honatx, bukatzeko, Euskal Herrian baizik topatu ez diren beste hamahiruak (13): *Acnon* (Oteitza), *Anutisema* (Argantzón), *Aselucio* (Mañueta), *Ausivos* (Iruña Oka), *Homicino* (Iruñela), *K(a)rauir(onus)?* (Arroitz), *Licoiom* (Laudio), *Orulio* (Okariz), *Picull(a)* (Eslaba), *Plend[us?]* (Egilatz), *Sentoni* (dat.) (Luzkando), *Tergido* (Gastiain) eta *Vistena* (Rocaforte).

11.5 Hego-sartaldearen ondoko lurraldearen hizkuntza testuingurua antzinatean

Erromaren errainua Iberiar penintsulan barrena zabaltzen hasi zenean, Euskal Herriarekin hego-sartaldetik muga egiten zuen esparru indoeuroparra nabarra zen. Horregatik, zaila da Zeltiberiaren norainoko zehatza finkatzea, baina garbi dagoena da badela epigrafia eremu zeltiberiar bat, hizkuntza hori dokumentatzen den barruti bat.

Idatzizko kultura zeltiberiarraren loraldia K.a. II. gizaldian hasi zen, erromatarren konkistaren ondoren. K.o. I. mendearen lehen hamarkadetatik aitzina zeltiberieraz izkiriaturako ezer ez dago, horratik; aro aldaketarekin batera zeltiberiarrek, gero eta gehiago, latinezko alfabetoa baliatu zuten, signario zahararren (paleohispaniarraren) ordeztu. Badirudi sasoi horretatik aurrera zeltiberiaren erabilera familia giroa murritztu eta hurrengo hamarkadetan desagertu egin zatekeela. Kosta egiten da sinestea, ondorioz, Zeltiberiatik bereiz eta urrun samar ziren tokietan, Arabako Lautadako sortaldean,

adibidez, I. jendemendearen amaieran zeltiberierak bizirik zirauela, zer esanik ez II.ean (edo III.ean).

Euskal Herriko hego-sartaldeko gun bat eta parte (luze eta mehar) bat epigrafia zeltiberiarra kausitu den lurraldearen barnean dira. Ebroren iparraldeko ibaiertzean (Viana inguruan) hemen hamar bat kilometro barneratzen den mihi modukoaz eta Nafarroaren eta Errioxaren arteko sartaldeko mugaren parean hasten den ibaiaren beste aldeko (hegoaldeko) zerrendaz ari naiz (Fitero, Cintruénigo eta Cascante hartzen dituenaz). Paraje horietan badira zeltiberieraren idatzizko arrastoak.

Epigrafia zeltiberiarra ezaugarritzen duten bi objektu edo euskarri nagusiak *tesserae hospitales*-ak eta brontzezko xaflak dira. Zeltiberieraren mostrek zedarritzen duten eremu guztian aurkitu dira. Gauza bera gertatzen da harri gaineko epitafioekin eta txanponekin.

Tesera ugari idoro diren eta zeltiberieraz izkiriaturiko legendak dituzten txanponak jaulki ziren Ebro ondoko mingaina (Viana) nahiz hegoaldeko zati luze eta estua (Fitero, Cintruénigo eta Cascante) alde batera utziz gero, Euskal Herriko sartaldean (oroitarrietan sustrai IEeko antroponimo gehienak dokumentatzen diren alderdian) ez dira betetzen epigrafia zeltiberiarraren barrutia bereizten eta definitzen duten tasun garrantzitsuenak: ez dago testu luzeren bat daukan tamaina ertain edo handiko brontzerik, ezta tesararik edota txanponik ere, hain gutxi hilaiztik edota erlijio arloko labar-grafitorik.

Hau bera aditzera ematen dute ahaidetasun harreman taldeen izenek. Iberiar penintsulako alde IEeko zenbait herri indigenaren gizarte antolaketa gentilitatean oinarritzen zen eta, horren lekuko, zeltiberiarrek eta aldamenen bizi ziren sail bereko beste erkidego batzuek antroponimoak eratzeko modu berezia zuten, familiaz gaindiko multzoaren izena (genonimoa, gentilitatea, *cognatio*-a) ezinbesteko osagaitzat zuena, gizon-emakumeei idionimo batekin eta, eskuarki, ahaidetasun taldearen onimoarekin deitzen baitzitzaien (**retukenos uisalikum; sura matulokun...**).

Genonimoa, **-ko-**/**-co-** atzizkiaren bidez sortzen zen, pertsona izen batean funtsatua. Egitura edo tasun hori onomastika molde edo formula zeltiberiarraren bereizgarria da. Haren arrastoa K.a. II. gizalditik K.o. III. mendea arte jarrai daiteke eta alorrak Zeltiberia, Kantabriaren zatirik handiena eta asturren bizilekuaren sortalde hartzen ditu, hots, Euskal Herria sartaldetik inguratzen zuten herrialde guztiak.

Gentilitatea adierazten duten segida naroenak «*idionimoa + genonimoa*», «*idionimoa + genonimoa + patronimoa (+ ffilius)*» eta «*nomena + cognomena + patronimoa + ffilius*» dira.

Ahaidetasun harreman taldeak, signario paleohispaniarrean ez ezen, alfabeto latinoan izkiriatu zituzten.

Idazkun zeltiberiarretan, cognatio pluraleko genitiboan (-**um**) ematen da gehienetan, nahiz eta, antza denez, badagoen singularreko genitiboan (-**o**) deklinaturikoen adibiderik. Gogora bedi Vianako taseretako batean **telkaskum** genonimoa dugula, adibidez, eta hango bertako beste batean **berkuakum**, biak ala biak genitiboko pluralak.

Latinezko inskripzioetan familiaz gairikoa taldea pluraleko genitiboan (-*um*, -*om*, -*orum* hondarkiekin) nahiz singularreko genitiboan (-*o* morfemarekin) deklinatuta adierazten da. Horiei genitiboa ez den kasuetan dauden (-*co*- berrekailua daukaten) gentilitateak gehitu behar zaizkie, arruntan, antroponimoan cognomen gisa ezartzen direnak. Eraketa hauek guztiek erromatar moldearen eragin bistakoa dute, hots, erromanizatua zegoen onomastika testuinguruaren berri ematen dute.

Euskal Herriko hilarriez denaz bezainbatean, hobenera jota, balizko bi erakuskari egongo lirakeke, *Attesuclō* eta *Licociom*, biak periferian (Assan [Lantziegon] eta Laudion, hurrenez hurren). Cognatio izenak izatekotan, kokapen hori ez litzateke halabeharrezkoa, nire ustez.

Iritzi zabaldia da Assako jende izenaren hondar osagaia (*Attesuclō*) ahaidetasuna azaleratzen duen onimoa dela, baina hipotesi horrek baditu eragozpen larriak. Gauza bera Laudiokoaz (ik. 7.4 §). Preseski, azken horretan estelaren ezarpenaz argitasunak ematen dira hilarritzean (*su[ae] mu(nimentum) pos(uit)*) eta, gainera, *D M* formula dago. Halaber, uste da Assakoan *f(aciendum) c(uravit)* aditza zegoela. Hori ikusirik, oldoz daiteke ez direla eralki ditudanetatik zaharrenak (ik. 4.2 §).

Euskal Herriko hilarri eta aldareetan dokumentatzen diren osagai IEen artean bada Iberiar penintsulan genonimoen oinarritako erabili den bat baino gehiago (12), baina nabarmendu nahi dut, gurean, elementu horiek nomenaren lekuan direla gehien-gehienetan (*Araica Arai f.*), eta ez cognomenaren posizioan (*cf.* Lara de los Infantesko *Coemea Desica Aploni f.*). Motzean esanda, gentilitatea cognomen gisa (genitiboa ez den kasuren batean) barneratuta daukan antroponimorik ez dago Euskal Herrian.

Zeltiberiakoarekin, ondoko lurraldekoarekin, alderatzen bada hemen egon daitekeen balizko zenbatekoa hutsaren hurrengo da. Urritasun horrek pentsarazten du (noizbait halakorik izan bazen) inskripzioak egin ziren garaian behinolako gizarte egitura gentilizoa ihartuta edo galduta zegoela, hau da, Erromako politika eta administrazio antolaketa nagusi zela erabat orduko; oso goiz eta azkar «urardotu» zatekeen berrian (erromatarrean). Arras harrigarria litzateke molde gentilizioaren arabera antolatzen ez ziren gizataldeen mintzaira zeltiberiarra (edo indoeuropar adarrekoa) izatea.

Enbor IEeko antroponimo gehien dauden tokietan errepikatu egiten dira (*Segontius*, *Turaesamus*...) (ik. 7.2 §); esteletan-eta aipatzen diren hildako askok familia jakin batzuetakoak dirudite. Nortasuna bazuten talde txiki samarrak zirela iradokitzen du

horrek; alabaina, ez darabilte genonimorik beren izaera berezituaren edo apartekoaren berri emateko.

11.6 Onomastika esparruak eta hizkuntza alorrak

Euskal Herriko jatorri IEeko onomastikaren muina Arabako sortaldean eta harekin muga egiten duen Nafarroako sartaldeko zerrendan da. Iruña Oka aldean bada beste azao garrantzitsua. Nolanahi ere, azpimarra dezadan paraje horietan guztietan pertsona izen G-E ugari dagoela. Beste eskualde batzuetan aurkikuntzak bakanagoak dira.

Kutsu IEeko antroponimoak dauzkaten hilarri gehienak kausitu diren barrutian hiru indargune edo foku nagusi antzematen dira: Donemiliaga aldekoa, Lokiz ingurukoa eta Toloñoren aldamenekoa. Hiruren artean hamar laginetik sei batzen dute. Donemiliaga aldeko eta Lokizko erakuskariak bakarrik aintzat hartzen badira, lekukotzen erdia baino gehiago metatzen dute. Onomastika G-Ea besterik ez duten epigrafeekin ez da gauza bera jazotzen, ordea, esparru zabalagoan idoro baitira horrelakoak. Deizio G-Een mostrak naroak diren hainbat lekutan ez dago, aitzitik, arrasto IEik. Pertsona izen IEak, arruntean, G-Eak badauden tokietan dira, beraz (baina ez alderantziz). Ez daude onomastika eskusiboa duten bi alderdi (IE jatorkikoa vs G-Eekoa).

Jainko IEei eskainitako ara gutxi dago; dibinitate greziar-erromatarrei nahiz euskaldunei opaturikoak gehiago dira. Atentzioa ematen du Araban, jende izen IE gehien aurkitu den herrialdean, alor horretako teonimia gutxi egotea. Salbuespen nagusia Angostina da.

Erromatartzea hasi zenean Arabako biztanleria guztia hispaniar-zelta bazen, hau da, epitafioetan onimo IEak idatzarazi zituzten gizon-emakume denak bertako jatorrizkoak baziren, ez da aisa ulertzen laginak eremu batean bakarrik zergatik topatu diren, gainetiko lekuetan zer dela eta ez dagoen zenbateko bera, iragan denboretako *mansio* eta *civitate*-en inguruan bereziki, Dulantzin (*Tullonio*-n) eta Akaian (*Suestattio*-n?) kasu.

Leinu IEeko antroponimoak dauzkaten idazkunak G-E ondareko jende izen asko samar dagoen hiru esparrutan pilatzen dira. Uste izatekoa da banaketa horrek alfabetatzearen (*literacy* delakoaren) zabalpenarekin zerikusia izan dezakeela, azken finean, erromatartzearekin. Balirudike Araba-Nafarroa mugako balizko gizatalde hispaniar-zelta aski goiz erromatartu zela.

Izan ere, idazteko ohitura erromanizazioaren aitzinetik hedatua bazegoen, espero izatekoa litzateke signario paleohispaniarrean irarritako epigrafeak egotea (teserak, brontzezko xafak...), baina ez da horrela. Hori ikusita, oldoz daiteke –lehendik

izkiriatzten ez zekiten— txoil erromatarturiko jendeen aurrean gaudela, hau da, hizkuntzaren aldetik bederen, orduko, ez zirela zeltiberiarrak edo hispaniar-zeltak.

Hilarrietan—eta leitu daitezkeen izen batzuk IE sailekoak direnez gero eta jakinik deizio G-Eek esparru zabalagoa hartzen dutela, ezin da baztertu Araba-Nafarroa mugako inskripzioak egin zituztenetako batzuk (Penintsulako) beste alde batzuetatik hona etorritako (erromatarturiko) enda IEetako gizon-emakumeak izatea.

